


BALIARRAIN UDALERRIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

HASIERAKO AGIRI ESTRATEGIKOA



Sustatzailea:



Egileak



2025ko ekaina

AURKIBIDEA

1	SARRERA ETA AURREKARIAK	1
2	IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA PLANAREN EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA	2
2.1	INDARREKO PLANGINTZAREN BERRIKUSPENAREN JUSTIFIKAZIOA.....	2
2.2	IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK	2
2.3	IRIZPIDE ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK.....	2
3	PLANAREN DESKRIBAPENA	4
3.1	HIRI LURZORUAREN ALTERNATIBAK.....	4
3.2	LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN PROPOSAMENAK	10
4	LURRALDEAREN INGURUMEN AZTERKETA	14
4.1	PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA KOKAPENA	14
4.2	KLIMA	15
4.3	INGURUNE FISIKOA.....	15
4.4	INGURUNE BIOTIKOA	20
4.5	NATURA INTERESEKO EREMUAK	31
4.6	PAISAIA	35
4.7	KULTURA ONDAREA	36
4.8	INGURUMEN ARRISKUAK	38
4.9	HIRIKO METABOLISMOA.....	44
4.10	MUGIKORTASUNA ETA IRISGARritasuna.....	45
4.11	INGURUMEN- ETA PAISAIA-UNITATE HOMOGENEOAK	46
4.12	INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUEN LABURPENA.....	50
5	BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA.....	52
5.1	LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK.....	52
5.2	TOLOSAKO (TOLOSALDEA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN PARTZIALA	53
5.3	LURRALDE PLAN SEKTORIALAK	56
5.4	GAINONTZEKO PLAN SEKTORIALAK.....	60
5.5	BESTE PLAN ETA PROGRAMAK	61
6	AINZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO INGURUMEN AZTERKETA	65
6.1	ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA.....	65
6.2	ALTERNATIBEN AZTERKETA	67
7	NATURA 2000 SAREAREN GAINEKO ERAGINA	76
8	ERAGINDAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA HERRITAR INTERESDUNEN PROPOSAMENA	77

I.Eranskina: Planoak

II. Eranskina: Planen eta programen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskina

1 SARRERA ETA AURREKARIAK

Plan eta Programen Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa baliabide naturalak zaindu eta ingurumena babesteko prebentzio-baliabide egokia da. Baliabide honen bitartez ingurumen aldagaia kontutan hartzen da ingurumenaren gainean eragin nabarmena duten plan eta programei buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Europar Batasunak plan eta programa hauek ingurumenaren aldetik aztertzeko garrantzia onartu zuen eta, hala, ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentaraua ezarri zuen, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko.

Estatu mailan, zuzentarau hau apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluaketari buruzkoak, barneratu zuen. Ondoren lege hau, ingurumen ebaluaketari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak indargabetu eta ordezkaturik izan da.

EAEko esparruan, abenduaren 9ko 10/2021 Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legeak plan eta programen ingurumen ebaluaketarako prozedura ezartzen du, aurreko otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorra indargabetu eta ordezkaturik. Horrez gain, indarrean jarraitzen du gaur egun 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Horrela, abenduaren 9ko 10/2021 Legeak II.A eranskinean Ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE aurrerantzean) arruntaren prozedura bete behar duten planak eta programak biltzen ditu, Hiri-Antolamendurako Plan Orokorrak (4. puntua) bertan aurkitzen direlarik.

Bestalde, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, 18. artikuluan zehazten duenaren arabera, organo sustatzaileak [Baliarraingo Udalak] hasierako agiri bat igorriko dio ingurumen arloko organoari [Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia] artikulua horretan bertan zehazten den edukia izango duena.

Hirigintza dokumentua Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoaren koordinazio eta zuzendaritzapean idatzi da.

Bestetik, dokumentu hau Baliarraingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenaren Hasierako Agiri Estrategikoa da. EKOLUR Ingurumen Aholkularitza, SLL enpresako honako teknikariek idatzi eta prestatu dute:

- Leyre Arteaga Lucas (Ingurumen Zientzietan graduatua)
- Tomas Aranburu Calafel (Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoan Diplomaturatua)
- Alexandra Egunez Zalakain (Biologian graduatua)

2 IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA PLANAREN EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA

2.1 INDARREKO PLANGINTZAREN BERRIKUSPENAREN JUSTIFIKAZIOA

Baliarraingo Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Testu Bateginak, 2003ko uztailaren 22an behin betiko onartu zena, Baliarrainen indarrean dagoen hirigintza-antolamendua zehazten du.

Behin betiko dokumentua onartu zenetik 20 urte baino gehiago igaro dira eta gainera, dokumentuak berak Hirigintza Arau Orokorren 6. Artikuluan dokumentua berrikusteko aurreikusten dituen baldintza guztiak betetzen dira. Hiri-garapeneko aurreikuspenenerako ezarritako epea (8 urte) gainditzeaz gain, berrikuspena egiteko hurrengo baldintzak betetzen dira:

- a) Baliarraingo populazioa 150 biztanlera iristean.
- b) Planifikatutako etxebizitza berrien %60 garatzen direnean

Hirigintza-garapenaren aurreikuspenak 8 urtetako denbora-muga baterako zehazten dira.

Bestetik, Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko araudian berriki egin diren aldaketek (LAG, Jasangarritasun Energetikoaren Legea, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Ekologikoaren Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, EAEko Bizigarritasunari buruzko 80/2022 Dekretua...) eta gaur egun bizi dugun egoera klimatikoaren ondorioz onartu diren estrategiak aukera bat dira irizpide, helburu eta neurri iraunkorrak bilduko dituen hirigintza-plan bat hausnartu, pentsatu eta idazteko.

Horrek guztiak araudi orokorra eguneratzeko betebeharra ezartzen du.

2.2 IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Baliarraingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenaren helburu nagusiak ondorengoak dira:

- Hirigintza iraunkorra: Helburu nagusia sistema eraginkor eta bizigarri bat lortzea da. Beraz, ezaugarri nagusiak trinkotasuna, konplexutasuna, eraginkortasuna eta gizarte kohesioa izango dira.
- Baliarraingo hiri-eraldaketa: Baliarraingo hirigunearen konfigurazioak morfologia "trinkoa" hartu du, okupatutako lurzuaren aprobetxamendu egokia eta herriak funtzionatzeko behar dituen azpiegituren eta zerbitzuen errendimendu handia bermatzen duena. Udalerriaren etorkizuneko antolamenduak trinkotasun- eta batasun-irizpide horrekin jarraitu beharko du, eta beharrezkoak diren eraikuntza-garapen berriak proposatuko ditu, lehendik daudenekiko jarraitutasunean eta hurbiltasunean.

2.3 IRIZPIDE ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

2.3.1 LURRALDE EGITURA

- Ibiurko urtegiari zerbitzua emango dioten obra osagarri eta konpentsatzaileak osorik gauzatzea (aisialdirako gunea): urtegiaren perimetro ibilbidea osatzea, GI-3851 errepidea handitzea eta hobetzea, Baliarraingo hirigunetik urtegiko pasealekurako sarbidea egitea, urtegiko ur-laminan aisialdiko erabilera alternatiboak ezartzeko aukeren azterketa, Ibiur-Larraitz ibilbidea gauzatzea.
- Hirigintza-araudiak kontuan hartu beharko ditu nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabileren erabilera osagarriak garatzeko lehendik dauden eraikinei ematen zaizkien aukerak.

- San Juan Iturriaren Parke/Enklabe Historikorako sarbidea egokitzea eta hobetzea planteatzen da, espazio publikoaren erabilera mugatu, handitu eta kontrolatzearekin batera.

2.3.2 BIZTANLERIA ETA ETXEBIZITZA

- Etxebizitza-politika, funtsean, barne-eskaerari erantzutera bideratu beharko da (Baliarraingo egungo biztanleria), eta, neurri txikiagoan, udalerritik kanpoko biztanleak erakartzera. Nolanahi ere, bigarren bizilekuko edo erabilera turistikoko etxebizitzak sortzea saihestu beharko da.

2.3.3 ERREPIDE-SAREA. IRISGARRITASUNA

- Foru Aldundiaren menpeko sare publikoan (GI-3851) eta udal-sarean dauden trazadurak handitzea eta hobetzea, batez ere herrigunetik San Juan parkera doan errepidean.

2.3.4 ZERBITZU-SAREAK

- Egin daitezkeen hirigintza-garapen berriek, jarduerari ekiteko behar dituzten azpiegitura guztiak jaso beharko dituzte, bai lehendik daudenak handitzeko, bai instalazio berriak jartzeko.
- Urbanizatzeko esku-hartze berriek horiek ezartzeko behar den lurzorua izango dute.
- Udalerriko saneamendu-sare orokorra amaitzea, Oria ibaiaren ibarreko hodi-biltzailearekin lotu arte.

2.3.5 ESPAZIO PUBLIKOAK ETA AISIALDIRAKO GUNEAK

- Populazioa handitzeko espazioen erabilgarritasuna bermatzea.

3 PLANAREN DESKRIBAPENA

3.1 HERRIGUNE INGURUKO ALTERNATIBAK

3.1.1 BIZITEGI-GARAPENERAKO ALTERNATIBAK

Aurrerapen dokumentuan, 0 alternatibaz gain, hirigintza garapen berriak aurreikusten dituzten 4 alternatiba proposatu dira Baliarraingo udalerrian. Azpimarratu behar da, alternatibak baino gehiago, alternatiba bakarraren fase ezberdinak kontsideratu daitezkeela.

Ondorioz, proposatutako alternatibek hurrengo proposamen komunak izango dituzte:

- Gaur egungo eraikinak eta erabilerak finkatzea.
- Arau Subsidiarioetan aurreikusitako a.10.15 bizitegi-lurzatiaren garapena (gaur egun gauzatzeke dagoena), eta Lopetedi, Garate eta Etxeberri eraikinen banatzeko aukera mantentzea.
- Hiri-lurzoruan finkatutako beste bizitegi eraikinen etxebizitza kopurua handitzea ahalbidetzea, barne banaketa bidez, egungo eraikigarritasuna mantenduz.
- Hiri-lurzoru gisa, "Herri sarrerako bihurtzeko akordioaren xehetasunak jasotzen dituen behin betiko hitzarmenean" Kantina-txiki eraikinaren ondoan aurreikusitako garapen berria jasotzea, eta Kantina Txiki eraikinera eta honen mendebaldeko lursailera zabalduz. Lursail hauetan 4 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen da (2 bifamiliar), Kantina Txiki etxebizitzaz gain. Azken honi, handitzeko aukera bat ere ematen zaio.
- Hiri-lurzoru gisa sailkatzea Muñoa eraikinaren ondoko lursailak, gaur egun landa-lurzoru gisa sailkatuta daudenak, gaur egungo eraikinaren lurzatiari lotuta, Miguel Angel Echeberria, María Dolores Balerdi Sagastume eta Baliarraingo Udalaren arteko hirigintza-hitzarmenean", Udalaren 2023/02/28ko Osoko Bilkurak onartutakoan, ezarritakoaren arabera.



1. Irudia Herriguneko lau alternatibetan proposamen komunen kokapena.

3.1.1.1 0 Alternatiba

Alternatiba hau Arau Subsidiarioek ezarritako antolamendu orokorrari dagokio, Diputatuen Kontseiluak 2003ko uztailaren 22an behin betiko onartu zutena. Beraz, ez dira hirigintza garapenerako eremu berriki aurreikusten jada AA.SS.-etan onartuetatik haratago.

Hala ere, ikusi denez, AA.SS.-ek jasotako garapen gehienak gauzatu dira, a.10.15 lurzatiko garapena izan ezik, eta ondorioz, alternatiba honek AA.SS.-ek aurreikusitako garapenak mantentzea suposatuko luke.

3.1.1.2 1. Alternatiba

1. Alternatiban, lehen aipatutako proposamenez gain, Muñoa eraikinaren mendebaldean kokatutako lursaila hiri-lurzoru gisa jasotzea proposatzen da, bizitegi-eraikin bat egiteko. Eraikin hau bloke txikiko tipologiakoa izango da (PS+PB+2), 6 etxebizitza berri har ditzakeena (solairu bakoitzeko 2 etxebizitza). Alternatiba honetan proposatutako garapen guztiak hiri-lurzoruan garatuko dira.

1. Taula 1. Alternatibak proposatutako etxebizitza kopurua.

Garapenak	Etxebizitza kopurua
Hiri-lurzorua	
Egungo etxebizitzak	35
AA.SS.an aurreikusitako baino gauzatu gabeko etxebizitza berriak	
- Eraikuntza berriak	2
- Egungoen banaketatik eratorriak	6
HAPOk proposatutako etxebizitzak	
- Eraikuntza berriak (Kantina-txiki ondoan)	4
- Eraikuntza berriak (Muñoa inguruan)	6
- Egungoen banaketatik eratorriak (AA.SStan aurreikusi gabeak)	31
Aurreikusitako etxebizitza berriak, denera (egungoen zatiketa barne)	49
LAGen arabera planeamenduak aurreikusi beharreko bizitegi-ahalmena (6-32 etxe.) betetzeko kontuan hartzen diren etxebizitzak, denera	10



2. Irudia 1. Alternatibaren garapen proposamena.

3.1.1.3 2. Alternatiba

2. alternatiban, lehen aipatutakoaz gain, hiri lurzoruan herrigunerako ibilgailuen sarrera berrantolatzeko esku-hartze publiko bat proposatzen da. Gainera, hirigunearen ipar-mendebaldean, bizitegi garapen berria proposatzen da. Kasu honetan, 2 eraikin antolatzen dira (S+SB+2) Muñoa eraikinaren ondoren (6 etxebizitza/bloke). Aldi berean, espazio libreen/ekipamenduen gune bat sortzea ahalbidetzen da.

2. Taula 2. Alternatibak proposatutako etxebizitza kopurua.

Garapenak	Etxebizitza kopurua
Hiri-lurzorua	
Egungo etxebizitzak	35
AA.SS.an aurreikusitako baino gauzatu gabeko etxebizitza berriak	
- Eraikuntza berriak	2
- Egungoen banaketatik eratorriak	6
HAPOk proposatutako etxebizitzak	
- Eraikuntza berriak (Kantina-txiki ondoan)	4
- Egungoen banaketatik eratorriak (AA.SStan aurreikusi gabeak)	31
Lurzoru urbanizagarria	
HAPOk proposatutako etxebizitzak	
- Eraikuntza berriak (Muñoa-Mimendi inguruan)	12
Aurreikusitako etxebizitza berriak, denera (egungoen zatiketa barne)	55
LAGen arabera planeamenduak aurreikusi beharreko bizitegi-ahalmena (6-32 etxe.) betetzeko kontuan hartzen diren etxebizitzak, denera	16



3. Irudia 2. Alternatibaren garapen proposamena.

3.1.1.4 3. Alternatiba

3. Alternatiban (edo 3. Fasean), bizitegi-garapen berri bat jasotzen da lurzoru urbanizagarri gisa, hirigunearen ipar-mendebaldean, Mimendi baserriaren inguruan. Antolamendu xehatua Plan Partzialera igortzea proposatzen da, tipologia bifamiliarreko 8 etxebizitza berrien garapena antolatuz.

Bestalde, Lopetedi eraikinari gaur egun esleitutako bizitegi-erabilera mantendu eta barne-banaketa bidez etxebizitza kopurua handitzea edo hirugarren sektoreko erabileragatik ordezkatzeko aukera ematea proposatzen da.

3. Taula 3. Alternatibak proposatutako etxebizitza kopurua.

Garapenak	Etxebizitza kopurua
Hiri-lurzorua	
Egungo etxebizitzak	34
AA.SS.an aurreikusitako baino gauzatu gabeko etxebizitza berriak	
- Eraikuntza berriak	2
- Egungoen banaketatik eratorriak	4
HAPOk proposatutako etxebizitzak	
- Eraikuntza berriak (Kantina-txiki ondoan)	4
- Egungoen banaketatik eratorriak (AA.SStan aurreikusi gabeak)	31
Lurzoru urbanizagarria	
Egungo etxebizitzak	2
HAPOk proposatutako etxebizitzak	
- Eraikuntza berriak (Muñoa inguruan)	12
- Eraikuntza berriak (Mimendi inguruan)	8
- Egungoen banaketatik eratorriak (AA.SStan aurreikusi gabeak)	2
Aurreikusitako etxebizitza berriak, denera (egungoen zatiketa barne)	65
LAGen arabera planeamenduak aurreikusi beharreko bizitegi-ahalmena (6-32 etxe.) betetzeko kontuan hartzen diren etxebizitzak, denera	24



4. Irudia 3. Alternatibaren garapen proposamena.

3.1.1.5 4. Alternatiba

4. Alternatiban (edo proposamenaren azken fasean), gainontzeko garapenez gain, bizitegi-garapen berri bat jasotzen da lurzoru urbanizagarri gisa GI-3851 errepidearen ekialdean, hirigunearen sarreran. Antolamendu xehatua Plan Partzialera igortzea proposatzen da, 8 etxebizitza berrien garapena antolatuz, tipologia bifamiliarra edo adostutako izanik. Era berean, Malkor kalea herrigunearen erdigunerarekin komunikatuko duen ibilbide irisgarri bat proposatzen da. Biribilgune moduko gune libre bat sortuko da eta autobus geltokia bertara eramango da.

4. Taula 3. Alternatibak proposatutako etxebizitza kopurua.

Garapenak	Etxebizitza kopurua
Hiri-lurzorua	
Egungo etxebizitzak	34
AA.SS.an aurreikusitako baino gauzatu gabeko etxebizitza berriak	
- Eraikuntza berriak	2
- Egungoen banaketatik eratorriak	4
HAPOk proposatutako etxebizitzak	
- Eraikuntza berriak (Kantina-txiki ondoan)	4
- Egungoen banaketatik eratorriak (AA.SStan aurreikusi gabeak)	31
Lurzoru urbanizagarria	
Egungo etxebizitzak	2
HAPOk proposatutako etxebizitzak	
- Eraikuntza berriak (Muñoa inguruan)	12
- Eraikuntza berriak (Mimendi inguruan)	8
- Eraikuntza berriak (herri sarreran, GI-3851 ekialdean)	8
- Egungoen banaketatik eratorriak (AA.SStan aurreikusi gabeak)	2
Aurreikusitako etxebizitza berriak, denera (egungoen zatiketa barne)	73
LAGen arabera planeamenduak aurreikusi beharreko bizitegi-ahalmena (6-32 etxe.) betetzeko kontuan hartzen diren etxebizitzak, denera	32



5. Irudia 4. Alternatibaren garapen proposamena.

3.1.2 JARDUERA EKONOMIKOAK

Baliarraingo Plan Orokorrak ez du aurreikusten balizko jarduera ekonomikoak (industrialak, hirugarren sektorekoak...) garatzeko lurzoru-azalera berriak antolatzea erabilera orokorreko kalifikazio gisa.

Sektorekako egungo jarduera-adierazleak eta hirigintza-plangintzak alderdi horietan esku hartzeko duen gaitasun erlatiboa kontuan hartuta, HAPOren idazle taldeak uste du jarduera ekonomikoko sektoreetara bideratutako lurraldearen dimentsioa behar bezala antolatuta eta behar bezala zainduta dagoela, lehen sektorearen kasuan (nekazaritza eta abeltzaintza).

Nolanahi ere, komenigarritzat eta interesgarritzat jotzen da udalerriko turismo eta merkataritza bizitasuna sustatzea (ostatu turistikoak, ostalaritza...), Tolosaldea azpieskualdeko lurraldera sartzeko gune garrantzitsu gisa eta Aralar mendilerroko lurralde naturalera sartzeko gune gisa (Parke Naturala, etab.).

3.1.3 SISTEMA OROKORRAK. ESPAZIO LIBREAK

Baliarraingo hirigunean dauden espazio libreen zuzkidura 4.379 m²-koa da, eta 26.2 m²/biz. ratioa dago gaur egun. (167 biztanle).

Baliarraingo herrigunera sartzeko baldintzak hobetzeak (3. eta 4. alternatibak) espazio libreen sistema orokorrari esleitutako beste 509 m² gehitzea dakar, hau da, guztira 4.888 m²-ko azalera eta 23,72 m²/biz. estandarra. (206 biztanle). Legez ezarritako gutxieneko zenbatekoa (5 m²/habit) baino askoz handiagoa da.

3.1.4 SISTEMA OROKORRAK. EKIPAMENDUAK

Plan Orokorrak dauden ekipamenduak finkatzen ditu (Udaletxeko eraikina, Udaletxe zaharra, zentro balioaniztuna, frontoia, eliza, hilerria), eta ez da sistema orokorreko aurreikuspen handiagorik egiten, aurreikusitako garapen berrietako tokiko sistema gisa zuzkidura handiagoak sartzeari aurreikusten baita.

3.1.5 SISTEMA OROKORRAK. BIDE-SAREA ETA APARKALEKUAK

Plan Orokorrak bide-sare jarraitua proposatzen du, joan-etorriak egiteko modu desberdinak barne hartuko dituen, oinezkoen eta bizikletazko garraioari lekua emanez, eta espazio publiko bizigarriagoak eta irisgarriagoak sortuz. Horretarako, egungo sareko tartekak eta elementuak eraldatzea eta handitzea proposatzen da.

Bide-sarera bideratutako azalera garapen berrien aurreikuspenetara egokitzen da, planteatutako alternatiba bakoitzean azalera aldakorra eskuratuz.

Esku-hartze garrantzitsu bat proposatzen da, 3. eta 4. hautabideetan islatua, Baliarraingo herrigunerako sarbide nagusia birmoldatzea eta bide biribilgune bat sortzea proposatzen duena, egungo bidearen irteera zuzena eta sarreraren noranzko aldaketa konpontzeko.

3.1.6 SISTEMA OROKORRAK. AZPIEGITURAK

Gune osoari zerbitzua ematen dion behe tentsioko energia elektrikoaren transformadorea instalatzeko lurzatia mugatzen da. Horrelako zerbitzueterako espazio gehiago behar izanez gero, tokiko sistema gisa kokatu beharko da garapen berriko eremuetan.

3.2 LURZORU EZ URBANIZAGARRIA ZONAKATZEKO PROPOSAMENAK

Aurrerakin fase honetan lurzoru urbanizaezinaren zonakatzeko globalerako hiru proposamen azaltzen dira. Zehazki, Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean zehaztutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak xedatutakoa, eta HAPO berak proposatutakoa.

3.2.1 TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA

Alternatiba honen kasuan ondorengo kategoriak ezartzen dira:

- Ingurumen-hobekuntza: Kategoria honetan “Babes berezia” kategoriagatik kanpo geratu diren baso naturalez gain, “Babes berezia” kategoriako eremuetan aldaketa itzulezinak jasan dituzten esparruak, zuhaixka eta sastrakadi formazioetako beste eremu batzuei -aurreko formazioez integratuta daudenean-, eta, balio handiagoko eremuen ondoan izanik, kalitate maila handiagotara jotzeari onuragarri irizten zaion beste lurzoruak biltzen dira.

Eremu hauetan kontserbatzeko eta birsortzeko esku-hartzeak egingo dira, eta ekosistema funtzional interesgarriak leheneratzeko askotariko jarduerak garatuko dira.

- Basoa: Kategoria honetan, egungo erabileragatik edo ezaugarriengatik baso-erabilerako joera duen lurraldea jasotzen da. Bi azpikategoria bereizten dira:

- Baso-erabilera babeslea edo kontserbaziokoa: Basoa eragile higatzaileetatik edo irristatze-arriskuetatik babesteko funtzioa, baliabide hidrikoak erregulatzeko funtzioa, edo balio ekologikoa eta paisajistikoa erregulatzeko funtzioa betetzen duten eremuak biltzen dira. Kategoria honetan malda handiko eta sakonera txikiko lurrak jasotzen dira, edo malda txikiagokoak izan arren higadura prozesuak bizkortu direla ikusi diren zonak.

Eremu hauen antolamendu irizpideak, egungo landare-estaldura mantentzea da, eta zona horietako erabilera eta maneietan arreta muturreraino eramatea, suteak aurreikustearekin eta baso politika arrazionala garatzearekin batera, betiere kontserbazioa izanik bere xede.

- Produkziorako basoa: Kategoria honetan baso-bokazioa duten eta baliabideen produkzio aprobetxamendurako xedatzen diren eremuak sartzen dira.


Jardun irizpide nagusia masen ekoizpen iraunkorra mantentzean oinarrituko da, masen ustiapen ordenatu baten bidez.

- Nekazaritza eta Abeltzaintza eremua eta landazabala: Kategoria honetan nekazaritza ahalmen handieneko lurzoruak biltzen dira. Bat egiten dute malda txikieneko mazeletako edo haranetako lurzoru sakonetako baratze erabilerarako lurzoruekin eta larreekin. %30etik beherako malda duten mazalak sartzen dira kategorian honetan, baita malda hori gainditzen duten baina gizakian oso landuta dituen larreetarako erabili ohi diren eremuak ere.
- Lur gaineko uren babesa: Lur gaineko drainatze sare nagusia, errekek, ibilguak eta urbazterrak sartzen dira kategoria honetan, baita ibai-ibilguetan sortzen diren ekosistemak eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko LPS-an arautzen diren babes-zerrendetako ekosistemak ere.

Eremu hauetan uren kalitatea kontserbatzea bultzatu beharko da, eta ibilguak eta urbazterrak aldatzea edo okupatzea saihestu beharko da. Ondorioz, mugatu egingo dira erabilerak, okupazioa eta ustiapena, eta lehentasuna emango zaie birsortze jardueri.

Antolamendu kategoriez gain, landa lurzoruan hurrengo baldintzatzaile gainjarriak ezartzen dira:

- Eremu higagarriak
- Korridore Ekologikoen Sarea
- Lotura-interes bereziko ibai-tarteak



INGURUMEN-HOBEKUNTZA	MEJORA AMBIENTAL
EKOSISTEMAK HOBETZEKO EREMUAK (Kokapen topográfico berezietan dauden baso naturalak)	AREAS DE MEJORA DE ECOSISTEMAS (Bosques naturales en posiciones topográficas especiales)
MEATZAK, HARROBIAK ETA ERABILPENIK GABEKO ZABORTEGIAK	MINAS, CANTERAS Y VERTEDEROS EN DESUSO
BASOA	FORESTAL
KONTSERBATU BEHAR DIREN BASO EREMUAK (Lurzoru labil edo higatzeko arriskug duten lurzoruen gainean)	FORESTAL DE CONSERVACION (Sobre suelos lábiles o con riesgo de erosión)
PRODUKZIOARAKO BASO-EREMUAK	FORESTAL PRODUCTIVO
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZARAKO EREMUAK ETA LANDAZABALA	AGROGANADERA Y CAMPIÑA
NEKAZARITZA INTERESEKO EREMUAK	AREAS DE INTERES AGRARIO
OHIKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZARAKO EREMUAK	AGROGANADERA COMUN
MENDI LARREAK	PASTIZALES MONTANOS
LURGAINEKO UREN BABESA	PROTECCION DE AGUAS SUPERFICIALES
LURGAINEKO DRAINATZE-SAREA (Ibai-bazterrak antolatzeak LAParen tarte arabera)	RED DE DRENAJE SUPERFICIAL (Según tramitación PTS de Ordenación de Márgenes)
EREMU HIGAGARRIAK (EAEko nekazaritza eta basoak antolatzeak LAP)	AREAS EROSIONABLES (PTS Agroforestal y del Medio Natural)
KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA (Diseñurako egungo proposamen teknikoak)	RED DE CORREDORES ECOLOGICOS (Actual Propuesta técnica de diseño)
LURREKO KORRIDOREAK (Supraregionales/Regionales)	CORREDORES TERRESTRES (Supraregionales/Regionales)
ARALAR-AIAKO HARRIA	ARALAR-AIAKO HARRIA
ARALAR-ERNIO GATZUME-IZARRAITZ	ARALAR-ERNIO GATZUME-IZARRAITZ
ERNIO GATZUME-PAGOETA	ERNIO GATZUME-PAGOETA
LOTURA-INTERES BEREZIKO IBAI-TARTEAK (Herrialdeaz-gaindikoak/Herrialdekoak)	TRAMOS FLUMIALES DE ESPECIAL INTERES CONECTOR (Supraregionales/Regionales)
IBIUR	IBIUR
BEDAI	BEDAI
ARAXES IBAIA (GKL)	LIC RIO ARAXES
ZELAI	ZELAI
LEITZARAN IBAIA (GKL)	LIC RIO LEITZARAN
ORIA GARAIA (GKL)	LIC ALTO ORIA

6. Irudia 01.2 Planoa: Ingurune fisikoaren antolamendua. Tolosako Eremu Funtzionalaren LPP-a.

3.2.2 EAEKO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Aztertutako alternatiba honetan ondorengo kategoriak ezartzen dira:


- Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabala: Kategoria hau haranen behealdean kokatzen da. Gaur egun segabelardietarako eta mota guztietako laboreetarako erabiltzen diren zonak hartzen ditu. Bi azpikategoria bereizten dira:
 - Balio Estrategiko Altua: Laborantzarako lur estrategikotzat kontsideratuak dauden lurrak dira. Hori dela eta, bere kontserbazioa eta zaintza lehentasunezkoak dira eremu hauetan beste erabilerean aurrean.
 - Trantsiziozko Landa Paisaia: Nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendutako malda ertaineko lurrek osatzen dute. Lursail hauek belardiez eta zuhaitz masa txikiez osatuta daude. Balio estrategiko

altua duten lurrekin edo baso eremuekin kontaktuan daude, orokorrean, hauetako joera batera bideratuak.

- **Basoa:** Orokorrean basoez osatuta dagoen lur eremua. Baso autoktonoak eta espezie aloktonoen landaketak sartzen dira kategoria honetan. Basozaintza erabilerako zona guztiak kategoria bakar batean sartzen dira, kategoria horretan ekoizpen- eta babes-funtzioak elkarri lotuta daudelako. Basoaren balioa zaindu eta sustatu nahi den lur saila.
- **Azaleko uren babesa:** Izan ere, Nekazaritza eta Basogintzako LPS-ak, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze LPS-ak aholkatutako erretiro-mugak bereganatzen ditu. Hala ere, Nekazaritza eta Basogintzako LPS-ak ez du bere kartografian isaltzen. Eremu hauen jardun irizpideak uren kalitatea kontserbatzen laguntzea, ubide eta erriberen okupazioa edo aldaketa saihestea, eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak ahalik eta gehien gutxitzea bideratuta egongo dira.

Aipatutako kategoriez gain, landa lurzoruan ondorengo baldintzatzaile gainjarriak ezartzen dira:

- Eremu higagarriak



7. Irudia Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-a.

3.2.3 HAPO-AREN PROPOSAMENA

Plan Orokorraren Aurrerapenak lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea Tolosaldeko Lurralde Plan Partzialak ezarritako zonakatzerarekin egokitzen du, aurreko bietako proposamen berriena eta hierarkikoki goragoko mailakoa aukeratuz.

Proposatutako lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea LAG-ek eta Tolosaldeko LPPk ezarritako kategorietan egituratzen da, eta kategoria horiek garatzen ditu, behin betiko Plan Orokorrean egiten den hirigintza-araudiaren bidez horietako bakoitzaren erabilera- eta eraikuntza-baldintzen mende jartzeko.

Zonakatze horren gainean, azken urteotan onartu diren ingurumen-arloko arau-xedapenek ezarritako ingurumen-baldintzak gainjarri dira.

Landa gunekak:


- Basoa:
 - Kontserbatu beharreko basoak
 - Produktorako basoak
- Nekazaritza / Abeltzaintza eta landazabala: Trantsiziozko landa paisaia
- Ekosistemetak hobetzeko eremuak

Sistema orokorrak:

- Ibiur urtegia
- Espazio libreen sistema orokorra
- Landa espazio libreak
- Udal-hilerria

Baldintzatzaile gainjarriak:

- Korridore ekologikoak
- Eremu higagarriak
- Ikus-arroak
- Gainazaleko uren babesa



LANDA ZONAK ZONAS RURALES

BASOA FORESTAL

- KONTSERBATU BEHAR DIREN BASO EREMUAK
FORESTAL DE CONSERVACIÓN
- PRODUKTORAKO BASO-EREMUAK
FORESTAL PRODUCTIVO

NEKAZARITZA/ABELTZAINZA ETA LANDAZABALA AGROGANADERA Y CAMPESINA

- TRANTSIZIOZKO LANDA PAISAIA
PAISAJE RURAL DE TRANSICIÓN

INGURUMEN-HOBETUNTZA MEJORA AMBIENTAL

- EKOSISTEMAK HOBETZEKO EREMUAK
(kokapen bereziakako baso naturalak)
ÁREAS DE MEJORA DE ECOSISTEMAS
(bosques naturales en posiciones especiales)

SISTEMA OROKORRAK SISTEMAS GENERALES

- ESPASIO LIBRE EZ-HIRITARRAK
ESPACIOS LIBRES NO URBANOS
- EKIPAMENDUA, HILERRIA
EQUIPAMIENTO, CEMENTERIO

- IBAI IBILGUAK,
CAUCES FLUVIALES

KOMUNIKAZIO SISTEMA OROKORRA SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES

- BIDE-SAREA
RED VIARIA

- ONEZKO LANDA IBILBIDE NAGUSIAK
ITINERARIOS RURALES PEATONALES PRINCIPALES

BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK CONDICIONANTES SUPERPUESTOS

- LURRAZALEKO UREN BABESA
PROTECCIÓN DE AGUAS SUPERFICIALES
- KORRIDORE EKOLOGIKOAK
CORREDORES ECOLÓGICOS
- HIGADURA JASAN DEZAKETEN ZONAK
ÁREAS EROSIONABLES
- IKUS-ARROAK, BALIO PAISAJISTIKO OSO ALTUA
CUENCAS VISUALES. VALOR PAISAJÍSTICO MUY ALTO

- UDAL-BARRUTIA
TÉRMINO MUNICIPAL

8. Irudia B-01 Planoa: Lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea eta sistema orokorrak. Baliarraingo HAPO-a

4 LURRALDEAREN INGURUMEN AZTERKETA


Atal honetan Baliarraingo udalerriaren ingurune fisiko eta biotikoaren karakterizazio orokorra era xehatuan jasotzen da.

4.1 PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA KOKAPENA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren jarduera-eremua Baliarraingo udalerri osoa da. Udalerria Tolosaldeko eskualdean dago, Gipuzkoako lurralde historikoaren hego-ekialdean. Baliarrainek 2,75 km²-ko azalera du gutxi gorabehera, hau da, Gipuzkoako azaleraren % 0,14. Udalerriko mugaketari dagokionez, iparraldean Legorretarekin egiten du muga; Ekialdean, Orendain udalerriarekin; hegoaldean, Gaintza udalerriarekin; eta azkenik, mendebaldean, Altzagarekin.

Udalerria lur-eremu malkartsu batean aurkitzen da Aralarko mendiaren babesean. Iparraldean ere, Oria ibaiarekin topatzen da, eta azpiegitura aldetik elementu asko izan ez arren, nahiko esanguratsua den Ibiurreko urtegia aurkitzen da udalerriaren ekialdeko mugan, 8 hm³-ko edukiera duena.

Udalerriaren egiturari dagokionez, herrigune txiki batek eta sakabanatutako baserriek osatzen dute. Herri gunea etxe eta eraikin multzo txikia da, herriko plaza eta parrokiaren inguruan. Horretaz gain, frontoia, eraikin balioaniztuna edo udaletxea bezalako udal-azpiegiturak aurkitzen dira.




9. Irudia Baliarraingo udalerriaren kokapena. Ekolur

4.2 KLIMA

Baliarraingo udalerrriak klima epel ozeanikoa du, orokorrean tenperatura leunekin, hezetasun erlatibo handia eta prezipitazio ugari, baita hilabete lehorrenetan ere.

Baliarrainen bertan ez da inongo estazio meteorologikorik kokatzen, baina udalerritik kilometro gutxitara, Ordiziako udalerrian zehazki, estazio meteorologiko bat aurki daiteke (C043). Euskalmetek argitaratutako 2023ko txosten meteorologikoan erregistratutako datuen arabera, urteko bataz besteko tenperatura 14,2°C-koa izan da, eta guztira 996,9 l/m² prezipitazio bildu dira urte osoan zehar.



10. Irudia Batez besteko tenperaturak, maximoak, minimoak eta prezipitazio-diagrama. Oriziako estazio meteorologikoa. Iturria: 2023ko txosten meteorologikoa, Euskalmet.

4.3 INGURUNE FISIKOA

4.3.1 OROGRAFIA¹

Morfoegituraren ikuspegitik, udalerrian honako eremu hauek bereiz daitezke:

- Ibiur erreka eta honek osatzen duen urtegia
- Muinoak edo mendi bizkarrak

¹ GeoEuskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Espazialen Azpiegitura.


- Muinoak inguratzen dituzten mendi hegalak.

Baliarrain osoa eremu nahiko malkartsuan kokatzen da. Eremu leunenak, % 0-10 eta % 10-20 bitarteko malda dutenak, udalerriaren erdialdean aurki daitezke. Herrigunea eremu lau honen hegoaldean kokatzen da. Eremu malkartsuenak aldiz herrigunearen inguru osoan aurkitzen dira, batez ere ipar-ekialdean non %75etik gorako maldak aurki daitezkeen.

Udalerriaren orografia hobeto ulertzeko, azalera lurzorua maldaren arabera sailkatu da, eta lurraldearen hedadura malda tartearen arabera kalkulatu da.

5. Taula Baliarraingo udalerriaren malda tarteak eta hauen azalerak.

Malda tarte (%)	Azalera (ha)	Udalerriko zenbatekoa (%)
0-10	9,42	% 3,4
10-20	22,20	% 8,1
20-30	34,48	% 12,5
30-50	105,96	% 38,5
50-75	94,47	% 34,3
75<	8,63	% 3,1



11. Irudia Baliarraingo orografia: malda tarteak. Ekolur.

I.2 Maldak planoan ere kontsulta daitezke.

4.3.2 EZAUGARRI GEOLOGIKOAK^{2,3}

Euskadiko mapa geologikoaren arabera Baliarrain osoa goi kretazeoko materialen gainean kokatzen da. Mapa honen arabera udalerrian aurki daitekeen unitate litologia hurrengoa da: “22 – Marga grisak eskistotsuak, kararri hareatsu, margakarrari eta kararrizko tarteka zenti-dezimetroekin”, pitzaduran ondoriozko iragazkortasun txikikoa hain zuzen ere. Hala ere, udalerriaren mugetatik kanpo alubioi deposituak aurki daitezke, Oria ibaiari dagozkionak.

Geomorfologiaren ikuspegitik, “hegalak” sistemaren parte diren eremuak topatzeaz gain, lbiurretik gertu sistema “alubiarreko” guneak aurkitzen ziren urtegia egin baino lehen, gaur egun urperatuta daudenak.

Azkenik, Baliarraingo udalerrian ez da EAEko Geologia Interes Lekurik topatzen.

4.3.3 EDAFOLOGIA ETA AHALMEN AGROLOGIKOA

Litologia, orografia, klima, landaretza eta, batzuetan, giza-erabilera bezalako aldagaiek udalerrian banatzen diren lurzoru motak baldintzatzen dituzte.

Gipuzkoako lurraldean eskala txikian egindako aurretiazko azterketa edafologikoen arabera⁴, Baliarrainen agertzen den lurzoru mota bakarra ‘Lubisol ortikoa’ da. FAOk argitaratutako Lurzoruen Erreferentzia Oinarriaren arabera, lubisolak buztinezko bereizketa edafogenetikoa duten lurzoruak dira, hau da, beheko geruzak goiko geruzak baino buztin eduki gehiago izaten du buztinaren migrazioa dela eta. Erabilera ahalmenaren aldetik lurzoru hauek erabilgarritasun oso urritik oso altura doaz, maldaren arabera gehienbat (zenbat eta malda handiagoa, orduan eta sakonera eta erabilgarritasun mugatuagoa).

Honen harira, Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen arabera, Baliarraingo udalerrian soilik hiru mota agrologiko bereizten dira. Udalerriko azalera osoaren %56a baso lanetarako baino erabil ezin daitezkeen lurrek osatzen dute. Gainontzeko eremua lantzeko zailak diren lurrek eta malda txikiko mendi-bizkarren mugan dauden eremuek osatzen dute.

6. Taula Mota agrologikoak eta hauen azalera Baliarraingo udalerrian.

Kodea	Mota agrologikoa	Azalera ha	Udalerriaren %
IV	Malda txikiko mendi- bizkarretan eta %20<-ko malda duten mendi-hegaletan lantzeko lursailen mugan dauden lurak	15,76	% 6
VI	Lantzeko zailak diren lurak, iraunkortasunez larretarako edo egurretarako erabiltzen direnak soilik	106,18	% 39
VII	Baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurak	153,24	% 56


1.3 Ahalmen agrologikoa planoan kontsulta daitezke mota agrologikoen eremuak.

Nekazaritza eta Basogintzarako Lurralde Plan Sektorialak (2014ko urriko behin betiko onarpena) udalerri azalaren %98 zehazten du landa-luraren antolamendua, eta LPS honen arabera balio estrategiko altuko lurak udalerriaren %16a dira, 42,81 ha.

² Mapa Geológico del País Vasco (1:200.000), 1991. Ente Vasco de Energía (EVE).

³ Geoeuskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Espazialen Azpiegitura (Litologia, Geomorfologia, Interes Geologikoko Lekuak).

⁴ Gipuzkoako azterketa geomorfologiko eta edafologikoa. 1991. Gipuzkoako Foru Aldundia.



12. Irudia Baliarraingo lurzorua-ren ahalmen agrologikoa eta LPSren balio estrategiko altuko lurrak.

4.3.4 HIDROLOGIA

4.3.4.1 Sare hidrografikoa

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera (2022-2027 zikloa, 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua) Baliarraingo udalerria Planaren aplikazio-eremuaren barruan sartzen da. Zehazki, Oriako Unitate Hidrologikoan.

Oria UH-a bi arrotan banatzen da Baliarraingo udalerrian: Oria ibaia V eta Ibiurko urtegitako drainatze eremua. Oria ibaia V arroa, udalerriaren ipar mendebaldean hedatzen da, eta 82ha inguruko azalera duen eremuan; udalerriko azalera osoaren % 30a estaltzen du. Ibiurko drainatze eremua, aldiz, udalerriaren ipar-, eki- eta hegoaldean kokatzen da; 177ha inguruko azalerarekin, udalerriaren eremu gehiena estaltzen du, zehazki %64a. Arro honek zuzenean Ibiurko urtegitan isurtzen ditu urak. Azken honek Baliarraingo azalera osoaren %6a hartzen du 17ha-rekin eta udalerri ekialdean kokatzen da.

Udalerrian Okots eta Esnaola errekek zuzenean Oria ibaira isurtzen dute; Iturrimotxa eta Gaintzabaso errekek, aldiz, Ibiurko urtegitara. Erreka guztiek, Gaintzabaso izan ezik, '00' maila dute, arro isurialdea 1 km² baino txikiagoa. Gaintzabasoko tarte bat '0' mailakoa da, arro isurialdea 1 eta 10 km² artekoa.


1.4 Hidrologia planoan jaso dira hidrologia arloan aipatutako elementuak.



1. Argazkia: Iturrimotza erreka.



2. Argazkia: Gaintzabaso erreka.



13. Irudia Arro isurialdeak, urtegia eta sare hidrografikoa Baliarraingo udalerrian.

4.3.4.2 Uren kalitatea^{5,6}

2022-2027 Plan Hidrologikoan egindako sare hidrografikoaren jarraipen eta egoeraren ebaluazioaren arabera, Ibiurte urtegi ur-masak egoera kimiko zein ekologiko ona du, beraz, egoera orokorra 'ona' da.

⁵ Anbiotek & Cimer, 2020. Ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea. 2019ko Emaizten txostena. URA.

⁶ Laboratorios Tecnológicos de Levante & Ekolur, 2020. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipena egiteko sarea. 2019ko Emaizten txostena. URA.

7. Taula Ibiurko urtegiaren ur-masa kalitatea

Escenario PH2			Escenario PH3			Estado Ecológico					Estado Químico					Estado Total				
EE	EQ	E	EE	EQ	E	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19
B	B	B	B	B	B	SD	SD	B	B	B	SD	SD	B	B	B	B	B	B	B	B

Bestalde, udalerrian ez da aurkitzen uraren jarraipena egiteko kontrol estaziorik. Gertueneko estazioa Oria ibaia V arroan aurkitzen da ORI260 kodearekin. Azken datuen arabera, ur-masaren egoera neurrizkoa da, egoera kimikoa ona da, hortaz egoera globala 'ona baino okerragoa' da.

4.3.4.3 Lurpeko urak

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren arabera (2022-2027 zikloa), Baliarraingo udalerria Bizkaiko sinklinoria (ES017MSBT017-005) lurpeko ur-masaren gainean kokatzen da. Baliarrainetik gertu lurpeko ur-masa sektorea ezberdinak kokatu arren, udalerrian bertan ez da inongo lurpeko ur-masa sektorerik topatzen.

4.3.4.4 Eremu Babestuen Erregistroa (Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrologikoaren Plan Hidrologikoa)⁷

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrologikoko Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroak barne hartzen ditu ingurune urtararekin zerikusia duten eta Erkidegoko araudia eta beste araudi batzuk aplikatuz babestuta dauden eremuak. Zehazki, Baliarraingo udalerriaren barruan eremu bakarra aurkitzen da: Ibiurko urtegia (T-20904-001) "Hornidurarako biltzeko ur-azaleko eremuak" kategoriaren barruan aurkitzen da. Urtegi honek 15.000 baino gehiagoko biztanleria hornitzeko gaitasuna du.

4.4 INGURUNE BIOTIKOA


4.4.1 LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

Atal hau osatzeko oinarritzko erreferentzia gisa, Geoeuskadiko habitaten, egungo landarediaren eta lurzoruen erabileren kartografia (1:10.000 eskala) kontsultatu da. Halaber, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema kontsultatu da. Ondoren, 2024ko ortoargazkia fotointerpretatuz eta EAEko Baso Inbentarioa (2024) erabiliz, egun dagoen errealitatea islatzeko egokitzapenak egin dira, landa-lanaren bidez egiaztatu direnak.

4.4.1.1 Landaredi potentziala eta lurzoruen erabilerak

EAEko Landaretza Serieen Maparen arabera, Baliarraingo udalerrian hiru habitat bereiztu beharko lirateke: 'haltzadi kantauriarra', 'pagadi azidofiloa', eta 'harizti azidofiloa eta harizti baso-atlantikoa'. Eremu gehiena harizti azidofiloa eta harizti baso-atlantikoa hartuko luke. Pagadi azidofiloak aldiz mendebaldeko eremu txiki bat estaliko luke, eta azkenik, ur-ibilguei lotuta, haltzadi kantauriarra udalerriaren ekialdean egongo litzateke.

⁷ Real Decreto 35/2023, de 24 de enero, por el que se aprueba la revisión de los planes hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro.



14. Irudia Baliarraingo landaredi potentziala.


4.4.1.2 Gaur egungo landaredia eta lurzoruen erabilerak

Ondorengo taulan Baliarrainen identifikatutako lurzoruen erabilera eta landaredia multzo nagusiak biltzen dira, eta bakoitzaren deskribapen orokorra egiten da.

8. Taula Udalerraren landaredia eta lurzoruen erabilerak eta bakoitzaren azalera.

Lurzoruen erabilera	Azalera (ha)	Udalerraren %
Bertako basoa	104,78	38,1%
Baso mistoa	29,77	10,8%
Baso landaketak	28,22	10,3%
Belardi eta larreak	73,12	26,6%
Soroak, baratzeak eta frutarbolak	14,64	5,3%
Eremu artifizialak	9,75	3,5%
Urtegia	14,90	5,4%

1.5 Landaredia eta lur-erabilera planoan kontsulta daiteke unitate horien hedapena.



15. Irudia Udalerriko gaur egungo landarediaren eta lurzoruen erabilerak.

1. Bertako basoak

Unitate honetan espezie autoktonoen baso-habitata sartzen dira. Gizakiak unerren batean esku hartu badu ere, asaldurik gabe eremuan garatuko litzatekeen landaredi potentzialari erantzuten diote. Orokorrean, kudeaketa maila baxua jasan dute eta, ondorioz, naturaltasun- eta biodibertsitate-maila handia dute. Guztira 104 ha inguruko azalera hartzen dute, hau da, udalerriaren azaleraren % 38.

Nabarmentzekoak dira unitate honetan pagadi azidofiloak, ibaiertzeko haltzadi kantauriarra eta *Q. robur* nagusitzen deneko harizti azidofiloak. Haltzadi kantauriarra udalerriaren hego ekialdean aurki daiteke Iturrimotza eta Gaintzabaso erreken bazterretan. Udalerrian 3,4 ha-ko azalera okupatzen du eta bertan topatu daitekeen landaredia haltzadietan aurki daitekeen landaredia ohikoa da, hau da, haltzak (*Alnus glutinosa*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), urritzak (*Corylus avellana*) eta sahatsak (*Salix sp.*)

Pagadiak udalerriaren ipar mendebaldean kokatzen dira batez ere, guztira 23,2 ha-ko azalera okupatzen dutelarik eta zenbait eremutan harizti-pagadi azidofiloak (13 ha) antzeman dira. Gune hauetan pagoak (*Fagus sylvatica*) dira nagusi.

Hariztien kasuan, aipatu behar da EUNIS-ek adierazitako azalera eta errealtatean okupatzen duen azalera ez datozela bat, izan ere, EUNIS-en harizti bezala identifikatutako gune asko baso misto bezala antzeman dira. Hala ere, unitate honek duen azalera nahiko esanguratsua da (63,2 ha) eta udalerri osoan zehar banatzen da. Unitate honetan haritz kandudunaz gain (*Quercus robur*), astigar arrunta (*Acer campestre*) eta lizarra (*Fraxinus excelsior*) identifikatzen dira.

Aipatutakoez gain, presentzia txikiagoarekin (0,5 ha), urkidi eremu bat topatu da udalerriaren ekialdeko mugatik gertu.



3. Argazkia: *Ibaieretako haltzadia*



4. Argazkia: *Pagadi azidofiloa*



5. Argazkia: *Hariztia*



6. Argazkia: *Urkidia*

Adierazi beharra dago ere, *Robinia pseudoacacia* eta *Buddleja davidii* espezie aloktono inbaditzaileen presentzia ikuskatu dela puntu batzuetan, batez ere urtegia inguratzen duen bidearen bazterretan.



7. Argazkia: *Robinia pseudoacacia*



8. Argazkia: *Buddleja davidii*

2. Baso mistoa

Unitate honek 29,8 ha-ko azalera okupatzen du, eta udalerri osoan zehar aurki daitekeen arren, nabarmenagoa da bere presentzia udalerriaren ipar ekialdean. Zuhaitz hostozabalez zein koniferoez dago osatuta, horien artean haritz kanduduna (*Quercus robur*), astigar arrunta (*Acer campestre*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), haritz gorria (*Quercus rubra*) eta *Pinus* generoko zenbait espezie.



9. Argazkia: Baso mistoa, udalerriaren ekialdean.

3. Baso landaketak

Lurraldearen ezaugarri morfologikoen (malda handiek batik bat) lurzorua erabilera baso ustiapenetara bideratzea bultzatzen dute neurri handi batean. Zentzu honetan, baso-landaketek 28,2 ha hartzen dituzte Baliarrainen. Espezie ugari ustiatzen dira, baina koniferoak dira nagusi; zehazki intsignis pinua (*Pinus radiata*), douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*), larizio pinua (*Pinus nigra*) eta alertzea (*Larix sp.*).

Landaketa hauek formazio artifizialak dira nagusiki, aldizkako mozketen bidez modu intentsiboan ustiatzen diren monolaborantzez osatuak; beraz, biodibertsitate urria dute eta funtzio ekosistemiko mugatuak dituzte.



10. Argazkia: Koniferoen landaketak



11. Argazkia: Koniferoen baso moztu berriak

4. Belardi eta larreak

Unitate honetan belardiak garatzen diren habitat erdinaturalak biltzen dira, batez ere malda leuneko eremuetara mugatzen direnak, historikoki abeltzaintzarako eta laborantzarako erabili izan direnak. Baliarrainen eremu lauenak kota altuenetara mugatzen diren arren, malda handiko eremuetan ere larre eta belardiak aurki daitezke. Habitat hauek azalera handiko lursail irekiak bezala konfiguratzen dira, eta heskaiak eta zuhaixka- eta baso-ale isolatuak izateaz gain, flora- eta fauna-aniztasun handia izan dezakete, baita balio ekologiko handia ere.

Gaur egun, Baliarrainen, guztira 73,1 ha biltzen dituzte, eta ezaugarri ezberdinak dituzten larreak identifikatzen dira, hala nola, floristikoki interes handia duten larratu gabeko segabelardi atlantiarrak (EUNIS E.2.21).

Merezi du aipatzea belardi hauek jasotzen duten kudeaketaren arabera ere (sega kopurua, abere kopurua, etab.) beren ezaugarriak asko aldatu daitezkeela, garatzen diren espezieen dibertsitatea moldatuz, eta ondorioz, batzuen sailkapena oso aldakorra izan daiteke denboran zehar.



12. Argazkia: *Belardiak eta larreak.*

5. Soroak, baratzeak eta frutarbolak

Baserri eta nekazal erabilerekin loturik Baliarrainen 14,6 ha identifikatzen dira zeinek soroak edo baratza erabilera duten edota frutarbolak landatu diren. Eremu hauek, orokorrean, interes agrológico handiko lurretan kokatzen dira, eta aproposak dira erabilera hauetarako, baina ez dute interes berezirik biodibertsitate eta ekologiar dagokionez.



13. Argazkia: *Laboreak eta frutarbolak.*

6. Urtegia

Unitate hau Ibiurko urtegiarekin dator bat. Udalerriaren ekialdean kokatzen da eta Baliarrainen eta Orendainen arteko muga ezartzen du. Bazterretan identifikatu den landaredia, nagusiki, baso misto unitatean identifikatutakoaren antzerako da.



14. Argazkia: *Ibiurko urtegia.*

7. Eremu artifizialak

Azkenik, unitate honetan eraldaketa maila handia duten eremuak biltzen dira, eraikin, bide, urbanizazio edo bestelako azpiegiturekin okupaturik egoteagatik. Orokorrean landarediarik gabeko eremuak dira, edo agertzen diren espezieak ruderal eta nitrofiloak dira, interes ekologikorik gabekoak. Baliarraingo hiri gune nagusia sartzen da kategoria honetan. Guztira, 9,7 ha inguru biltzen ditu.



15. Argazkia: *Baliarraingo hirigunea*

4.4.1.3 Interes bereziko landaredia

Eusko Jaurlaritzako EAEko habitaten mapak jasotzen duenez⁸, Baliarrainen Europar Batasunaren Intereseko Habitat ezberdinak topa daitezke.


Lehen adierazi bezala, azkeneko urteotan aldaketak ageri dira lurraldearen landaredian, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzako mapan jasotako Batasuneko Intereseko Habitaten azalera ez dator guztiz bat gaur egungo egoeraren arabera moldatutako landarediaren azterketatik eratorriko azalerarekin.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzako EAEko habitaten mapatik eta HAPOrako moldatutako kartografiatik eratorritako datuak konparatzen dira. Ikusi daitekenez, aldaketak orokorrean txikiak dira eta, behar bada, aipagarriena Altitude txikiko sega-belardi pobreen (*BIH 6510*) murrizpena izan daiteke. Honen arrazoia da, eremu hauetako batzuk urtegiak hartu dituela.

9. Taula Batasunaren Intereseko Habitatak Baliarraingo udalerrian eta hauen azalerak.

Kod.	Batasunaren Intereseko Habitatak	EAEko habitaten maparen arabera		HAPOrako moldatua	
		ha	Udalerriaren %	ha	Udalerriaren %
6510	Altitude txikiko sega-belardi pobreak (<i>Alipecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>)	84,85	31%	62,81	23%
9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, Ilexko eta, batzuetan, Taxuseko oihanpeekin (<i>Quercion robori-petraeae</i> o <i>Ilici Fagenion</i>)	18,74	7%	23,22	8%
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezieetako baso alubialak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	0,70	0%	3,36	1%

⁸ <https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/>



16. Irudia *Batasunaren Intereseko Habitata Baliarraingo udalerrian*

Bestalde, Europako Arteztarauak hariztiak eta bestelako hostozabal interesdunak garrantzi komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, asko murriztu dira beste formazio batzuen alde (larreak, baso-berritzeak, e.a.). EAEko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du.

1.6 Interes bereziko landaredia planoan jaso dira eremu interesgarrienak.

4.4.1.4 Flora espezie mehatxatuak

EAEko Natura Babesteko 16/94 Legeak sortutako Fauna eta flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera, Baliarraingo udalerria barne hartzen duen 10x10 Km-ko UTM kuadrkulan (30T WN76) agertzen diren landare mehatxatuak ondorengo kategorietan sailkatzen dira. Datuak Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren bidez bildu dira.

10. Taula *Baliarraingo udalerria inskribatzen den 30TWN76 (10X10 km) kuadrkulan agertzen diren flora espezie mehatxatuak. *B: Bakana; K: Kaltebera, GA: Galtzeko arriskuan; IB: Interes Berezia.*

Espezieak	Mehatxu kategoria*	Habitat nagusia
<i>Aconitum variegatum subsp. pyrenaicum</i>	K	Harkaitzak
<i>Allium victorialis</i>	B	Harkaitz eta larreak
<i>Arnica montana</i>	K	Belardi, txillardi eta sastrakadiak
<i>Carlina acaulis subsp. caulescens</i>	B	Belardiak
<i>Cicerbita plumieri</i>	GA	Belardiak

Espezieak	Mehatxu kategoria*	Habitat nagusia
<i>Crepis pyrenaica</i>	K	Belardiak
<i>Dryopteris submontana</i>	K	Harkaitzak
<i>Festuca rubra</i>	K	Dunak
<i>Geum pyrenaicum</i>	K	Harkaitz eta dunak
<i>Geum rivale</i>	GA	Harkaitzak
<i>Himantoglossum hircinum</i>	B	Belardiak
<i>Ilex aquifolium</i>	IB	Basoak
<i>Lathyrus vivanii</i>	GA	Belardiak
<i>Lycopodium clavatum</i>	B	Belardi, txillardi eta sastrakadiak
<i>Menyanthes trifoliata</i>	GA	Lakuak, aintzirak eta hezeguneak
<i>Narcissus asturiensis</i>	IB	Belardiak
<i>Nigritella gabasiana</i>	GA	Belardiak
<i>Ophioglossum vulgatum</i>	B	Belardiak
<i>Paris quadrifolia</i>	B	Baso eta belardiak
<i>Pedicularis foliosa</i>	B	Harkaitzak
<i>Pulsatilla alpina subsp. Cantabrica</i>	R	Harkaitzak
<i>Quercus robur</i>	IB	Basoak
<i>Ribes petraeum</i>	B	Harkaitzak
<i>Ruscus aculeatus</i>	IB	Basoak
<i>Taxus baccata</i>	IB	Basoak
<i>Tofieldia calyculata</i>	K	Orotarikoa
<i>Trollius europaeus</i>	K	Baso eta belardiak
<i>Veratrum album</i>	IB	Belardiak
<i>Viola bubanii</i>	R	Belardiak

4.4.2 INTERESEKO FAUNA

Espezie mehatxatuen EAEko katalogoaren arabera, Baliarraingo udalerria aurkitzen den 10 x 10 km-ko UTM laukian hurrengo espezieen aipamenak egiten dira. Datuak Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren kontsulta bidez bildu dira.

11. Taula Fauna mehatxatua, 30TWN76 (10x10Km) kuadrlikulan agertzen diren flora espezie mehatxatuak.

Espeziea	Izen arrunta	Mehatxu kategoria	Habitat nagusia
HEGAZTIAK			
<i>Accipiter gentilis</i>	Aztore arrunta	B	Basoa
<i>Accipiter nisus</i>	Gabirai arrunta	IB	Basoa
<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	Lezkari arrunta	B	Hezeguneak
<i>Actitis hypoleucos</i>	Kulixka txikia	B	Ibaiak eta lakuak

Espeziea	Izen arrunta	Mehatxu kategoria	Habitat nagusia
<i>Alcedo atthis</i>	Martin arrantzalea	IB	Ibaiak eta lakuak
<i>Aquila chrysaetos</i>	Arrano beltza	K	Basoa, landazabala
<i>Ardea purpurea</i>	Lertxun gorria	B	Hezeguneak
<i>Athene noctua</i>	Mozoloa	K	Landazabala
<i>Bubo bubo</i>	Hontza handia	B	Harkaitzak
<i>Burhinus oedicnemus</i>	Atalarra	GA	Landazabala
<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata arrunta	IB	Landazabala
<i>Cinclus cinclus</i>	Ur-zozoa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Circaetus gallicus</i>	Arrano sugezalea	B	Basoa
<i>Circus cyaneus</i>	Mirotz zuria	IB	Landazabala
<i>Corvus corax</i>	Erroia	IB	Orotarikoa
<i>Curruca cantillans</i>	Txinbo papargorritzta	IB	Basoak
<i>Dryobates minor</i>	Okil txikia	K	Ibaiak eta lakuak
<i>Dryocopus martius</i>	Okil beltza	B	Basoa
<i>Falco peregrinus</i>	Belatz handia	B	Harkaitzak
<i>Falco subbuteo</i>	Zuhaitz-belatza	B	Basoa
<i>Ficedula hypoleuca</i>	Euli-txori beltza	B	Basoa
<i>Gypaetus barbatus</i>	Ugatza	GA	Harkaitzak
<i>Gyps fulvus</i>	Sai arrea	IB	Harkaitzak
<i>Hieraetus pennatus</i>	Arrano txikia	B	Basoa, landazabala
<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	IB	Landazabala
<i>Milvus milvus</i>	Miru gorria	GA	Basoa, landazabala
<i>Monticola saxatilis</i>	Harkaitz-zozo gorria	IB	Harkaitzak
<i>Monticola solitarius</i>	Harkaitz-zozo urdina	IB	Harkaitzak
<i>Neophron percnopterus</i>	Sai zuria	K	Harkaitzak
<i>Nycticorax nycticorax</i>	Amiltxori arrunta	B	Hezeguneak
<i>Pandion haliaetus</i>	Arrano arrantzalea	K	Baso eta hezeguneak
<i>Pernis apivorus</i>	Zapelatz liztorjalea	B	Basoa
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Buztangorri argia	K	Basoa
<i>Phylloscopus trochilus</i>	Txio horia	B	Basoa
<i>Podiceps cristatus</i>	Murgil handia	IB	Hezeguneak
<i>Prunella collaris</i>	Mendi-tuntuna	IB	Harkaitzak
<i>Pyrrhonorax graculus</i>	Belatxinga mokohoria	IB	Harkaitzak
<i>Pyrrhonorax pyrrhonorax</i>	Belatxinga mokogorria	IB	Harkaitzak
<i>Regulus regulus</i>	Mendi erregetxoa	IB	Basoa
<i>Saxicola rubetra</i>	Pitxartxar nabarra	IB	Baso eta sastrakadiak
<i>Turdus torquatus</i>	Zozo paparzuria	IB	Basoa
<i>Upupa epops</i>	Argi-oilarra	K	Landazabala
UGAZTUNAK			
<i>Eptesicus serotinus</i>	Baratze-saguzarra	IB	Orotarikoa
<i>Felis silvestris</i>	Basakatua	IB	Basoa
<i>Mustela putorius</i>	Ipurtatsa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	Pipistrello txikia	IB	Orotarikoa

Espezia	Izen arrunta	Mehatxu kategoria	Habitat nagusia
NARRASTIAK			
<i>Zamenis longissimus</i>	Eskulapioren sugea	IB	Basoa
<i>Timon lepidus</i>	Gardatxoa	IB	Orotarikoa
ARTROPODOAK			
<i>Rosalia alpina</i>	Kakalardo adarluze alpetarra	IB	Basoa
KRUSTAZEOK			
<i>Austropotamobius pallipes</i>	Ibai karramarro arrunta	GA	Ibaiak

Aurreko taulan azaldutakoaren arabera, aipatutako espezieak hurrengo kategoriatan banatzen dira:

- “Galtzeko arriskua”: 4 espezie.
- “Kaltebera”: 7 espezie.
- “Bakana”: 14 espezie.
- “Interes berezia”: 25 espezie.

Aipatu beharra dago, Espezia Mehatxatuen EAEko Katalogoan agertzen diren 439 espezie guztien artean, Baliarraingo udalerria barne hartzen duen 10x10 UTM laukian 80 fauna zein flora espezie aurkitu direla. Hau da, Katalogoan agertzen diren espezieen ia %20 eremu honetan aurki daitezke.

4.4.2.1 Faunarentzat intereseko eremuak

EAEko Ingurumen Esparru Programak lehentasunezko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta arriskuan dauden flora- eta fauna-espezieen gune sentikorak babesteko beharra ezartzen du, kudeaketa-plana izan ala ez. Baliarraingo udalerrian bertan, ez da inolako Interes Bereziko Eremurik topatzen. Hala ere, udalerriko mugatik gertu, iparraldean, Bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) Interes Bereziko Eremua dago. **1.7 Intereseko fauna** planoan kontsultatu daiteke.

Horretaz gain, udalerrik kanpo, hegoaldean, Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Plan Bateratuaren arabera, Aralarreko KBEa Interes Bereziko Eremutat eta Elikaduraren Babesguneztatik hartzen da espezie nekrofago, ugatza, sai zuria eta sai arrearentzat.

4.5 NATURA INTERESEKO EREMUAK

4.5.1 EREMU NATURAL BABESTUAK

Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko *abenduaren 13ko 42/2007 Legeko* 28. Artikuluaren arabera, naturagune babestu izango dira baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen badute eta naturagune babestu deklaratzeko badira:

- Bertako natura-sistema edo -elementuak adierazgarriak, apartekoak, hauskorak edo mehatxatuak izatea edo interes berezikoak izatea ekologia, zientzia, paisaia, geologia edo hezkuntzaren aldetik.
- Gunea berariaz izatea dibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta aurrekoei lotutako natura- eta kultura-baliabideak babestu eta iraunarazteko gune izatea.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak eremu babestuko sistema bat ezartzen du, hiru mailatan sailkatuta:

- Naturagune babestuak
- Natura 2000 Sareko eremu babestuak
- Nazioarteko tresnek babestutako eremuak

Naturagune babestuak honako mailatan sailkatzen dira:

- a) Natur Parkeak
- b) Natura-erreserbak
- c) Itsas inguru babestuak
- d) Natura monumentuak
- e) Paisaia babestuak

Bestalde, 9/2021 Legeak, azaroaren 25ekoak, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoak, 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, natura-ondareko gune babestuak kategoria hauetako batean sailkatuko dira:

- a) Naturagune babestuak: parke naturalak, natura-erreserbak, natura-monumentuak eta paisaia natural babestuak
- b) Natura 2000 Sareko naturagune babestuak. Kategoria honetakoak izango dira Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
- c) Gune babestuak nazioarteko tresnak aplikatzearen ondorioz. Kategoria horretakoak dira honako hauek:
 - 1. Biosfera-erreserbak,
 - 2. Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei (bereziki Uretako Hegaztien Habitat gisa) buruzko Ramsarko Hitzarmenaren nazioarteko garrantziko hezeguneak,
 - 3. Unescok deklaraturako geoparkeak,
 - 4. Ospar hitzarmenak babestutako eremuak,
 - 5. Munduko Ondarearen Zerrendako naturaguneak eta
 - 6. Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 50. artikuluen arabera, **nazioarteko tresnek babestutako eremutzat** hartuko dira Espainia partaide izango den nazioarteko Hitzarmen eta Akordioetan xedatutakoaren arabera formalki izendatuko diren natura-eremu guztiak, eta zehazki, ondorengoak:

- a) Nazioartean garrantzia duten hezeguneei buruzko hitzarmenaren arabera, nazioartean garrantzitsuak diren hezeguneak, bereziki hegazti urtarren habitat badira.
- b) Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteari buruzko Konbentzioko Munduko Ondarearen zerrendako naturaguneak.
- c) Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurunea babesteko Hitzarmeneko (OSPAR) eremu babestuak.
- d) Mediterraneoarentzat Garrantzizko Babes Bereziko Eremuak (ZEPIM), Mediterraneoeko itsas ingurunea eta kostaldea babesteko hitzarmenakoa.
- e) Geoparkeak, UNESCOk aitortuak.
- f) Biosferako erreserbak, UNESCOk aitortuak.

g) Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

Eremu horiei babes-irudia duten ibai-erreserba naturalak gehitzen zaizkie, helburu izanik gizakiaren esku-hartze txikia duten edo esku-hartzerik gabe dauden, eta egoera ekologiko ona duten ibai-tarteak zaintzea. Hala aitortzen dira uraren legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua betez. Legeak aurreikusten du Estatuaren eskumenekoak diren Plan Hidrologikoetan nahitaez txertatzea ibai-erreserba natural izendatu beharreko eremu horiek.

Baliarraingo udalerrian

Baliarraingo udalerrian ez da inolako eremu natural babesturik aurkitzen. Hala ere, udalerriko mugetatik gertu, iparraldean, ES2120005 Oria Garaia KBE Kontserbazio Bereziko Eremua aurkitzen da.

4.5.2 INTERESEKO BESTE NATURGUNE BATZUK

4.5.2.1 Naturgune garrantzitsuen katalogo irekia

Espazio natural garrantzitsuen katalogoaren arabera Baliarraingo udalerrian ez da inongo naturgune garrantzitsurik agertzen.

4.5.3 ONURA PUBLIKOKO MENDIAK

Era berean, Baliarraingo udalerrian ez da erabilera publikoko mendirik aurkitzen.


4.5.4 KORRIDORE EKOLOGIKOAK⁹ ETA AZPIEGITURA BERDEA

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Proiektua (Eusko Jaurlaritza, 2005) ezartzearen helburu nagusia Natura 2000 Sarearen lotura eta koherentzia ekologikoa sustatzea da. Sare horren helburu nagusiak dira habitata eskualde-mailan zatitzeko arriskua duen fauna Natura 2000 Sareko espazioen artean mugitzea ahalbidetuko duen sarea mugatzea, eta korridoreen sarea osatzen duten elementuak erabiltzeko eta kudeatzeko neurriak proposatzea.

Baliarraingo udalerrian nukleo eremurik topatu ez arren, Ernio-Gatzume eta Aralar lotzen dituen korridore ekologiko garrantzitsua aurkitzen da. Horretaz gain, udalerri osoa indargetze eremuaren barruan kokatzen da, hiri-eremua izan ezik.

1.8 Korridore ekologikoa planoan jaso da eremua.

⁹ Gurrutxaga, M. 2005. Red de Corredores Ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Eusko Jaurlaritza, IKT S.A.



17. Irudia Korridore ekologikoen Sarea Baliarraingo udalerrian.

Bestalde, Lurralde Antolamenduko Gidalerroek (LAG), 2019ko uztailean onartutako berrikuspenean ezarritakoaren arabera, ingurune fisikoaren antolamenduan azpiegitura Berde eta ekosistemen balioa nabarmentzea dago oinarritzko gidalerroen artean.

Azpiegitura Berdea eremu natural, erdinatural eta beste hainbat ingurumen elementuek osatutako sarea da, modu estrategikoan planifikatuta dagoena zerbitzu ekosistemikoen sorta zabala emateko diseinatu eta kudeatzen dena. EAEn, hurrengo elementuek osatzen dute:

- Beren ingurune-balioengatik babestutako guneak, beren babes-figura propioak dituztenak.
- Espazio horiek lotzen dituzten korridore ekologikoak.
- Funtzio anitzeko natura-intereseko beste espazio batzuk, EAEn ingurumen-balio nabarmenak izanik, babes-figura onarturik ez dutenak.
- Ibilguak eta lurrazaleko urak babesteko gisa kategorizatutako eremuak, RAMSAR hezeguneak eta Hezeguneen LAPak inbentariatutako ur-masa guztiak.

LAG-ek gehitzen dute hirigintza-plangintzek «(...) sarea zabalduko dutela, dagozkien eskaletan espazio garrantzitsuak sartuz» eta, nolanahi ere, EAEn azpiegitura berdean ez dauden beste espazio babestu batzuk kontuan hartu beharko dituztela.

Ur- ibilguak, ertzak eta basoak korridore ekologiko linealak dira iktiofaunarentzat eta uretako nahiz lehorreko beste animalia batzuentzat. Hala, EAEko korridore ekologikoen sarea osatzen duten ur-ibilguak “bilbe urdin” gisa identifikatzen dira.

Azpiegitura berdearen kartografiaren arabera, Korridore ekologiko batek zeharkatzen du udalerria, hegoaldetik iparraldera. Gainera, ibiur urtegia “biodibertsitate-erreserba” kategorian sartzen da.

Bestetik, Gipuzkoako azpiegitura berde sarearen proposamenaren arabera¹⁰ (2019) udalerriaren mendebaldeko eremua “funtzionaltasun ekologikorako intereseko guneak” bezala izendatzen da [GAB-GOTO-02 kodea], eta multifuntzionaltasun indize altuarekin.

FEIG horretan zatikatze-elementu esanguratsuenak GI-2133 eta GI-3372 errepideak dira, FEIGaren hegoaldeko muturrean. Baserriak lotzen dituen bide-sareak ere konektibitatea murrizten du, neurri txikiagoan bada ere. Gainera, FEIGak baso-ustiapenerako eremu asko eta landazaleko larre zabalak ditu.

FEIGak, EAEko Azpiegitura Berdearen korridorea jarraipena duenak (Araxes - Aralar eta Hernio - Aralar), Oria ibaia eta GAB-GOTO-01 FEIGa Aralar naturagune babestuekin lotzen ditu. Legorreta eta Aralar arteko lurrak hartzen ditu, eta baita Baliarrain, Gaintza eta Abaltzisketako hainbat eremu ere.

1.9 Azpiegitura Berdea planoan jaso dira azaldutako eremuak.

4.6 PAISAIA

Baliarrain landa-izaerako herria da eta bere paisaian mendi, baso eta larreen mosaikoa da nagusi. Paisai unitateen inguruan, Baliarraingo udalerrian sailkatuta dauden unitate guztiak eremu flubialarekin dute zerikusia. Hurrengo taulan paisai-unitate bakoitzaren azalera adierazten da.

12. Taula Baliarraingo paisaia – unitateak.

Paisai-unitateak	Azalera (ha)	Udalerriaren zenbatekoa (%)
Eremu flubialean baso-mosaikoa	50,49	18%
Eremu flubialean belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza	75,78	28%
Eremu flubialean baso-landaketak dituen nekazaritza-mosaiko	44,09	16%
Eremu flubialean basoko nekazaritza-mosaikoa	104,82	38%

Bestalde, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuak (Eusko Jaurlaritza, 2005) EAEko ikus-arroen lehen karakterizazio bat egin zuen. Ikus-arroak, elkarren artean interbisibiltate erlazioa mantentzen duten eta ikusmen irizpideei dagokienez erlatiboki homogeenak diren zonaldeak dira. Ikus-arro hauen karakterizaziorako lurzuaren erabilerak eta azpiegituren presentzia, arro horietako bakoitzak dituen ikus-inpaktuak (positiboak zein negatiboak) eta haien egunerokotasuna hartu dira kontuan. Egunerokotasuna hiri-lurretatik paisaiek duten ikusgarritasunari egiten dio erreferentzia.

Udalerria bi ikus -arroen artean hedatzen da; Baliarrain eta Alegia. Gainera, Baliarrain arroa EAEko Paisai berezien eta apartekoen katalogoan sailkatzen da.


13. Taula Ikus-arroak Baliarraingo udalerrian.

Ikus -arroak	Paisaiaren balioa	Egunerokotasuna	PBNK *	Udalerrian azalera (ha)
Baliarrain	Oso altua	Egunerokoa	Bai	197,24
Alegia	Oso baxua	Oso egunerokoa	Ez	77,94

*PBNK: Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa.

¹⁰ ARC Consultoría medioambiental eta Anthesis Lavola, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, 2019. Gipuzkoako azpiegitura berdeen sarea planifikatzeko diagnostikoa.

Azkenik, paisaiaren aldetik garrantzia duten gune eta elementuei dagokienez, Baliarraingo udalerrian ez da inolako elementurik aurkitzen.



18. Irudia Baliarraingo paisai unitateak eta ikus arroak.

2014an, Eusko Jaurlaritzak 90/2014 Dekretua onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa. Dekretuak hainbat tresna identifikatzen ditu, hala nola paisaiaren katalogoak, paisaiaren zehaztapenak, paisaiaren ekintza-planak eta paisaia-integrazioari buruzko azterlanak. Helburua EAE osoko Paisaiaren Katalogoak eta Zehaztapenak idaztea da. Hala ere, gaur egun, ez dago Paisaiaren eta zehaztapenen Katalogorik idatzita Tolosaldea eremu Funtzionalerako.

4.7 KULTURA ONDAREA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Euskal Kultura Ondarearen Zentrotik jasotako txostenaren arabera, Baliarrainen Kultura-ondasun izendatutako hurrengo elementu hauek identifikatu dira.

4.7.1 ELEMENTU ARKITEKTONIKO BABESTUAK

14. Taula Baliarraingo ondare arkitektonikoa

1. Ondare arkitektonikoa		
1.1. Monumentua		
Izena	Babes maila	Data
Lopetedi baserria	Inbentariatuta	EHAA 2005-10-18




16. Argazkia: Lopetedi Baserria.

4.7.2 ELEMENTU ARKEOLOGIKO BABESTUAK

15. Taula Baliarraingo ondare arkeologikoa.

2. Arkeologia ondarea		
2.1 Balizko Arkeologia Guneak		
Izena	Babes maila	Data
• Done Joanes Bataiatzailearen basiliza (San Juan Bautista) • Abaliagoena baserria • Errilla baserria • Andre Mariaren Jasokundea eliza • Garate baserria	Ustezko arkeologia- eremua	BOPV nº 233 (04-12-97)



19. Irudia Kultura ondarea Baliarrainen.

4.8 INGURUMEN ARRISKUAK

4.8.1 UHOLDE ARRISKUA

EAEko uholde-arriskuaren kartografiaren arabera (Geoeuskadi), Baliarraingo udalerri osoa 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-aldietarako urpean gera daitezkeen eremuetatik eta lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo geratzen da.

4.8.2 AKUIFEROEN KUTSADURAREKIKO URRAKORTASUNA

Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasunaren mapa kontuan hartuta (1: 25.000 eskalan), udalerri osoak akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun oso baxua aurkezten du. Gainera, ez da interes hidrogeologikoko gunerik identifikatzen.

4.8.3 HIGADURA-ARRISKUA

Higadura-arriskuari dagokionez, EAEko lurzoru higagarrien mapak (1:25.000 eskalan) higadura hidriko laminarra ebaluatzen du. Higadura hidriko laminarraren edo errekaen mailak aurreikusteko "Ecuación Universal de Pérdidas de Suelo" eredu erabiltzen da, bai 1978ko jatorrizko bertsioan (USLE eredu), bai 1997ko bertsio berrikusian (RUSLE eredu).


RUSLE ereduak adierazitakoaren arabera, orokorrean, Baliarrainen Higadura-maila oso baxuak dituzten eta lurzoru onargarria galtzen duten eremuak aurki daitezke. Horretaz gain, eremu txiki batzuetan higadura maila txikiak dituzten lurzorua antzematen dira.

Era berean, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-aren arabera udalerrian eremu higagarriak antzematen dira. Gainera, landa lanean, ur-ibilgu bazterretako zenbait eremuetan eta landabideek moztutako mazeletan, higatutako eremuak eta luiziak identifikatu dira.

Nolanahi ere, gero eta ohikoagoak diren eurite handietan egiaztatu den bezala, malda malkartsuetako eremuek, hala nola Baliarraingo eremuetan identifikatutakoek, irristatze-prozesuak jasan ditzakete, eta, batzuetan, komunikazio-bideei (pistak, errepideak) edo erreken ertzetan dauden eraikinei ere eragiten diete.



17. Argazkia: Luizia jasan duen eremuetako bat.



20. Irudia

Eremu higagarriak Baliarraingo udalerrian.

4.8.4 KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK¹¹

Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioaren arabera (*irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartu zen*) eta inbentario hori eguneratzeko lanen arabera (Geoeuskadin eskuragarri dago inbentario horren informazioa), Baliarraingo udalerrian ez da kutsatuta egon daitezkeen lursailik adierazten.

4.8.5 ARRISKU SISMIKOA


Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urriaren 30ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera, historikoki, Euskal Autonomia Erkidegoko sismikotasuna baxutzat jo daiteke, bai bere lurraldean erregistratutako sismoen kopuruagatik, bai bere ezaugarriengatik, guztiak ere garrantzi txikikotzat jo daitezkeen magnitude eta intentsitateengatik. Hala, ez dago VII.aren pareko edo hortik gorako arrisku sismikoa duen eremurik, eta, beraz, ez dago arrisku sismikoari aurre egiteko larrialdi-planik egin behar duen udalerririk.

Zehazki, Baliarraingo udalerria V-VI. intentsitateko eremuan dago, eta, beraz, ez du Larrialdi Sismikoko Planik egin behar, nekez gerta baitaiteke eraikinak suntsitzeko ahalmena duen sismorik. Hala ere, nahiz eta VI-ko intentsitateko sismoak jasan ditzaketen udalerrien zerrendatik kanpo egon, Ibiurko urtegia hurbil dauden eta sismoak jasan ditzaketen urtegien artean aurkitzen da.

4.8.6 BASO-SUTE ARRISKUA

Baso-suteen arriskua, funtsean, eremuan eta inguruetan dagoen landaretza motak baldintzatzen du. Beraz, horiek baloratzeko, dauden landaredi-unitateak hartzen dira kontuan, baita landaredi-moten berezko erregaitasuna ere.

Eusko Jaurlaritzaren baso-sutearen arrisku maparen arabera, udalerriaren ipar-ekialdean topa daitezke baso-sute arrisku oso altua duten eremuak. Eremu hauek bat datoz koniferoen landaketa eremuekin. Bestalde, udalerriaren gainontzeko azalera arrisku-maila baxuarekin katalogatuta dago.



21. Irudia

Baso-sute arriskua Baliarraingo udalerrian.

¹¹ 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, potentzialki jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. EHAA, 204. zk. 2008/10/24.

4.8.7 ARRISKU TEKNOLOGIKOAK

4.8.7.1 Salerosgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arriskua

Salerosgai Arriskutsuen Errepideko Nazioarteko Garraioari buruzko Europako Akordioak (ADR 2003) eta Trenbideko Garraioaren Erregelamenduak (RID 2003) ezartzen duten esparruaren barruan, 1996ko *martxoaren 1ean 387/1996 Errege Dekretua* argitaratu zen Estatuan, salerosgai arriskutsuen errepideko eta trenbideko garraioetan istripuak gertatzeko arriskuari aurre egiteko Babes Zibileko Plangintzaren Oinarrizko Gidalerroa onartzen duena. Euskal Autonomia Erkidegoan, aipatutako Errege Dekretuaren testuinguruan, 1998an egin ziren salerosgai arriskutsuen garraioaren fluxu-mapak, eta azken eguneraketak 2013an egin ziren. Mapa hauek egitearen helburuak hurrengoak dira:

- Istripu posible baten ondorioak arintzeko hartu beharreko esku-hartze neurri eta estrategiak aurreikusteko oinarria izatea
- Garrantzi berezikotzat jo behar diren eremuen mugatzea, kaltetuak izan daitezkeen herritarrak, ondasunak edo ingurumena babesteko neurriak aurreikusteko.

Baliarraingo udalerriaren barruan ez da errepide arriskutsurik azaltzen. Hala ere, udalerriaren iparraldeko muga A-1 errepidea aurkitzen da, honek arrisku ertaina aurkezten du, urtean salerosgai arriskutsuen 50.000-120.000 tona garraiatuz.

Era berean, eremu berdinetik igarotzen den trenbideak, fluxu oso altua du.

4.8.7.2 Arrisku kimikoa - SEVESO enpresak

840/2015 Errege Dekretuak Espainiako ordenamendu juridikora ekarri du 2012/18/EB Zuzentaraua (SEVESO III Zuzentaraua), istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeari buruzkoa. Errege Dekretu honen xedea da istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean prebenitzea, eta istripu horiek gizakien osasunean, ondasunetan eta ingurumenean izan ditzaketen ondorioak mugatzea.

Arau horri dagokionez, ez da identifikatu udalerrian arriskutsua izan daitezkeen industria-jarduerekin lotutako industriarik.

4.8.8 ZARATA

Ez dago zarataren inguruko azterketarik Baliarraingo udalerrian. Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAEko hots-kutsadurari buruzkoak, ezartzen du udalerriari dagokiela “*udalaren lurralde-eremuaren barruko area akustikoa edota area akustikoak zedarritzatzea eta onartzea, betiere, udalaren planeamenduan aurreikusitako egungo erabilerak oinarri harturik*” (6. artikulua).

HAPOaren tramitazioaren eta ingurumen azterketaren ondorengo faseetan, udalerriko hiri eremuaren eta garapen berrien inguruko zarata azterketa burutuko da.

4.8.9 AIREAREN KALITATEA

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea kutsadura-mailak kontrolatzeko eta zaintzeko tresna bat da. Sare honek analizatzaileak eta sentsoreak ditu, airearen kalitateari buruzko araudiak ezarritako kutsatzaileak neurtzeko, batez ere sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoak (NO eta NO₂), ozono troposferikoa, karbono monoxidoa (CO), bentzenoa eta partikula esekiak (PM₁₀ eta PM_{2.5}). Airearen kalitatearen ebaluazioa urtean behin egiten da, kontrol-sarean erregistratutako datuetatik abiatuta.

Sareak 8 unitatetan banatzen du EAEko lurraldea. Aztertutako eremua “Goierri (ES1606)” unitatean sartzen da, 917,9 km²-ko azalerarekin eta 143.388 biztanlerekin. Baliarrainetik gertuen dauden estazioak Beasaingoa eta Tolosakoa dira.

Sare horren 2023. urteko txostenaren datuen arabera, SO₂ balioak egokiak izan dira Beasaingo estazioan. NO₂ balioak ere egokiak izan dira bi estazioetan. Urteko PM10 eta PM2.5 balioak ere egokiak dira Beasainen eta PM10 balioak Tolosan. Neurtutako gainontzeko balio guztiak ere egokiak dira.

Bestalde, Eustateko “EAEko eskualdearen airearen kalitate indizeak eta iraunkortasun adierazlea”-ren arabera, 2023an Goierri unitatean airearen kalitatea oso ona izan zen 183 egunez, ona 158 egunez, hobegarria 15 egunez, txarra 8 egunez eta oso txarra egun bakarraz. Ondorioz, Goierriko unitateak 93,42-ko iraunkortasuna adierazten du.

Nolanahi ere, udalerriaren ezaugarriak eta hirigunearen kokapena kontuan hartuta, aurreikusten da airearen kalitatea hurbilen dauden estazioak dauden hiriguneetan baino hobea izango dela.

4.8.10 KLIMA ALDAKETA

Azken urteotan bultzada handia ematen ari zaie egokitzapen-politikei Europan, Klima Aldaketara Egokitzeko Europako Estrategiaren (2013) eta hura hedatzeko tresnen bidez gauzatzen direlarik. Estrategia horrek onartzen du beharrezkoa dela eskualdeek eta tokiko-erakundeek egokitzapen-politika eraginkorrak bultzatzea.

Tokiko-administrazioek, kudeaketa publikoaren arduradun diren aldetik, herritarren osasuna eta bizi-kalitatea bermatu behar dituzte, klima-aldaketa onorio kaltegarriek eragindako galerak murriztu behar dituzte, eta ingurumen-baliabideen erabilaren eraginkortasuna hobetu behar dute, horrek natura-ingurunean duen eragin positiboarekin (Udalsarea 21, 2011)

Proiektu eta argitalpen berrienetan garrantzi handiagoa ematen zaio arriskuari, hau da, mehatxuaren, esposizioaren eta kalteberatasunaren konbinazio gisa hartzen da, eta gertaera jakin bat (mehatxu-faktorea) gertatzeko probabilitatearen funtzio gisa adierazten da, ondorio kaltegarriekin biderkatuta (esposizio-faktoreak eta kalteberatasuna). Kalteberatasuna, era berean, bi osagai nagusien arabera da: batetik, klima-mehatxuekiko sentikortasuna, eta, bestetik, horiei aurre egiteko eta egokitzeko egokitzapen-gaitasuna. Horren guztiaren ondorioz, ikuspuntu metodologikotik, klima-aldaketa aurrean arriskua eta kalteberatasuna aztertzeko moduak birplanteatzen eta birbideratzen ari dira.

Testuinguru horretan, lhobek dokumentu bat argitaratu du 2019ko urtarrilean, EAEko udalerriek klima-aldaketa aurrean duten kalteberatasuna eta arriskua ebaluatzeko (Euskal udalerriek klima-aldaketa aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa, 2019).

Ebaluazioa egiteko, EAEko udalerrien kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa mugatzeko eta bideratzeko azterketan lehentasunezko inpaktu-kate kopuru mugatu bat identifikatu eta hautatzen da. Inpaktu-kate horien bidez, klima-mehatxu jakin baten (egungoa edo etorkizuneko) eta sektore, eremu edo hartzaile jakin baten arteko kausa-efektu erlazioak jaso daitezke. EAEko egungo eta etorkizuneko klima-testuinguruari buruzko informazioa eta sektore nagusietako batzuetan eragin ditzaketen mehatxu eta inpaktu klimatiko nagusiak kontuan hartuta, dokumentuak lehentasunezko inpaktu-kateak detektatzen ditu. Hala, EAEko udalerriek klima-aldaketa aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa honako kate hauek kontuan hartuta egin da:

- Bero-boladek giza osasunean duten eragina
- Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.

- Itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholdeen inpaktua hiri-ingurunean
- Lehorten handieneko aldien hazkundeak jardura ekonomikoen gainean izandako eragina, nekazaritza-ingurunean interes berezia jarritz.

Etorkizuneko klima-proiekzioak 2 eszenatokiaren (RCP4.5 eta RCP8.5) eta 3 aldiaren (2011-2040, 2041-2070, 2071-2100) arabera egiten dira. RCP-ak (Representative Concentration Pathways) indartze erradiatiboagatik eta CO₂ baliokideagatik bereizten dira, eta horiek handiagoak dira RCP8.5 eszenatokian.

Jarraian, Baliarraingo udalerrirako lortutako balioen laburpena egiten da, Geoeuskadin kontsultatutako datuen arabera.

Kasu honetan udalerrian neurtzen diren balio normalizatuak nahiko altuak dira eszenatoki guztietarako. Gainera, erreferentzia alditik egoera txarrenerako hazkundeak %23,2-koa da. Bestalde, EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa nahiko altua da, hala ere, balio hau nahiko konstante mantentzen da eszenatoki eta denboraldi guztietan.

16. Taula Baliarraingo udalerrriak, klima-aldaketaren ondorioz sor daitezkeen inpaktu-kateen aurrean duen arriskua. Iturria: Geoeuskadi.

Inpaktu-katea	Indizeak	Arriskua				
		Erreferentzia aldia 1971-2000	2011-2040 Denboraldia		2071-2100 Denboraldia	
			RCP4.5	RCP8.5	RCP4.5	RCP8.5
Bero-boladek giza osasunean duten eragina	Balio normalizatuak (1-2)	1,25	1,34	1,34	1,47	1,54
	EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa (1-10 dezilak)	8	8	8	8	7

17. Taula Aldagai klimatikoaren bilakaera Baliarrainen. Iturria: Klima-agertokiak Euskadin eta datu-serieak. Ihobe.

Aldagai klimatikoa	Año	RCP4.5	RCP8.5
Batez besteko tenperatura (°C)	2024	13,64	13,66
	2040	14,36	14,65
Batez besteko tenperatura minimoa (°C)	2024	9,43	9,40
	2040	10,16	10,36
Batez besteko tenperatura maximoa (°C)	2024	17,83	17,91
	2040	18,75	18,93
Gehienezko tenperatura (°C)	2024	32,98	35,19
	2040	35,11	36,03
Bero-boladak – T ^a >35°C (egunak)	2024	0,07	2,43
	2040	2,12	1,42
Gau tropikalak – T ^a >20°C (gauak)	2024	0,83	4,40
	2040	7,07	5,10
Izozte egunak - T _n < 0°C (egunak)	2024	12,12	8,88
	2040	5,30	5,37
Eguneko prezipitazioa (mm/egun)	2024	3,95	3,93
	2040	3,83	3,79

http://escenariosklima.ihobe.eus/?lang=eu#&model=multimodel&variable=tas&scenario=rcp45&temporalFilter=YEAR&layers=MUNICIPALITIES&period=MEDIUM_FUTURE&anomaly=RAW_VALUE

4.9 HIRIKO METABOLISMOA

4.9.1 UR-HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDUA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalak Mankomunitate sistemetan biltzen dira udalerriek hornikuntza eta hondakin uren arazketa era eraginkorragoan kudeatzeko. Baliarraingo udalerrirako Gipuzkoako Ur Kontsortzioak du uraren ziklo osoaren kudeaketa. Hau da, hornidura-zerbitzuak eta hondakin-uren saneamendu eta arazketa zerbitzuak ematen ditu.

Instalazioen aldetik, Ibiur urtegia udalerrian bertan aurkitzen da. Bertatik bildutako ur horiek, Ikaztegietan kokatutako Ibiurgo Edateko Uraren Tratamendurako Estaziora eramaten dira bertan tratatuak izateko. Ondoren, Baliarrain eta Tolosaldeko beste udalerrietara garraiatzen dira.

Baliarraingo udalerrian, edateko uraren eskaria 145,88 litrokoa da biztanleko eta eguneko (Udalmap 2019).

Uraren saneamenduari dagokionez, Baliarrain eta Tolosaldeko beste herrien ur-zikinak, Adunan aurkitzen den, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Uralde Hondakin Uren Araztegira eramaten dira, bertan saneamendu eta arazketa prozesuak jasateko

4.9.2 HONDAKINAK

Baliarraingo hondakinen bilketa Tolosaldeako Mankomunitateak kudeatzen du.

18. Taula Baliarrain udalerriko hiri hondakinak (2024).

BALIARRAIN: HIRI HONDAKINAK / RESIDUOS URBANOS (2024)																	
Jatorria Origen	Hondakina Residuo	Urtarrila Enero	Otsaila Febrero	Martxo Marzo	Apirila Abril	Maiatza Mayo	Ekaina Junio	Uztaila Julio	Abuztua Agosto	Iraila Septiembre	Urria Octubre	Azaroa Noviembre	Abendua Diciembre	GUZTIRA – TOTAL			
														Kg.	%	Kg/biz	
BALIARRAIN: HIRI HONDAKINAK / RESIDUOS URBANOS Y ASIMILABLES	BILKETA ZERBITZUAK HERRIE UNGEN ETXETako HONDAKINAK	Errefusa Rechazo	625	504	777	617	499	654	1.198	734	807	1.407	933	1.306	10.059	%40,58	67,51
		Beira Vidrio	660	0	670	0	370	0	690	0	0	743	0	922	4.055	%16,36	27,21
		Biohondakina Biorresiduo	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	%0,00	0,00
		Ontzi arinak Envases ligeros	438	439	290	261	583	345	386	363	494	546	359	508	5.012	%20,22	33,64
		Papera Papel	489	221	357	377	268	196	375	96	348	472	300	441	3.940	%15,89	26,44
		Arropa Textiles	181	40	0	120	60	127	114	223	258	150	151	99	1.523	%6,14	10,22
		Landare olioa Aceite vegetal	0	0	0	0	110	0	0	0	0	0	0	0	110	%0,44	0,74
		Kafe kapsulak Cápsulas de café	19	8	0	0	0	21	0	25	0	9	8	0	90	%0,36	0,60
		Errefusa Rechazo	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	%0,00	0,00
		Biohondakina Biorresiduo	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	%0,00	0,00
	Kartola Gerdio	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	%0,00	0,00	
	GUZTIRA ETXETako KOMERTZIOETAKO BILDUTAKOAK	2.412	1.212	2.094	1.375	1.890	1.343	2.763	1.440	1.907	3.327	1.751	3.275	24.789	%100,00	166,37	
	GAIKAKO BILKETA	74,11%	58,41%	62,91%	55,14%	73,60%	51,33%	56,65%	49,05%	57,69%	57,70%	46,70%	60,14%	59,42%			
	BILKETA ZERBITZUAK INDUSTRIE UNGEN	Kartola / Carton	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	#1DIV/0!	
		Plastiko Filma / Film	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	#1DIV/0!	
		Egurra / Madera	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	#1DIV/0!	
		Errefusa /Rechazo	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	#1DIV/0!	
		GUZTIRA INDUSTRIE UNGEN BILDUTAKOAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	#1DIV/0!	
		GAIKAKO BILKETA	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!	#1DIV/0!		
	BIZTANLEAK POBLACIÓN (INE 01/01/2023)		149														

Tolosaldeako mankomunitateak “Ez bota, konpostatu!” kanpaina jarri du martxan etxeko eta auzo-konpostajeari mankomunitateko herri guztietan sustatzeko, etxeko soberakin organikoa kudeatzeko helburuarekin. Bestalde, Tolosalderako 2018-2025 aldirako Plan Estrategikoan, Hondakinen kudeaketarako “Tolosaldea zero waste” programa garatu da ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta sortutakoak zabortegean ez amaitzeko helburuarekin.

Mankomunitatean eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Baliarraingo udalerrian biztanleko eta urteko hiri-hondakinen sorrera 166,37 kg/bizt./urtekoa izan zen (2024. Urtea, etxe eta komertzioetan bildutakoa). Gaikako bilketaren tasa % 59,42 izan da, hau da 98,86 kg/bizt./urteko birziklatzen da.

Gaikako bilketaren bidez honako hondakinak jasotzen dira: beira, ontzi arinak, papera, arropa, landare olio eta kafe kapsulak. Baliarrainen ez da biohondakinaren datuak jaso.

4.9.3 ENERGIA

Udalmapen arabera, 2023an Baliarraingo udalerriaren urteko kontsumo elektrikoa 2.890,31 Kwh/biztanleko izan da. Urteko kontsumo elektriko ez-industrialia 2.875,04 Kwh/biztanleko da, eta industria-sektorekoa 15,27 Kwh/biztanleko.

Udalerrian instalatutako potentzia fotovoltaikoa (2023. urtea) 3.553,46 Kw-koa da 10.000 biztanleko; potentzia eolikoa 0 Kw 10.000 biztanleko; potentzia hidraulikoa 0 Kw 10.000 biztanleko; eta eguzki-azalera termikoa 943,40 m²-koa 10.000 biztanleko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Tokiko Energia Komunitateak sustatu ditu 20 udalerritik, horietako bat Baliarrain. TEK Baliarrain Km 0 energia berriztagarria sortzen laguntzen du udalerrian, hirigintzan afekziorik eragin gabe, plakak eraikinen estalkien gainean jarriko direlako.

Baliarrainen 28 eguzki-plakak jarri dira udaletxeko eraikineko estalkian, 85 m²; instalatutako potentzia 12 kW-koa da, eta 19 etxe eta denda txikiei emango die zerbitzua (instalazioaren inguruko 2 km erradioan). Jarritako plakek 79 tona CO₂ isurtzea ekidin lukete.

4.9.4 SOZIOEKONOMIA

Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) informazioaren arabera, Baliarraingo udalerriak 274 ha-ko azalera du eta 2024an 159 biztanle zituen, hau da, 58,02 biztanle/Km²-ko dentsitatea.

Azken 10 urteetan % 20ko hazkundea eman da biztanlerian. Biztanleriaren % 8,81 65 urtetik gorakoa da eta biztanleriaren % 8,18 atzerrian jaiotakoa da.

Bestalde, udalerriko enplegu-tasa 2023 urtean % 72,6-koa da, orokorrean zerbitzu (% 56,10) eta industria (% 35,37) sektoreetan bilduta. Langabezi-tasa % 2,4-ekoa den bitartean.

4.10 MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

4.10.1 IRISGARRITASUNA

Irisgarritasunaren aldetik, Baliarraingo udalerriak komunikazio-azpiegitura gutxi ditu.

- Motorrik gabeko mugikortasuna: Gipuzkoako bizikleta bideen sareak Gipuzkoako eskualde guztiak zeharkatzeko helburua du, eguneroko zein aisialdirako bizikleta erabilera bultzatzeko. Sare hau Baliarraingo udalerritik kanpo geratzen da, eta momentuz, ez dago aurreikusita sare bertatik igarotzea. Hala ere, gertueneko ibilaldiak Oria ibaiaren ibilbidea jarraitzen duenez, udalerriko mugetatik oso gertu igarotzen da. Puntu horretatik udalerraren herrigunera iristeko GI-3851 errepidetik egin behar denez, ez da oso segurua oinezko edo bizikletentzako.
- Errepide azpiegitura: Errepide azpiegitura GI-3851 errepideak soilik osatzen du.
- Garraio publikoa: Garraio publikoari dagokionez, Lurraldebusek eskaripeko linea bakarra eskaintzen du Baliarraingo udalerrian. TO26 linea bertatik igarotzeko alde aurreko eskaera egin behar da telefonoz.

4.10.2 MUGIKORTASUNA

Udalmapen eskuragarri dauden azken datuen arabera, nahitaez egin beharreko mugikortasun balioak nahiko altuak dira. Udalerriak kanpo lan egiten duten 16 urte edo gehiagoko langileak %84,15a dira Gipuzkoa eta EAE balioak baino handiagoa. Aldi berean Udalerriak kanpo ikasten duten 16 urte edo gehiagoko ikasleak %100 dira udalerrian.

4.11 INGURUMEN- ETA PAISAIA-UNITATE HOMOGENEOAK

Udalerriko ingurune fisikoaren ezaugarrien, prozesuen, ingurumen-arriskuen eta paisaiaren azterketaren ondorioz, lurraldean 7 unitate homogeneo identifikatu dira. Unitate bakoitzak kalitatearen balorazio nahiko antzekoa du, eta baita erabilera espezifikorako gaitasuna edo bokazioa ere. Ondorengo tauletan ingurumen unitate homogeneoen karakterizazioa biltzen da, bai eta bere ingurumen kalitatearen eta erabilera aukeren balorazioa.

I.U.H. 1		Ibai eremua
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Ibai-sistema, ibai eta errekekin lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko ezinbestekoak diren prozesu hidrogeomorfologiko guztiak hartzen ditu bere barnean. Gainera, haranetako paisaiaren elementu egituratzaile eta dibertsifikatzaile garrantzitsuak dira. Unitate honetan, Baliarrainen aurki daitezkeen ibilguak kontuan hartzen dira. Eremu honen helburua babesia izango litzateke, ingurumen-erregulazioari lotutako zerbitzu ekosistemikoak mantentzen dituelako (lurzorua, klima, ura, etab.) eta biodibertsitatearen gordailu gisa jarduten duelako.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate HANDIA	- Batasuneko Intereseko Habitatak biltzen ditu, hala nola, ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra (91E0*). - Intereseko animalia espezie ugari bizi diren eremua da, eremu urtarrari bakarrik lotuta egon daitezkeenentzat, zein bertara edateko gerturatzen diren animalia lehortarrentzat, edo uretan elikatzen direnentzat - Zerbitzu ekosistemiko ugari eskaintzen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrologikoa, elikagaiak, etab.). - Paisaiari naturaltasuna eta kalitate bisuala eskaintzen dio. - Hiritarrentzako lasaitasunerako eta aisialdirako espazioak eskaintzen ditu.	Udalerriko ibar guztietatik igarotzen da.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	- Presio ugari jasaten ditu. Hirigunea bere inguruan garatu da, eta gainera, lbiurreko urtegiak bere joera naturala moldatzen du.	
Ahalmena	Natura eta aisialdi jarduerak	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Eremu honetan helburuak ibai ibilguen funtzio ekologikoak mantentzea eta sustatzea izango lirateke. Ondorioz, eremuaren antolaketa kontserbaziora eta ingurumen balioa hobetzera bideratu beharko litzateke.	

I.U.H. 2	Urtegia
DESKRIBAPEN OROKORRA	

Urtegi honek hornidurara bideratutako urak biltzen ditu.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate TXIKIA	- Presak 70m-ko altuera du. - 12 Km²-ko isuri-arroa hartzen du.	Udallerriaren ekialdean kokatzen da.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	- Higadura arriskua handitzen da inguru honetan.	
Ahalmena	Ur-hornidura	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Eremu honetan helburua emari ekologikoa mantentzea izango da.	

I.U.H. 3		Kontserbaziorako basoa
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Honako ezaugarri hauetakoren bat duten lursailak dira: - Baso autoktonoak: Pagadi azidofiloa, harizti azidofiloa, baso mistoa eta haltzadia. - Aurreko baso horien ordezkapen-etapei dagozkien larre- eta zuhaixka-egiturak (txilardiak, otadi, sastrakadiak, etab.).		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate HANDIA	- Lurraldearen berezko landaretza potentziala edota Batasunaren intereseko habitatak. - Faunarentzan interesa duten eremuak, korridore ekologikoen moduan funtzionatzen dutelarik. - Zerbitzu ekosistemiko ugari ematen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrologikoa, basoko fruituak...). - Sosegurako eta aisialdirako guneak sortzen dituzte tokiko biztanleentzat. - Paisaiari ikus-kalitatea ematen dioten eremuak dira. - Herrialdeko tradizio kulturekin lotura sinbolikoa dute.	Batez ere, Udalerriko mugetan.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	Hainbat presio antropikoen mende dago. Historikoki, unitate honen eremua murriztua izan da, espezie aloktonoak landatzeagatik, batez ere, koniferak edo larreak sortzeagatik.	
Ahalmena	Erabilpen naturalistikoa. Bertako basoa osatzen duten espezien babesa.	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Eremu honetan helburua basoa kontserbatzea izango litzateke, bertako zerbitzu ekosistemikoak mantendu daitezen eta biodibertsitatearen gordailu moduan.	

I.U.H. 4		Ustiapenerako basoa
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Baso-ustiapenerako lursailak dira, malda ertainak edo handiak dituzten mendi-mazeletan kokatuak. Bere erabilera lehengaia ekoizteko erabiltzen da, zurgintzarako eta paperaren industriarako.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	- Baso-landaketen ingurumen-kalitatea murriztu egiten da irizpide ekologikoen arabera, baso-landaketa monoespezifikoak direnez, ustiapen-epe laburrarekin, eta, batez ere, inguruneke beste elementu batzuen egonkortasuna arriskuan jar dezaketen sistemen bidez ustiatzen dira. - Eragin nagusiak basogintzari lotutako kudeaketak dakarrenak dira: lurzorua galera, paisaia-inpaktua, espezie aloktono inbaditzaileak sartzea, etab.	Udallerri osoan zehar zabaltzen dira, mendi-mazeletan eta muinoetan azalera zabalak hartuz

	- Landaketa horiek heldutasun-maila handiagoa lortzen duten kasuetan, aniztasun ekologikoari ere laguntzen diote, landaketa-mota horietara egokitutako baso-espezieak ezarri eta finkatzeko.	
Zaugarritasun/berezitas un ERTAINA	Gaur egun, arriskurik handiena lurraldean oso hedatuta dauden espezieei eragin diezaieketen gaixotasun monoespezifikoen hedapenetik dator, <i>Pinus radiata</i> espeziearen kasuan bezala.	
Ahalmena	- Erabilpen naturalistikoa, ustiapenekoak eta aisialdirako. - Unitate honetako irizpidea baso-ustiategiari zuzenduta egongo da, % 60-70 malda gainditzeko duten zonetan izan ezik. Kasu horietan, komeni da bertan baso autoktonoaren azalera zabaltzea.	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Bere bokazioa produkzioa izango da, egurraren ustiapen jasagarria bultzatuz.	

I.U.H. 5		Nekazaritzarako Balio Estrategiko Altuko lurrak
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Unitate honetan Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak 'Balio Estrategiko Altua' kategorian identifikatutako lurrak barneratzen dira, abereentzako forrajea edo bestelako nekazal erabileretarako oso ezaugarri egokiak dituztenak.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate HANDIA	- Eremu hauetan larreak mantentzen dira, duten erabileraren arabera Batasuneko Intereseko 6510 Habitata izan daitezkeenak. - Bertako produktuak haztea ahalbidetzen du, nekazal ekonomia sustatuz. - Beste belardiekin, baso eta eskaiekin mosaikoa eratzen du, haranen hondoko landazabala osatuz, Kantauri isurialdeko landa-paisaia definitzen duen elementu bereizgarria da.	Udalerriaren mendealdean zein bizitegi nukleoaren ekialdean aurkitzen dira, eta azalera osoaren %16a suposatzen dute.
Zaugarritasun/berezitas un HANDIA	Bere kokapenarengatik, hirigintza garapenerako oso erabilgarriak izan daitezkeen lurrak dira.	
Ahalmena	Abeltzaintza eta nekazaritzarako erabilera.	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Hirigintza garapenerako egokiak izan daitezkeen lurrak batzen ditu, dituzten baldintza geoteknikoengatik. Hala ere, hauen babesak eta duten nekazaritzako erabilera mantentzea lehentasunezkoa kontsideratzen da.	

I.U.H. 6		Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Belardi eta larreetarako erabiltzen den azalera hartzen du, baita landa-inguruneari lotutako jarduerak hartzeko eremu mugakideak ere. Baserriak, baratzeak, frutondoak eta belardiak dira unitate honen ezaugarri nagusia, hau da, landazabaleko paisaia.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA


Ingurumen kalitate ERTAINA	- Gainerako eremu natural edo erdinaturalekin batera, sare berdearen parte da. - Intereseko elementu erdinaturalak ditu, ahala nola, zuhaiztiak eta larreen arteko heskaiak, konektibitate ekologikoan laguntzen dutenak. - Lursail gehienak batasuneko intereseko habitatekin bat egiten dute, batez ere 6510 larreak. - Hirigune inguruan paisaia-kalitatea handitzen du.	Modu sakabanatuan agertzen da udalerrri osotik zehar. Orokorrean, %35 baina malda txikiagoa.
Zaugarritasun/berezitasun ERTAINA	Arriskurik handiena bere kokapena da. Izan ere, hiriguneen ondoan egonda, hirigintza garapenak lursail hauek hartu ditzakete.	
Ahalmena	- Abeltzaintza eta nekazaritzarako erabilera, hiri garapenak. - Erabilpen naturalistikoa eta aisialdirako.	
Harrera-gaitasun ERTAINA	Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko trantsizioa landa-paisaia kategoriaren definizioarekin bat dator. Horregatik, lurzorua gaitasun agrologikoa, abeltzaintza-jarduerak eta landa-ekosistema eta -isolamendu horien kontserbazioa bermatuko duten bestelako jardura bateragarriak mantentzea da irizpidea.	

I.U.H. 7		Hiri lurzoruak edo eraldatuak
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Hiriguneko hiri-garapenak eta garraio-azpiegiturak okupatutako lursailak dagokie.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	- Lurzoru eraldatuak, bere erabilera eta jendearen presentzia altuak eremuaren ingurumen kalitatea murrizten dute. - Herrigunearen tamaina txikiak, natura elementuen kontserbazioa ahalbidetzen du.	Udalerrriaren hego ekialdean.
Zaugarritasun/berezitasun BAXUA	- Orografia izan daiteke eremua gehien mugatzen duen elementua. Hala ere, honen eragina baxua da. - Kultura intereseko ondarea aurkitzen da.	
Ahalmena	Hirigintzarako erabilera.	
Harrera-gaitasun HANDIA	Orokorrean hiri garapenak jasotzeko ezaugarri egokiak ditu.	

19. Taula Baliarrainen identifikatzen diren Ingurumen Unitate Homogeneoen laburpena.

Ingurumen-unitate homogeneoak		Azalera (ha)	Udalerrriaren %
1	Ibai-eremua	4,93	2%
2	Urtegia	14,75	5%
3	Kontserbaziorako basoa	131,66	48%

Ingurumen-unitate homogeneousak		Azalera (ha)	Udalerraren %
4	Ustiapenerako basoa	27,79	10%
5	Nekazaritzarako Balio Estrategiko Altuko lurak	36,37	13%
6	Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala	4,99	2%
7	Hiri-lurzorua edo eraldatuak	55,78	20%



22. Irudia Ingurumen-unitate homogeneousak Baliarraingo udalerrian

4.12 INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUEN LABURPENA

Baliarraingo udalerria Tolosaldeko eskualdean kokatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hego-ekialdean. Gutxi gora behera 2,75 Km²-ko azalera du, Gipuzkoako azaleraren % 0,14.

Morfoegituraren ikuspegitik Ibiur erreka eta honek osatzen duen urtegia, herrigunea kokatzen den mendi bizkarra eta Udalerrria herrigunea inguratzen duen mendi eremua bereizten dira. Orografiari dagokionez, lurraldea orokorrean oso malkartsua da. Eremu leunenak udalerraren erdialdean aurki daitezke eta herrigunea eremu lau honetan kokatzen da. Eremu malkartsuenak aldiz udalerrri inguru osoan aurkitzen dira, batez ere ipar-ekialdean.

Litologiari erreparatuta, iragazkortasun txikiko margak dira nagusi. Arroken gainetik, lubisol motako lurak agertzen dira, eta nekazaritzarako baldintza onak izan ditzaketen arren, maldek bere erabilera mugatzen dute, ondorioz, azalera gehiena basoek estaltzen dute.

Baliarraingo udalerrian Okots, Esnaola, Iturrimotza eta Gaintzabaso errekek aurki daitezke. Okots eta Esnaolak Oria ibaian isurtzen dituzte urak, aldiz Iturrimotza eta Gaintzabasok Ibiur urtegia. Aipatu beharra dago, Ibiur

urtegia udalerriaren ekialdean kokatzen dela eta Baliarraingo azalera osoaren %6a estaltzen duela (17ha). Azken azterketen arabera, Baliarraingo ur masen egoera ekologikoa zein kimikoa kalitate onekoa bezala irudikatzen da.

Klima atlantikoak, oro har tenperatura epelekin urte osoan zehar eta prezipitazio ugariekin, dauden lurzoru motekin batera, bertan garatzen den landaredia baldintzatzen du. Potentzialki, lurraldea harizti eta pagadiak estaliko lukete, haltzadiarekin batera ur ibilguen ertzetan. Hala ere, orain arte lurzoruan egindako erabilerak, garatzen den landaredia moldatu dute.

Horrela, zuhaitz-estaldura udalerriaren %60 hedatzen da gutxi gora behera, eta hauetatik %64 dira baso naturalak (pagadiak, hariztiak, eta haltzadiak) eta gainerako %36 baso-landaketak edo baso mistoak (hostozabalak eta koniferoen nahasketa). Gainera, Baliarrainen Batasunaren intereseko habitat ezberdinak identifikatzen dira, guztira udalerriaren %32a okupatuz.

Ezaugarri hauek udalerria animalia espezieen dibertsitatea oso handia izatea ahalbidetzen dute, horietatik batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan aurkitzen direnak. Besteak beste, aipatzekoak dira, harkaitzetara lotuta bizi diren hegazti harrapariak, Aralarretik gerturatzen direnak, basoetara lotutako kiroptero eta hegaztiak, edota ibai ibilguetara lotutako fauna.

Udalerriak natura intereseko ezaugarri ugari bildu arren, Baliarrainen ez da inolako eremu natural babesturik aurkitzen. Hala ere, udalerritik Ernio-Gatzume eta Aralar lotzen dituen korridore ekologikoa igarotzen da.

Kultura ondareari dagokionez, aipatzekoa da udalerrian kultura ondasun izendatutako hainbat elementu aurkitzen direla, mendi magaletan zein herrigunean. Hauek, elementu geologiko eta naturalekin batera, paisaiaren aldetik, bereziak diren ezaugarriak eratzen dituzte, eta horregatik, Baliarraingo ikus-arroa katalogatuta dago, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuaren arabera.

Azkenik, lurraldearen erabilera, eta batez ere hiri eremuen garapena baldintzatu dezaketen ingurumen arriskuei erreparatuta, orokorrean ez da ingurumen arriskurik identifikatzen. Hala ere, eremu malkartsuetan higadura eta luizi arazoak eman daitezke.

5 BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA

Atal honetan Baliarraingo HAPOak antolatutako esparruan eragina duten lurralde-plangintza eta lurralde arloko planak identifikatutako eta hauetan jasotako ezarpen eta irizpide nagusiak laburbiltzen dira.

5.1 LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ziren. Hauek, gainerako hirigintza-dokumentuak idazteko erreferentzia-esparrua dira, lurralde-antolamenduari dagokionez oinarritzko irizpideak ezartzen baitituzte. Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez, behin betiko onartu zen LAGen berrikuspena, 1997ko lurralde-ereduaren oinarriak eguneratzen eta osatzen dituen.

Antolamendu Kategoriek ingurune fisikorako LAGen Lurralde Ereduaren proposamena osatzen dute. Lurraldea sektore homogeneoetan sailkatzen dute haien harrera-ahalmenaren arabera, eta horietako bakoitzari erabilera-erregulazio espezifiko bat aplikatzen zaio (ingurune fisikoa antolatzeko matrizearen arabera). Kategoriak honako hauek dira:

- Babes berezia
- Ingurumen hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
- Mendiko larreak
- Lurrazaleko uren babesa

LAGek adierazten dutenez, garapen-plangintzak (HAPOak) kalifikazio bat ezarri beharko du lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruarentzat, LAGetan ezarritako antolamendu-kategorietako izendapenak eta irizpideak erabiliko dituen, eta azpikategoria gehigarriak sartu ahal izango dira, aztertutako eremuaren berezitasunen arabera. Bestalde, gehitzen dute garapen-plangintzak erabileren eta jardueren erregulazio espezifikoagoa ezarri ahal izango duela antolamendu-kategoria bakoitzean, betiere LAG hauetan oro har araututakoa eta dagokion lurralde-eremuk baldintza bereziak kontuan hartuta.

Gainera, antolamendu-kategoriekin batera, baldintzatzaile gainjarri batzuk zehazten dira, zeintzuk ingurune fisikoaren antolamendu-kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera-erregimena mugatzen edo baldintzatzen duten.

Arrisku naturalei eta klima-alaketari buruzkoak ondorengoak dira:

- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Arrisku geologikoak.
- Uholde-arriskua.
- Klima-alaketari lotutako arriskuak.

Azpiegitura berdea:

- Hidrografia sarea: ur-ibilguak, hezeguneak, itsasadarra.
- Ingurune baloreengatik babestutako eremuak: Aralar Parke Naturala eta Kontserbazio bereziko eremua.

- Natura interesko beste eremu batzuk.
- Korridore ekologikoak.

LAGek ingurune fisikoan zuzenean aplikatzeko zehaztapen lotesle hauek ezartzen dituzte:

- Hirigintza-plangintzak, lurzoru urbanizaezinaren erregulazioan, kategorien eta gainjarritako baldintzen mugaketa egokituko du, bai eta lurralde-plangintzan ezarritako erabilera-araubidea ere; eta kategoria, baldintza eta erabilera-erregimen horiek egokitu ahal izango ditu, udalerrri bakoitzaren berezko baldintzetara eta lan-eskalara egokitzeko. Nolanahi ere, kategoria horien eta erabilera-erregimenaren azken mugaketa hirigintza-plangintzaren berezko zeregina da.
- LAGetan adierazitako antolamendu-kategoriez gain, hirigintza-plangintzak bere udalerrrian egon daitezkeen sistema orokorrak eta landa-guneak kalifikatuko ditu, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen esparruan araututakoaren arabera.

Azpiegitura berdearen eta ekosistema-zerbitzuen arloko gidalerroei dagokienez, hirigintza-plangintzaren kasuan, honako irizpide hauek bete beharko dira:

- Tokiko azpiegitura berdea sortzea, eremu funtzionaleko eta EAEkoarekin lotuz.
- Tokiko azpiegitura berdearen zatitzat hartzea sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak, eta, aukeran, tokiko sistemak, espazio libreak eta berdeguneak.
- Eremu babestu bakoitza bere ingurumen-balioen, korridore ekologikoen eta bere lurraldean eragina duten funtzio anitzeko beste espazio batzuen arabera mugatzea, erregulazio egokia ezarritik.

Gainera, LAGek beste zehaztapen batzuk ere ezartzen dituzte, Lurraldeko Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak idazteko erreferentzia direnak. Ildo horretatik, 5. artikuluan Eremu Funtzionalak (EF) EAEren eta udalerrien arteko tarteko plangintza-eskala gisa mugatzen dira. Baliarrain, Gipuzkoako beste 28 udalerrirekin batera Tolosako (Tolosaldea) EF-ren barruan dago.

Bestalde, LAGek gidalerroak ezartzen dituzte hiri-birgaitzearen, hiri-hazkundearen, jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren eta bizitegi-kuantifikazioaren arloetan, besteak beste. Horietan lehenesten dira, oro har, hiri-birgaitzea, eremu urbanizatuen identifikazioa eta eremu degradatu edo gutxiegi erabiliak berrerabiltzea, lurzoruaren okupazio berrien alternatiba gisa.

Aipatutako zehaztapen, irizpide eta orientabide orokorrez gain, LAGek ez dute beste gidalerro espezifikorik proposatzen Baliarrainerako.

5.2 TOLOSAKO (TOLOSALDEA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN PARTZIALA

Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (LPP aurrerantzean) maiatzaren 19ko 64/2020 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen¹².

LPP-an definitutako Lurralde Eredua Eremu Funtzionalako lurralde-antolamenduaren oinarritzat hartuko diren funtsezko helburu orokorren eta estrategien definizioan oinarritzen da, eredu hori egituratzen duten osagaiei dagokienez (ingurune fisikoa, kokalekuak eta harreman sistema). Era berean, aipatutako eredua hirigintza-

¹² 64/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea).

antolamenduak jarraitu beharko dituen irizpide, printzipio, arau orokor eta proposamen zehatzen ezarpenean ere oinarritzen da.

Aipatutako Lurralde Ereduaren oinarrietako bat da ingurune naturala babestea eta nabarmentzea, ingurune fisikoa antolatuta. Behin udal plangintzaren garapena bideratuko duten irizpide, printzipio eta ildo orokorrak finkatuta, Planak «Babestu, Hobetu edo Berreskuratu beharreko Eremurik Garrantzitsuenak» definitzen ditu, bai eta Ingurune Fisikoaren kategorizazio orokorra ere. Era berean, «Intereseko Eremu» singularizatu bakoitzeko erabilera eta jardueren aplikazio- eta erregulazio-erregimena zehazten du, eta horien inguruko zenbait jarduera-proposamen planteatzen ditu, jarduera-neurri positibo gisa.


Aldi berean, LPP-ak ekipamendu eta espazio libreak antolatzeko irizpideak ezartzen ditu, eta mugikortasun jasangarria bermatzeko proposamenak zehazten ditu. Gainera, jarduera ekonomikoetarako estrategiak zehazten ditu.

Horrez gain, etxebizitzari dagokionez, egungo hiri-ehunen aprobetxamendua lehenesten du, hirigintzako biziberritze- eta birmoldaketa-prozesuak sustatuz lurzoru berriak okupatu orde.

Baliarraingo udalerriaren kasuan zehaztapen hauek egiten ditu:

1. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA


- Udalerrian babestu, hobetu edota leheneratu beharreko eremuak antolatzea, LPParen zehaztapenei jarraiki.
 - Ekosistemak hobetzeko eremuak: kokapen topografiko berezietan dauden baso naturalak: Iturrimotxako erreka eskuineko mazelako basoa, eta iparraldean Okotserreka eta Esnaolako azpiarroetako baso naturalak.
 - Kontserbatu behar diren baso eremuak: lur labainkor edo higadura-arriskua duten eremuetan daudenak. Gaintzabaso erreka azpiarroko hegoaldeko basoak.



23. Irudia

LPP-ko "O.1.1 Ingurune Fisikoaren Antolamendua. Babestu, hobetu eta/edo leheneratu beharreko garrantzi handiagoko eremuak" planoa, Baliarraingo udalerrian.


- Ingurune fisikoa antolatzeko kategoriak bere baldintza, ezaugarri, potentzialtasun eta harrera-ahaltenaren arabera definitzea eta arautzea, LPPan edota LAGetan ezarritako irizpideei jarraikiz.



24. Irudia LPP-ko “O.1.2 Ingurune Fisikoaren Antolamendua. Antolamendu kategoriak eta beste erreferentzia batzuk” planoa, Baliarraingo udalerrian.

2. ZERBITZU AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA

- LPP honek barnean hartutako arloko planak eta proiektuak gauzatzeko beharrezko erreserbak.



25. Irudia LPP-ko “O2.2 Zerbitzuen oinarritzko azpiegiturak” planoa, Baliarraingo udalerrian.


3. BIZITEGITARAKO ASENTAMENDUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Landa eremuetako herriguneak babestea.

LPPak udalerriak kategorizatzen ditu, populazio-tamainaren, zerbitzu-eskaintzaren eta eskualde-adierazgarritasunaren arabera. Baliarrain hirugarren mailan sartzen du, landa eremuetako gainerako herriguneekin batera. LPPk eremu funtzionaleko biztanleriaren banaketa orekatuagoa eta, ondorioz, landa-eremuetako baldintzak hobetzea, eremu urbanizatuenean ordeko bizitegi-eskaintza baten bidez, dentsitate eta intentsitate txikiko hazkundeekin, biztanleriaren tamainara eta dauden azpiegitura- eta zuzkidura-mailetara egokituta.

4. EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDU ETA POLITIKA

- Ekipamenduak eta espazio libreak landa zonetan eta ingurune naturalean: Oinezkoentzako ibilbide eta zirkuituak.



26. Irudia

LPP-ko "O.4. Udalez gaindiko ekipamendu eta espazio libreen sistemak"

Baliarraingo HAPO berriak Tolosako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Plan Partzialak ezarritako irizpideak beteko ditu eta beraz, bateragarria izango da.

5.3 LURRALDE PLAN SEKTORIALAK

5.3.1 EAEKO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LPS

Nekazaritza eta Basozaintzako LAPak behin-betiko onespina dauka 2014ko irailaz geroztik (irailaren 16ko 177/2014 Dekretua) eta lurzoru hiritarrezinaren nekazaritza eta basogintza erabilerak erregulatzen ditu, LAGean oinarritutako antolamendu kategoria eta baldintzatzaile gainjarri jakin batzuk ezarriz.

Hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarriak LAP honen antolamendutik kanpo geratzen dira, eta Europako Natura 2000 Sarea osatzen duten eremuetan eta Ibai eta Erreken LAPak xehetasunez antolatutako ur-ibilguen ertzetan, LAP honek dagokien araudiak ezarritakoa bereganatuko du.

LPS honek Baliarraingo udalerrri ia osoa (%98) arautzen du, hiru antolamendu kategoria bereizten dituelarik "Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia" (97,67 ha), "Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua" (42,81 ha) eta "Basoa" (130,03 ha).


Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoriako lurretan irizpidea lurzoruen gaitasun agrologikoa mantentzea izango da: *“Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta haiekin osagarri diren eta nekazaritza-paisaiak eta ekosistemak zaintzen direla bermatzen duten gainerako erabilerak mantenduko dira. Arau orokorra nekazaritzako azalera erabilgarria mantentzea izango da”*. Balio estrategiko handiko azpikategorian *“gaitasun agrologiko handiagoko lurzorua eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo jasagarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiaguneetako lurrak”* sartzen dira eta *“mantentzea eta gordetzea lehentasuna da, bestelako erabileren aurrean”*.

Basogintza kategorian *“Beren egungo erabileragatik eta, batzuetan, erabilera-bokazioaren arrazoiengatik (arriskuak, arroen babesa, eta abar) zuhaitz-estaldura izateko bokazio argia daukaten lurrak sartzen dira”* eta arautzen duten irizpideak Basozaintzako Plan Estrategikoa dokumentuan (1994-2030) azaltzen dira eta aplikatu beharreko araudi sektoriala, hau da, Mendiei buruzko foru-arauak, kontuan hartuko dira. Nolanahi ere, *“Basozaintza-erabilerak lehentasuna izan behar du Basoa kategoriako eremuetan, eremu horiek dutelako potentzialtasunik handiena horretarako, eta haietan basozaintzako produktibitatea eta basoei lotutako gizarte, babes- eta ingurumen-kanpokotasunak metatu ahal direlako. Zona horietan, baso-masak hobetzeko inbertsioak areagotuko dira: besteak beste, bide-sarea sortzea, suteen aurkako borroka edo basoen tratamenduak. Oro har, finkatutako baso autoktonoak dauden eremuetan, natura kontserbatzeko irizpideak aplikatuko dira, aipatu erabilerak jarrai dezan parametroak erabiliz”*.

Udal-plangintzari dagokionean Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-k honakoa zehazten du:

- a) *“Udal-plangintzak jasotako Lurzoru Ez Urbanizagarria kategoriak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak proposatutako antolamendu-kategoriak oinarri gisa hartuko ditu, eta, hala egokituz gero, mugaketa udal-errealitate eta -eskalara egokituko du.*
- b) *Balio Estrategiko Handiko azpikategoriaren mugaketa loteslea izango da. Gainerako mugaketak orientagarriak dira, eta udal-plangintzak aldatu ahal izango ditu, justifikatuta”*.

Gainera, Baliarraingo lurretan “eremu higagarriak” baldintzatzaile gainjarria adierazten da, udalerriko ipar-ekialdeko muga.




27. Irudia Nekazaritza eta Basogintzarako LPS-ko kategoriak Baliarraingo udalerrian.

5.3.2 EAEKO IBIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LPS

Ibai eta erreken ertzak antolatzeke LPS isurialde kantaurreari dagokionez abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin betiko onarpena, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatua izan delarik. Antolamendu esparrua, Kantaurre isurialdeko eremuan, ur-ibilguen bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoruzerrendek osatzen dute, iturburutik bokaleraino.

LPS honek antolamendu arauak ezartzen ditu hiru osagitan oinarrituta: ingurumen, hidrauliko eta hirigintza arloko osagaiak.

Ingurumen osagaiei dagokionez, Baliarrainen “landaretza egoera onean duten ertzak” soilik Gaintzabaso errekan identifikatu dira; horrek ez du esan nahi gainerako erreketako landaretzak egoera ona ez duenik, LPSaren kartografiak ez duela aztertu edo jaso baizik. Katetoria honen inguruan araudiak hurrengoa dio: “Ertz horietan gaur egun dagoen landaredia zaindu nahi da, ekosistema egoera klimazikotik hurbil dagoenean. Era berean, klimaxerantz bilakatu nahi da, esku-hartze birsortzaile bigunen bitartez. Edonola ere, landaredi baliotsuari eusteko ahalegina izango da.”



28. Irudia Ibai eta Erreken LPS: Ingurumen-osagaiaren arabera sailkatutako ertzak Baliarraingo udalerrian.

Osagai hidraulikoen arabera Baliarraingo ur ibilguak maila bakarrean sailkatzen dira, 00. maila, <1 km²-ko isuri-arroak duten ibai-tarteei dagokiena; Gaintzabaso erreka azken tarteari, aldiz, 0. maila dauka, 1 eta 10 Km² bitarteko isurialdea dagokiolako.

Era berean, hirigintza osagaiaren arabera Baliarrainen “Landa-eremuko ertzak” identifikatu dira. 0.mailako ur-ibilguentzarako, 15m-takoa da gutxieneko erretiroa. Gainerakoentza Uren Legeak ezartzen duen gutxieneko erretiroa, 5 m.

Urtegiari dagokionez, LPS-k araudi espezifikoa bat zehazten du: C3. *Hornidura-urtegiak, lakuak eta aintzirak eta ur-bilketak babesteko araudia.*

“Dagokion Babes Perimetroaren Proiektua edo Antolamendu Plan Berezia onartzen den bitartean, subsidiarikoki, urtegien babes-eremu gisa 200 m-ko zabalerako zerrenda perimetral bat ezartzen da, urtegiaren maila normal handienari dagokion lerrotik neurtuta, presatik ibaian gora eta arro isurkari propioaren barruan; erabileren erregulazioa Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zehaztutako sistematikaren eta definizioaren arabera izango da”.

5.3.3 EAEKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LPS

LPS honek behin-betiko onespina jaso zuen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bitartez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatu eta adierazitako jarduketan kuantifikazioa eta bete-beharreko ezaugarriak zehazteko xedearekin. 2018aren urtarrilean berrikuspen partzialaren aurrerapena argitara eman da.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, LPS honek Baliarrain “Garapen txikiko udalerri” gisa sailkatzen du, eta Saltoki handien arautzeari dagokionez, Baliarrain C kategoriako udalerrien artean sartzen du, proposamen hau egiten duelarik: 15.000 m²-ko azalerako gehienezko plataforma zelaitua eta eraikitako sabai-azalera 5.000 m²-koa gehienez.

LPSeko zenbait zehaztapen, merkataritza-gune handietarako gehieneko azalera mugatzen dutenak, judizialki balio gabetu ziren Auzitegi Gorenaren 2015eko irailaren 3ko epaiaren bidez. Ondoren, Merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzko *ekainaren 27ko 10/2019 Legea* onartu zen.

5.4 GAINONTZEKO PLAN SEKTORIALAK

5.4.1 EAEKO TRENBIDE-SAREAREN LPS

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartua, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan trenbide sare osoa ezarri eta garatzeko jarduketak zehazten ditu, Baliarraingo udalerria sare honen kanpo geratzen delarik.

5.4.2 EAEKO ENERGIA EOLIKOA ANTOLATZEKO LPS

Maiatzaren 15eko 104/2002 Dekretuaren bitartez onartua, Baliarrainen ez du inolako eraginik.

5.4.3 EAEKO HEZEGUNEEN LPS

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bitartez onartua. Udalerrian ez da LPS honek identifikatu eta babestutako inolako hezegunik.

5.4.4 EAEKO KOSTALDEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO LPS

Martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez onartua, Baliarrainen ez du inolako eraginik.

5.4.5 GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN LPS

Ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauaren bitartez onartua, Gipuzkoako hirigune nagusiak uztartuko dituen 439 km-ko bizikleta-bideen sarea proposatzen du, Baliarrain Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sare honetatik kanpo utziz.

5.4.6 GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINEN AZPIEGITURETAKO LPS

Hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegiturei dagokienez, Gipuzkoako Hiri Hondakin Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala (2009) aldatu egin da apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez (2018ko Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa behin betiko onartzen duena). LPS honek ez du eraginik Baliarraingo udalerrian.

5.4.7 EAEKO ERREPIDEEN HIRUGARREN PLAN OROKORRA, 2017-2028


EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra, maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuaren bidez, 2017-2028 aldirako Plana onartzen da, Baliarraingo udalerria Plan honetatik kanpo aurkitzen delarik.

5.4.8 ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPS

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak 2024ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez behin-behineko onespena jaso zuen. LPS honen helburu nagusia da energia berriztagarriak ezartzeko plangintza egitea, EAEn energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa handitzeko. Hala, lurraldearen ezaugarriak aztertu ondoren,

energia berriztagarriak kokatzeko bazterketa-eremuak zehazten ditu, ingurumen- eta antolamendu-irizpideen arabera, bai eta horien kokapenik onenak ere.

Baliarraingo udalerriri dagokionez, baztertutako eremutzat jotzen ditu herrigunearen ingurua energia fotonvoltaikorako (500 m-ko erradioko eremua), eta herrigunea eta urtegiaren ingurua energia eolikorako.



29. Irudia Energia berriztagarrien LPS: Baztertutako eremuak.

Energia eolikorako gaitasunari dagokionez, udalerraren hego-mendebaldeak gaitasun txikia edo oso txikia du; iparmendebaldean, berriz, gaitasun oso baxua, baxua edo ertaina duten eremuak daude, baina ez du identifikatzen energia eolikorako espazio egokirik, eta ez da eremurik kokatzen hautatutako kokapen-eremu gisa proposatutako eremuen artean.

Energia fotonvoltaikoari dagokionez, gaitasuna are txikiagoa da, eta ia udalerr osoa, bazterketa-eremuez gain, gaitasun txikiko edo oso txikiko eremuetan banatzen da.

Horrekin lotuta, nabarmendu daiteke Eusko Jaurlaritzak 2021ean ingurumen zonifikazio proposamen bat argitaratu zuela parke eolikoek eta fotonvoltaikoek sortutako inpaktuekin lotuta, LAPEko tresna bat izan daitekeena, energia berriztagarri horiek kokatzeko eremu sentikorrenak identifikatuz. Tresna hori GeoEuskadi plataforman ikus daiteke. Plataforma horren arabera, Baliarrain energia berriztagarri horiekiko sentsibilitate ertain eta oso handiko lurraldea da, batez ere lehen aipatutako bazterketa-eremuen inguruan.

5.5 BESTE PLAN ETA PROGRAMAK

5.5.1 KANTAUARI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOA 2022-2027

Urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren bidez behin betiko onartuta, 2000/60/EE Zuzentaraua aplikatzeko tresna da, Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ) izenez ezagutzen dena, eta 62/2003 Legearen bidez Espainiako

araudira ekarri zena. Dokumentuak Estatuko Administrazio Orokorrak Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bidez eta, bestetik, EAEk Uraren Euskal Agentziaren (URA) bidez egindako plan hidrologikoak biltzen ditu.

Plan honek bere esparruan sartzen diren ur masen eta hauekin loturiko eremuen babesaren sustatzea du helburu, beste batzuen artean, ur-erabilerak, babestutako eremuak, edota uholde arriskuaren kontrako neurriak ezarritik.

Zentzu honetan, Baliarraingo udalerriaren barruan babestutako eremu bakarra aurkitzen da; Ibiurko urtegia (T-20904-001) "Hornidurarako biltzeko ur-azaleko eremuak" kategoriaren barruan aurkitzen dena.

Aipatutako Plan hidrologikoaren araudiak, bere 16. *Babestutako eremuak eta babes erregimena* artikuluan hurrengoa aipatzen du:

1) *Gizakien kontsumorako ura ekoizteko ur-hartune gisa erabiltzen diren eremuak edo masak*

a) *Egunero gutxienez 10 m³ -ko batez besteko bolumena ematen duten edo 50 pertsona baino gehiago hornitzen dituzten ur-masak sartzen dira, eta kasua bada, mugatutako babes-perimetroak. Administrazio Hidraulikoak Erregistroan ura ateratzeko erabiltzen diren eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten beste eremu batzuk ere sartu ahalko ditu, modu arrazoituan, beren ezaugarrien arabera.*

b) *Giza kontsumorako hartune guztiek, 7.1 eta 7.2 eranskinetan adierazitako Eremu Babestuen Erregistroko masetan sartuta badaude, dagokien babes-perimetroa izan beharko dute. Bertan, babestu beharreko eremuak eta kontrol-neurriak zehaztuko dira, eta lurzorua erabilerak eta horietan garatu beharreko jarduerak arautuko dira, hartuneetako uraren kantitatearen eta kalitatearen gaineko eraginak saihesteko. (...).*

f) *Eremu babestuetarako b) letran aipatzen den babes-perimetroa mugatzen ez den bitartean, babes-eremu bat ezartzen da. Bertan, Administrazio Hidraulikoak eskatu ahal izango du jarduerak bilketa babestuan dituen ondorioen ebaluazioa aurkezteko, bereziki uren kalitateari eta emariari dagokienez. Babes-eremuak erradio finkoko azalera zirkular bat izango du lurpeko hartuneen inguruan, eta, gainazaleko hartuneen kasuan, iturburuak zein ibilguak, isurialdeko arroaren gaineko erradio finkoko arku batez mugatutako azalera bat: 500 m 15.000 biztanletik gorako hornidura-sistemen bilketetan.*

(...) Urtegiako hartuneen kasuan, babestutako eremua urtegi bera eta babes-eremuari dagokion lur-zerrenda osatzen dute.

5.5.2 GARAPEN IRAUNKORRAREN EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIA 2002-2020 ETA EKO-EUSKADI 2020¹³

2011n onartua, EkoEuskadi 2020 EAerako Garapen Jasangarriko Estrategia da 2020rako. Estrategiak 9 helburu estrategiko finkatu zituen. Horietako bat, 4.a. Gure baliabide naturalak eta biodibertsitatea mantentzea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta modu orekatuan antolatuz, HAPOrekin harreman zuzena du. Horren barruan, jarduera-ildo hauek proposatzen dira:

- *Hiri trinkoaren eredia bultzatzea.*

- *Ekosistemen eta baliabide naturalen gaineko presioa murriztea eta baliabide naturalen kalitatea hobetzea (lurzorua, ura, airea, paisaia).*

- *Lurraldearen eta bertako biztanleen natura-balioak babestuko dituen landa-garapen integrala sustatzea.*

¹³Garapen iraunkorra. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Gaur egun, estrategia hori berrikusteko eta eguneratzeko fasean dago.

5.5.3 EAEko INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorraren 6. artikuluan ezartzen zenez, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa (IEP) batean islatuko da, eta programa hori ingurumen-organoak egingo du lau urtean behin.

IV Ingurumen Esparru Programak, denbora muga gisa 2020 urtea ezartzen zuenak, helburu eta ekintza zehatz batzuk definitu zituen Euskadiko baliabide naturalak babestu, eta kontserbatzeko. Gaur egun V. IEPa dago indarrean, zeinak 2030 urtea ezartzen duen denbora-muga gisa, eta aurreko programetan ezarritako helburu eta erronketatik abiatuz, ingurumenaren inguruko problematika landuko duten 8 proiektu definitzen ditu.

Horien artean, Udal plangintzarekin 2. proiektuak “Lurraldearen kohesio jasangarria” du erlazio zuzena, zeinaren bidez arlo publikoko eta pribatuko erakundeek elkarlanean jarduteko sistema bat sortu nahi da, lurraldearen funtzioaniztasuna mantendu eta sustatzeko.

5.5.4 BASQUE COUNTRY 2030 AGENDA

Euskadi Basque Country 2030 Agendak XI. legegintzaldiko gobernu-programak eta hura garatzen duten politika sektorialeak 17 Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lotutako helburuekin eta xedeekin duten lerrokatze-eta ekarpen-maila islatzen du.

Euskadiko Agendak Nazio Batuen Gobernu Programa eta 2030 Agenda lotzen ditu, eta batez ere, Eusko Jaurlaritzak jarduteko gaitasuna duen gaitetan eta konpromisoetan oinarritzen da. Honela 15 herri-helburu ezartzen dira, 15 plan estrategikoren, 54 plan sektorialen, 28 legegintza-ekimenen eta 175 konpromisoren inguruan egituratzen direnak, eta EAE mailan garatuko direnak.

Era berean, Euskadi Basque Country 2030 Agenda udalerrri mailara eramateko Tokiko 2030 Agenden garapena bultzatzen da, udalerrriaren plan estrategikoa aurrekoarekin lotuz eta hau GJHetan oinarrituz.

5.5.5 EUSKADIKO HIRI AGENDA – BULTZATU 2050

Bultzatu 2050 Hiri Agendaren helburua da Euskadi nazioarteko ahaleginekin bultzatzea, horrela Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzen lagunduz.

Agenda hori Hiri Agenda Berriarekin (Habitataren Munduko Gailurra, 2016), Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta Europar Batasuneko Hiri Agendarekin bat dator. Eusko Jaurlaritzak jarduteko gaitasuna duen gaitetan eta konpromisoetan oinarritzen da nagusiki.

Agenda 11. GJHan oinarritzen da: Hiriak eta giza finkapenak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. Baina helburu globalez harago, Euskadiko Hiri Agenda bat dator Basque Country 2030 agendaren esparruko 11. GJHekin lotutako edukiekin. Zehazki, honako helburu hauek biltzen ditu:

- Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea
- Kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bultzatzea
- Euskararen erabilera sustatzea: euskara
- Larrialdien aurreko prebentzio- eta alerta-sistema eta herritarren autobabesa indartzea
- Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berrikuntza sustatzea

- Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea
- Garraio publiko jasangarri eta intermodala sustatzea.

Bultzatu 2050 bat dator Udalsareak emandako planen garapenarekin, tokiko eremuan GIHetan izango duen eraginaren erreferentzia-esparru gisa.

5.5.6 KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO 2050erako EUSKAL ESTRATEGIA

2013an, 2008-2012 aldirako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana amaitu eta ebaluatu ondoren, Klima Aldaketaren Estrategia egiten hasi ziren, isurketak arintzeko eta klima-aldaketa egokitzeko ibilbide-orri bat ezartzeko. 2015ean onartu zen Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia.

Estrategiak 2050erako Euskadiren Ikuspegia definitzen du, bost premisatan oinarrituta, eta horien aplikazioak ekarriko du ezarritako helburuak lortzea. Klima-aldaketa aurka ekintzari arintze- eta egokitze-ikuspegietatik heltzen zaionez, Estrategiak finkatzen dituen helburuak aipatutako bi alderdietan zentratzen dira.

Europa erreferentzia iraunkor gisa hartuta, Euskadik 2030ean berotegi-efektuko gasen isuriak gutxienez % 40 murrizteko helburua zehaztu du, eta 2050ean gutxienez % 80 murrizteko helburua, hori guztia 2005. urtearekin alderatuta. Berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko helburuekin batera, sektoreak energia-kontsumo eraginkorrago baterantz eta energia berriztagarrien azken kontsumoaren % 40ko gutxieneko kuotarantz bideratzea aurreikusten du, sektore kontsumitzaileen elektrifikaziorako pixkanakako eraldaketa bati lotuta. Beraz, Euskadik azken kontsumoaren % 40ko energia berriztagarria kontsumitzeko helburua finkatzen du 2050. urtean.

Aldi berean, beharrezkoa den egiturazko aldaketak lurralde- eta hiri-plangintzan ere aldaketak aurreikusten ditu, mugikortasun-premia txikiagoak dituzten eta emisio txikiak edo batere emisiorik ez duten garraio-moduen eskaintza nahikoa duten ereduak.

Klima-aldaketa Euskadin izango dituen eraginak eta Egokitzapenerako Europako Estrategiaren ildoari jarraituz, Euskal Estrategiaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea klima-aldaketa erresiliente dela ziurtatzea. Helburu hori lortzeko, toki- eta eskualde-mailan hartu beharko diren helburu eta jardun-ildo espezifikoak definitzen dira.

1. Karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea
2. Emisiorik gabeko garraio baterantz aurrera egitea
3. Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea
4. Natura ingurunearen erresilientzia handitzea
5. Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea
6. Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta zero isurpen lortzea trataerarik gabe
7. Arriskuei aurre hartzea
8. Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea
9. Euskal Administrazio Publikoa arduratsu, eredu eta erreferente da klima-aldaketa arloan

6 AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO INGURUMEN AZTERKETA

6.1 ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA

Atal honetan burutzen den alternatiben ingurumen-azterketa HAPO-aren aurrerakinak definitzen dituen esparru ezberdinek gaur egun aurkezen dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusietan oinarrituko da. Honela, alternatiba ezberdinen balorazioa egingo da, bakoitzak izango lituzkeen onura eta kalte potentzialak identifikatuz.

Aurreikusten diren hirigintza garapen eta antolaketa proposamen berriak kokatzen diren eremuen ezaugarriak kontuan harturik, ondorengo hauek izango lirateke beraien garapena baldintzatuko dituzten ingurumen-eragile nagusienak:

- Lurzoruaren okupazioa eta honen ahalmen agrologikoa: Eremu berriek okupatutako azalera kontuan hartzen da, kokapen horiek gaur egun duten erabilera aintzat hartuz. Gainera, aztertutako eremu batzuek ahalmen agrologiko handiko lurzoruetan kokatuko lirateke, lurzoru hauek galtzea ekarriko luketelarik. Alderdi hau baldintzatzailetzat jotzeko irizpidea Nekazaritza eta Basogintza LAP-ean 'Balio estrategiko altua' kategorian sailkatuta egotea izan da.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aztertutako eremuak lurrazaleko ur-ibilguren batek (ibai, erreka eta erreka) zeharkatzen dituen hartu da kontuan, eta aurreikusitako garapenak baldintzatuko dituzten edo ez aztertu da.
- Intereseko landaredia: Aztertutako eremuek interesa duten landaretza edo habitatak azaltzen dituzten aztertu da. Intereseko landaredizat jotzen dira, alde batetik 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean definituriko Batasunaren Intereseko Habitatak, eta bestetik Eskualde intereseko hostozabalen baso autoktonoak (artadiak, hariztiak, pagadiak, e.a.).
- Intereseko fauna: Baliarraingo udalerrian EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan dauden zenbait espezie aurki daitezke. Espezie horiek aztergai diren eremuetan duten presentzia baldintzatuta dago, besteak beste, eremuaren naturaltasunagatik, espezie horientzako habitat mesedegarrien presentziagatik eta haien konektibitate ekologikoagatik.
- Natura gune babestuak: Baliarraingo udalerrian ez dago legeak babestutako natura-gunerik edo beste babes-motaren bat duenik. Hala ere, EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen zati den Ernio-Gatzume Aralar-Izarraitz korridorea aurkitzen da. Orokorrean, garapen berriak aipatutako korridoretik kanpo kokatzen dira, beraz ez da eraginik aurreikusten.
- Paisaia: Zenbait esparrutan aurreikusten diren garapenek paisaiaren gainean eragina izan dezakete; eragin honen tamaina eremu horren paisaiaren egungo kalitatearen eta inguruko paisaiaren ezaugarrien arabera izango da.
- Kultur ondarea: Azterketa-eremuetan kultur ondareko elementuren bat egoteak bertan emango diren garapenak baldintzatuko lituzkeenez, garapen ezberdinetarako aurreikusten diren azterketa-eremuek duten kultur ondarea aztertuko da.
- Ingurumen-arriskuak: Kontuan hartu diren arrisku nagusiak honakoak dira:
 - Uholde-arriskua: Uraren Euskal Agentziak argitaratutako uholde-arriskuari buruzko mapen arabera, Baliarrainen ez da uholde arriskurik identifikatzen
 - Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Nabarmenezkoa da udalerrian ez dagoela akuiferoak kutsatzeko arrisku handia edo oso handia duen eremurik.

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: Baliarraingo udalerrian ez da "Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa"-n aipatutako lursailik identifikatu.
- Higadura jasateko arriskua: Nekazaritza eta Basogintza LAP-k azaltzen dituen higadura arriskua duten eremuak eta %50 gainditzen duten maldak kontuan hartuz, azterketa-eremuek jasan dezaketen higadura-arriskua baloratuko da, gerora ere aurreikusitako garapenak aurrera eramateko baldintzatzaile izango ote den zehazteko.
- Zarata: Baliarraingo udalerriko mapa akustikorik ezean, errepidearekiko esparruen hurbiltasuna baloratuko da.
- Sute-arriskua: Batez ere, eremuan eta inguruetan dagoen landarediak baldintzatzen du baso-suteen arriskua. Ildo horretan, aurreikusitako garapenak barne hartzen dituzten eremuek arrisku txikia dute. Beraz, ez da arriskua garrantzitsutzat jotzen garapen-aukera desberdinentzat.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: herrigunetik mugikortasunaren eta irisgarritasunaren beharraz ari gara, batez ere garapen berrietarako proposatutako eremuen garraio iraunkorrari dagokionez. Testuinguru horretan, proposatutako garapen eremuek Baliarraingo herrigunearekin oinezkoentzako edo bestelako komunikazio modu jasangarria izateko aukera duten aztertuko da.
- Klima-aldaketa: aurreikusitako garapenek udalerriak klima-aldaketa-aren aurrean duen arriskua eta kalteberatasuna areagotzen duten aztertzen da, bai eta klima-aldaketa-aren balizko ondorioek azterketa-eremuari eragin diezaioketen ere. Lurzoruaren artifizializazioa baloratzen da, besteak beste.
- Jasangarritasun energetikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera, hiri-antolamenduko plan orokorrekin jasangarritasun energetikoaren azterketa bat jaso beharko dute ingurumen-izapidetzean ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren barruan. Azterlan horrek honako alderdi hauek jasoko ditu:
 - a) Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa.
 - b) Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzearen ebaluazioa.
 - c) Mugikortasunaren azterketa, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabileraren alternatibak eta motorizatu gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza bultzatzeko politikak barne.
 - d) Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, espazio publiko bakoitzerako argiztapen-maila eta -denbora egokiak ebaluatzeak.

Azterlan hori hurrengo faseko ingurumen-azterketa estrategikoaren eranskin gisa sartuko da.

Jarraian, alternatiba bakoitzaren azterketa egiten da, eskema honi jarraituz:

- Alternatibaren eremuei eragiten dioten ingurumen-baldintzatzaileak: goian aipatutako ingurumen-aldagaien arabera.
- Hautabideen ingurumen-balorazioa: taula batean jasotzen da, aldagai bakoitzaren inpaktua honela adierazita:
 - "-": ez da eragin aipagarriarik aurreikusten.
 - "+": inpaktu positiboa aurreikusten da.
 - "bateragarria": eragina dago (negatiboa), baina txikia edo aringarria neurri zuzentzaileak hartzen badira.

- "neurrizkoa": aurreikusitako inpaktua (negatiboa) nabarmena da eta proposatutako garapenak nabarmen mugatuko lituzke.
- "larria": aurreikusitako eraginaren dimentsioa (negatiboa) larria da eta proposatutako garapenak zorrotz mugatuko lituzke.

+	Eragin positiboa
	Eragin bateragarria
	Eragin ertaina edo neurrizkoa
	Inpaktu larria

6.2 ALTERNATIBEN AZTERKETA

6.2.1 HIRI EREMUARI DAGOZKION ALTERNATIBAK

Ingurumen-ebaluazioa HAPO-aren aurrerakinak proposatzen dituen hautabideetan zentratuko da (1., 2., 3. eta 4. Alternatibak), horien artean eta egun indarrean dauden Arau Subsidiarioek (0. Alternatiba) planteatzen zutenarekin konparatuz. Beti ere, lurraldeak gaur egun duen ezaugarri eta baldintzatzaileei erreparatuz.

6.2.1.1 Ekialdeko eremua

- Lurzorua okupazioa eta ahalmen agrologikoa: herrigunearen ekialdeko mugaren ondoan kokatzen da, sarbide errepidearen (GI-3851) inguruan. Gaur egun aurki daitekeen eraikin bakarra Kantina-Txiki eraikina da. Gainontzeko eremua larrez estalita dago, labore batzuen salbuespenarekin. Basogintza eta Nekazaritza LPS-ren arabera, eremu hau Balio Estrategiko Altuko gunea kontsideratzen da. Orografiari erreparatuz, azterketa eremuak ez du malda gehiegirik aurkezten eta, beraz, eremuaren orografiak ez ditu garapen berriak baldintzatuko.
- Ur-ibilguak: Azterketa eremuan ez da inongo ur-ibilgurik antzeman. Hala ere, aurreikusitako jarduerak gauzatzeko, kontuan hartu beharko da ibilgu bat dagoela eremuaren iparraldeko mugatik 100 metro ingurura, eremuan egiten diren jardueren kalitatean eragina izan dezaketelako.
- Intereseko landaredia: eremuaren zati gehiena Batasunaren Intereseko Habitat bezala kartografiatuta dago, "6510 - Altitude txikiko sega-belardi pobreak (*Alipcurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)".
- Intereseko fauna: Eremua ez dator bat faunarentzako babes eremuekin, gainera eremuak ez du habitat egokirik EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan espezieak hartzeko, hortaz ez da uste espezie horiek bertan aurkituko direnik.
- Naturgune babestuak: Eremu hau ez dator bat babestutako eremuekin.
- Paisaia: Azterketa eremua partzialki okupatuta dago gaur egun, eta aurreikusitako garapenak eremu osoa urbanizatzea eragingo luke. Herrigunearen ondoan kokatzen denez, honen jarraipen gisa garatuko litzateke; beraz aurreikusitako garapenak bisualki integratzeko gaitasun handia du. Horregatik, paisaiaren kalteberatasuna txikia dela esan daiteke.
- Kultura ondarea: Azterketa eremuan ez da kultura-ondasun izendatutako elementurik aurkitzen.
- Ingurumen arriskuak:
 - Uholde-arriskua: Eremuak ez du uholde-arriskuaren ondoriozko arriskurik.

- Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Eremua akuiferoen urrakortasun nabarmenik gabeko eremua batean dago.
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: eremuan ez da kutsatuta egon daitezkeen lurzorurik identifikatu.
 - Higadura jasateko arriskua: eremuan ia maldarik ez dagoenez, arrisku hau ez da baldintzatzailetzat hartzen.
 - Zarata: GI-3851 errepidearen ondoan kokatzen da, beraz motordun ibilgailuen zarata nabarmena izango da eremu honetan.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunetik gertu dagoen eremua da, eta inguruak malda handirik ez duenez, motorrik gabeko joan-etorriak egiteko aukera ematen du.

20. Taula Ekialde eremuan garatu daitezkeen alternatiben azalerak

	0 Alternatiba	1 Alternatiba	2 Alternatiba	3 alternatiba	4 Alternatiba
Azalera (m ²)	0	2.573,36	3.440,23	3.440,23	5.703,30



30. Irudia Ekialde eremuan garatu daitezkeen alternatiben hedapena.

Hurrengo taulan alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak eta horien dimentsioa jasotzen dira. Horien ondorioak murriztu egin daitezke, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile egokiak hartuz gero.

21. Taula Ekialde eremuko alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba	4. Alternatiba
Lurzoruaren okupazioa	-	2.573,36	3.440,23	3.440,23	5.703,30
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	-	bateragarria	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaredia	-	bateragarria	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko fauna	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Kultur ondarea	-	-	-	-	-
Uholde-arriskua	-	-	-	-	-
Higadura arriskua	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria

6.2.1.2 Erdialdeko eremua

Eremu honetan indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitako a.10.15 bizitegi-lurzatia garatzea proposatzen da, eta HAPO-aren alternatiba guztietan garapen berdina proposatzen da. Lursailak 805 m²-ko azalera dauka.

- Lurzoruaren okupazioa eta ahalmen agrologikoa: Eremu hau 'Muino gain' kalearen iparraldean kokatzen da, Garate eraikinaren ekialdean. Gaur egun, biltegi modura erabiltzen den eraikin bat eta oilotegi bat aurki daiteke partzelaren mendebaldean. Ekialdean aldez, baratze bat aurki daiteke. Hiri-eremuan kokatzen denez, Basogintza eta Nekazaritza LPS-ak hartzen duen eremutik kanpo gelditzen da. Orografiari erreparatuz, azterketa eremua gunen nahiko lauean kokatzen da, beraz, orografiak ez ditu garapen berriak baldintzatuko.
- Ur-ibilguak: Azterketa eremuan ez da inongo ur-ibilgurik antzeman. Hala ere, aurreikusitako jarduerak gauzatzeko, kontuan hartu beharko da ibilgu bat dagoela eremuaren iparraldeko mugatik 50 metro ingurura, eremuan egiten diren jardueren kalitatean eragina izan dezaketelako.
- Intereseko landaredia: eremuaren iparraldeko muga Batasunaren Intereseko Habitat bezala kartografiatuta dago, "6510 - Altitude txikiko sega-belardi pobreak (*Alipecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)".
- Intereseko fauna: Eremua ez dator bat faunarentzako babes eremuekin, gainera eremuak ez du habitat egokirik EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan espezieak hartzeko, hortaz ez da uste espezie horiek bertan aurkituko direnik.
- Naturgune babestuak: Eremu hau ez dator bat babestutako eremuekin.
- Paisaia: Azterketa eremua okupatuta dago gaur egun, eta aurreikusitako garapenak eremu osoa urbanizatzea eragingo luke. Herrigunean kokatzen denez aurreikusitako garapenak bisualki integratzeko gaitasun handia izango du. Horregatik, paisaiaren kalteberatasuna txikia dela esan daiteke.
- Kultura ondarea: Azterketa eremuan eta bere ez da kultura-ondasun izendatutako elementurik aurkitzen.
- Ingurumen arriskuak:

- Uholde-arriskua: Eremuak ez du uholde-arriskuaren ondoriozko arriskurik.
 - Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Eremua akuiferoen urrakortasun nabarmenik gabeko eremua batean dago.
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: eremuan ez da kutsatuta egon daitezkeen lurzorurik identifikatu.
 - Higadura jasateko arriskua: eremuan ia maldarik ez dagoenez, arrisku hau ez da baldintzatzailetzat hartzen.
 - Zarata: herrigunean kokatzen da, beraz motordun ibilgailuen zarata nabarmena izango da eremu honetan.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunean bertan dagoen eremua da, eta inguruak malda handirik ez duenez, motorrik gabeko joan-etorriak egiteko aukera ematen du.



31. Irudia Erdialde eremua

22. Taula Erdialde eremuko alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.

Ingurumen eragina	0, 1, 2, 3, eta 4. Alternatiba
Lurzorua okupazioa	805 m ²
Lurzorua ahalmen agrologikoa	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	bateragarria
Intereseko landaredia	bateragarria
Intereseko fauna	bateragarria
Paisaia	bateragarria
Zarata	bateragarria

Ingurumen eragina	0, 1, 2, 3, eta 4. Alternatiba
Kultur ondarea	-
Uholde-arriskua	-
Higadura arriskua	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria
Klima aldaketa	bateragarria

6.2.1.3 Mendebaldeko eremua

- Lorzoruaren okupazioa eta ahalmen agrologikoa: eremu hau, Muñoa eraikinaren mendebaldean kokatutako lursailan aurkitzen da. Gaur egun larre eta zuhaitz ezberdinak aurkitzen dira (intxaurreondoak batez ere), eta mendebaldeko muturrean Mimendi eraikina aurkitzen da. Basogintza eta Nekazaritza LPS-ren arabera, eremu osoa Trantsizio landa paisaia kontsideratzen da. Orografiari erreparatuz, beheranzko malda antzeman daiteke ekialderantz eta iparralderantz.
- Ur-ibilguak: Azterketa eremuan ur-ibilgurik identifikatzen ez den arren, eremuaren iparraldeko mugan Iturrimotza erreka igarotzen da. Beraz, eremuan egiten diren jarduerak uren kalitatean eragina izan dezakete.
- Intereseko landaredia: Eremua partzialki Batasunaren Intereseko Habitat bezala kartografiatuta dago, "6510 - Altitude txikiko sega-belardi pobreak (*Alipecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)".
- Intereseko fauna: Eremua ez dator bat faunarentzako babes eremuekin, Baina eremuko landaretzak EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan agertzen diren espezieak hartu ditzake, hortaz espezie horiek bertan babes daitezke.
- Naturgune babestuak: Eremu hau ez dator bat babestutako eremuekin.
- Paisaia: Azterketa eremua partzialki okupatuta dago gaur egun, eta aurreikusitako garapenak eremu osoa urbanizatzea eragingo luke. Herrigunearen jarraipen gisa garatuko litzateke; beraz aurreikusitako garapenak bisualki integratzeko gaitasun handia du. Horregatik, paisaiaren kalteberatasuna txikia dela esan daiteke.
- Kultura ondarea: Azterketa eremuan eta bere ez da kultura-ondasun izendatutako elementurik aurkitzen.
- Ingurumen arriskuak:
 - o Uholde-arriskua: Eremuak ez du uholde-arriskuaren ondoriozko arriskurik.
 - o Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Eremua akuiferoen urrakortasun nabarmenik gabeko eremua batean dago.
 - o Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: eremuan ez da kutsatuta egon daitezkeen lurzorurik identifikatu.
 - o Higadura jasateko arriskua: eremuan ia maldarik ez dagoenez, arrisku hau ez da baldintzatzaileztat hartzen.
 - o Zarata: errepidearen ondoan kokatzen da, beraz motordun ibilgailueen zarata nabarmena izango da eremu honetan.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunetik gertu dagoen eremua da, eta inguruak malda handirik ez duenez, motorrik gabeko joan-etorriak egiteko aukera ematen du.

23. Taula Mendebalde eremuan garatu daitezkeen alternatiben azalerak

	0 Alternatiba	1 Alternatiba	2 Alternatiba	3 alternatiba	4 Alternatiba
Azalera (m ²)	0	1.398,19	3.063,60	9.510,34	9.510,34



32. Irudia Mendebalde eremuan garatu daitezkeen alternatiben hedapena.

Hurrengo taulan alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak eta horien dimentsioa jasotzen dira. Horien ondorioak murriztu egin daitezke, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile egokiak hartuz gero.

24. Taula Mendebalde eremuko alternatiben ingurumen-inpaktuen balorazioa.

Ingurumen eragina	0. Alternatiba	1. Alternatiba	2. Alternatiba	3. Alternatiba	4. Alternatiba
Lurzorua okupazioa	-	1.398,19	3.063,60	9.510,34	9.510,34
Lurzorua ahalmen agrologikoa	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko landaredia	-	bateragarria	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Intereseko fauna	-	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa
Paisaia	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Zarata	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Kultur ondarea	-	-	-	-	-
Uholde-arriskua	-	-	-	-	-
Higadura arriskua	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Klima aldaketa	-	bateragarria	bateragarria	bateragarria	bateragarria

6.2.2 LURZORU EZ URBANIZAGARRIARI DAGOZKION ALTERNATIBEN AZTERKETA

6.2.2.1 Lurzoru ez urbanizagarriaren zonakatzea

HAPOaren Aurrerakinak lurzoru urbanizaezinaren zonakatze globalerako bi proposamen egiten ditu. Zehazki, Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean zehaztutakoa eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak xedatutakoa. (ikusi **Errorea! Ez da erreferentzia-iturburua aurkitu.** atala).

Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak zehaztuko antolamenduari erreparatuz, aipatzekoa da udalerrri osoan ez dela “Babes bereziko kategorian sartutako eremurik identifikatu. Udalerrri ipar-mendebaldean, zein ekialdean kokatzen diren baso masa batzuk “ingurumen hobekuntza” kategorian sartzen dira. LPP-ak “*kokapen topografiko berezietan dauden baso naturalak*” jaso ditu, esaterako Iturrimotxako errekaen eskuineko mazelako basoa, eta iparraldean Okotserreka eta Esnaolako azpiarroetako baso naturalak. Egungo landaretza aztertuz, bertako basoak zein baso mistoak identifikatzen dira eremu horietan. LPP-aren arabera, gune horietan garatuko diren jarduerak ekosistema funtzional interesgarriak leheneratzea zuzenduko dira.

LPP-ak “Basoa” antolamendu kategorია bi azpikategoriatan bereizten du: “Baso-erabilera babeslea edo kontserbaziokoa” eta “Produkzioarako basoa”. “Baso-erabilera babeslea edo kontserbaziokoa” azpikategoria udalerrriaren hegoaldean kokatzen da, bertako basoak nagusitzen direneko eremuan. Bertan garatutako antolamendu irizpideak kontserbaziora bideratuta egongo dira beti. Bestalde, “Produkzioarako basoak” produkzio aprobetxamendurako xedatzen diren baso eremuak sartzen dira, eta irizpide nagusia masa hauen ekoizpen iraunkorra mantentzean oinarrituko da. LPP-aren kartografiak udalerrriaren ipar-ekialdean proposatzen du kategorია honen eremu bat. Gaur egungo landaretza eta LPP-ak kategorია honentzat egindako deskribapena alderatuz, ikusi da ez datozela guztiz bat. Izan ere, landatutako basoak (ustiapenera zuzendutakoak) udalerrri osoan zehar banatzen dira.

Nekazal ahalmen handieneko lurzoruak “Nekazaritza eta Abeltzaintza eremua eta landazabala” kategorian biltzen dira, aurretik definitutako kategorietatik eta bizitegi lurzorutik kanpo geratzen diren lurrak biltzen dira hain zuzen ere. Eremu funtzionalean, LPP-ak nekazaritzarako edota ingurumenerako duten interes handiko lurrak mugatu arren, ez du halakorik proposatu Baliarraingo udalerrrian.

Gainazaleko urei dagokienez, “Lur gaineko uren babesa” antolamendu kategorია definitzen du LPP-ak, bertan lur gaineko drainatze sare nagusia, errekek, ibilguak eta urbazterrak sartzeaz gain, ibai-ibilguetan sortzen diren ekosistemak eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko LPS-an arautzen diren babes-zerrendetako ekosistemak biltzen ditu. Eremu hauetan erabilerak, okupazioa eta ustiapena mugatu egingo dira, eta lehentasuna emango zaie birsortze jarduerari.

Baldintzatzaile gainjarriak erreparatuz, Baliarraingo udalerrrian “Eremu higagarriak”, “Korridore ekologikoen sarea” eta “Lotura-interes bereziko ibai-tarteak” identifikatzen dira. Eremu higagarriak udalerrriaren ipar-ekialdeko muturrean identifikatzen dira eta eremu honen irizpide orokorra zuhaitz estaldura mantentzea edo babestu beharreko elementutzat sailkatzea izango da.

Azkenik, Udalerrriaren ekialdeko aldean “korridore ekologikoen sarea” aurkitzen da, zehazki “Aralar-Ernio Gatzume-Izarraitz” lurreko korridorean. Horretaz gain, Ibiur ibaia “Lotura-interes bereziko ibai-tarte” bezala sailkatzen da. Eremu hauetan, lurralde-mailako konektagarritasuna hobetuko duten jarduerak sustatu behar dira, eta bertan egiten diren erabilerak eta jarduerak arautu behar dira, lurraldearen funtzionaltasuna bermatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak bi antolamendu kategoriatan sailkatzen ditu Baliarrain udalerriko lurrak: “Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabala” eta “Basoa”.

Nekazaritza-abeltzaintzako eta Landazabala kategoriak segabelardietarako eta mota guztietako laboreetarako erabiltzen diren lurak hartzen ditu. Gainera, bi azpikategoria bereizten ditu, “Trantsiziozko Landa Paisaia” eta “Balio Estrategiko Altua”. Azken azpikategoria hau, hiri-eremuaren ekialdeko mugan eta udalerrri erdialdean aurkitzen da. Beraz, eremu hauetako mantenua eta zaintza lehentasunezkoak izango dira, beste erabilaren aurrean.

“Basoa” kategoriak baso autoktonoak zein espezie aloktonoen landaketak biltzen ditu, haien arteko bereizmena egin gabe. Udalerrian azalera gehien hartzen duen kategoria da hau.

Bestalde, nahiz eta Nekazaritza eta Basogintzako LPS-aren kartografiak ez duen “azaleko uren babesa” kategoriarik islatzen, Nekazaritza eta Basogintzako LPS-ak, EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeako LPS-ak aholkatutako erretiro-mugak bereganatzen ditu.

Azkenik, LPS-ak, baldintzatzaile bakarra identifikatzen du Baliarrainen, zehazki, eremu higagarriak aurkitzen dira udalerrriaren ipar-ekialdean.

Plan Orokorraren lurzoru urbanizaezinaren zonakatze proposamenak Tolosaldeko LPP-ak ezarritako zonakatzea hartzen du oinarri bezala. Hortaz, antolamendu kategoriak berdinak edo oso antzerakoak izango dira.

Baldintzatzaile gainjarrirei erreparatuz, LPP-ak barne hartutako “Eremu higagarriak”, “gainazaleko uren babesa” eta “korridore ekologikoen sareaz” gain, HAPO-aren proposamenak “Ikus-arroak” gehitzen ditu.

25. Taula Lurzoru ez urbanizagarriko kategorien azalera. Alternatiben arteko konparaketa.

Kategoriak	Azpikategoriak	Tolosaldea LPP		HAPO		Basogintza- Nekazaritzako LPS	
Nekazaritza eta abeltzaintza eremua eta landazabala	Balio Estrategiko Altua	130,65		123,12		42,81	140,48
	Trantsiziozko Landa Paisaia					97,67	
Basoa	Baso erabilera babeslea edo kontserbaziokoa*	48,14	77,75	47,63	69,81	130,03	
	Produktzioarako basoa	29,61		22,18			
Ingurumen-hobekuntza**		58,67		53,39		-	

* HAPON “Kontserbatu behar diren baso eremuak” izendapena hartzen du.

* HAPON “Ekosistemak hobetzeko eremuak” izendapena hartzen du.

Ingurumen ikuspegitik honako alderdiak azpimarratu daitezke:

- Ez LPP-ak ezta LPS-ak ere ez dute babes bereziko eremurik izendatzen, nahiz eta aztertu den moduan udalerrian interes bereziko landaredia duten eremuak badiren, ondo kontserbatutako baso autoktonoen masak esaterako.
- LAG-etako zehazpenei jarraiki, HAPOren LUEn zonakatze-proposamenak ‘Gainazaleko uren babesa’ kategoria jaso beharko luke; zehazki, EAEko Ibai eta errekek antolatzeako LPS-ak agindutako osagai hidraulikoaren araberako erretiro-zerrendak kontuan harturik.
- Begi bistakoa da Tolosaldeko LPP-ak, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-ak baino antolamendu kategoria gehiago bereizten dituela Baliarraingo udalerrian. Alde batetik, LPP-ak “ingurumen hobekuntza” guneak identifikatzen ditu, eta basoak bi azpikategoriatan bereizten ditu erabileraren

arabera; gainera, “lur gaineko uren babesa” islatzen du bere kartografian. Aldiz, nekazal lurak kategoria bakarrean sailkatzen ditu.

- Nabarmentzekoa da LPP-ak basoen azpikategoriak definitzerakoan ez duela LPS-ak emandako aholkua jarraitzen. Izan ere, LPS-ak, bere antolamendu arauetan hurrengoa aipatzen du: *“Udal-plangintzak ahalegina egingo du Basoa kategoriaren barruan ez bereizteko «ekoizle/babesle» azpikategoriak «konifero/hostozabal» hitzen itzulpen moduan; izan ere, azpibanaketa artifiziala da, baso-masek, errealitatean, ekoizte- eta babeste-zeregin mistoa betetzen dutelako. Bestalde, gordetzeko interes handikoak diren bertako baso-masak udal-plangintzako babes bereziko kategorian babestu ahal izango dira, LAGetako xedapenen garapen gisa.”*
- Bestalde, Nekazaritza eta Basogintza LPS-ak, kategoria gutxiago definitu arren, nekazal lurak bi azpikategoriatan banatzen ditu “Balio Estrategiko Altuko” lurak bereiziz. Balio estrategiko handiko azpikategorian *“gaitasun agrologiko handiagoko lurzoruak eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo jasagarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiaguneetako lurak”* sartzen dira eta *“mantentzea eta gordetzea lehentasuna da, bestelako erabileren aurrean”*. Lur hauei, beraz, garrantzi berezia eman beharko zaie.
- LPS-aren araudiak lurzoru ez urbanizagarria zonakatzeko eta kartografiatzeko zehaztapen hauek jasotzen ditu:
 - *“Udal-plangintzak jasotako Lurzoru Ez Urbanizagarria kategoriak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak proposatutako antolamendu-kategoriak oinarri gisa hartuko ditu, eta, hala egokituz gero, mugaketa udal-errealitate eta -eskalara egokituko du.*
 - *Balio Estrategiko Handiko azpikategoriaren mugaketa loteslea izango da. Gainerako mugaketak orientagarriak dira, eta udal-plangintzak aldatu ahal izango ditu, justifikatuta”.*
- LPS-aren kartografiari erreparatuz, ikusi da LPSa onartu zenetik (2014) gaur egunera arte lurzoruaren erabilerak aldatzen joan direla eta horren adibiderik argiena Ibiur urtegia da, ez dela kartografian islatzen.

Beraz, orokorrean, nahiz eta HAPOk Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak zehaztuko antolamendua egokiagoa kontsideratu duen, izan ere, gaur egungo ezaugarrietara hobeto egokitzen dela argudiatuz, zenbait egokitzapen egitea beharrezkoa ikusten da, besteren artean honakoak; ondo kontserbatutako baso autoktonoak ‘Babes bereziko eremuak’ kategorian jasotzea, ‘Gainazaleko uren babesa’ kategoria kartografiatzea, eta LPS-ak definitutako “Balio Estrategiko Lurak” azpikategoria barneratzea.

7 NATURA 2000 SAREAREN GAINEKO ERAGINA

Baliarraingo udalerria Natura 2000 Sareko eremuetatik eta babestutako bestelako naturguneetatik kanpo gelditzen da.

Aipatzekoa da, udalerriko mugetatik gertu, iparraldean, ES2120005 Oria Garaia KBE Kontserbazio Bereziko Eremua aurkitzen dela.

Bestalde, EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Proiektuaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2005), Baliarraingo udalerrian bi elementu identifikatzen dira: Izarraitz, Ernio-Gatzume eta Aralar lotzen dituen “korridore ekologikoa”, udalerriaren ekialdean hedatzen dena, eta udalerriaren mendebaldean “indargetze eremu” bezala.

Gainera, Gipuzkoako azpiegitura berdearen kartografiaren arabera, Korridore ekologiko batek zeharkatzen du udalerria, hegoaldetik iparraldera udalerriaren mendebaldeko eremuak zeharkatuz. Gainera, Ibiur urtegia “biodibertsitate-erreserba” kategorian sartzen da.

Hori horrela, babestutako eremu horien konektibitatea mantentzeko helburuarekin, Baliarraingo udalerria zeharkatzen duten korridoreak lurzoru urbanizazineko kategorien baldintzatzaile gainjarri moduan jartzen dira.

Ildo horretan, nabarmendu behar da, Baliarraingo HAPO-ko aurrerapenak alternatiba desberdinetan jasotzen diren hiri-garapenak, egungo hiri-nukleoaren inguruan kokatzen direla eta ez diotela korridoreari eragiten.

Beraz, aurreko guztia kontuan izanik, esan daiteke Baliarraingo HAPOk ez duela eragin esanguratsurik izango Natura 2000 Sareko eremuetan, ezta bestelako naturgune babestuetan ere.

8 ERAGINDAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA HERRITAR INTERESDUNEN PROPOSAMENA

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duenez, hasierako dokumentazioa aurkeztean, aurretiazko kontsulta-aldi bat irekiko da. Horretarako, ingurumen-organoak kontsulta egingo die eragindako administrazio publikoei eta herritar interesatuei. Zeregin hori betetzeko, eragindako administrazio publikoen eta herritar interesatuen zerrenda hau proposatzen da:

26. Taula *Eragindako administrazio publikoak.*

Eragindako administrazio publikoak	
Eusko Jaurlaritza	Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza
	Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza
	Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza
	Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
	Kultura Ondarearen Zuzendaritza
	Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
	Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza
	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza
	IHOBE
	Energiaren Euskal Erakundea, EVE
	URA-Uraren Euskal Agentzia
Gipuzkoako Foru Aldundia	Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia
	Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia
	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia
	Kultura Zuzendaritza Nagusia
	Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia
	Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
Bestelakoak	Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa URA-Uraren Euskal Agentziaren bidez

27. Taula *Herritar edo elkarte interesatuak (211/2012 dekretuko 8.1.b artikulua).*

Herritar interesdunak	
Naturari lotuta lana egiten duten sektoreetako elkarteak	EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
	ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)
	Gipuzkoako Basogintza Elkartea
Naturaren babeserako sortutako elkarteak	Ekologistak Martxan Gipuzkoa
	Eguzki Talde Ekologista
	Landarlan Ingurumen Elkartea

Oiartzunen, 2025ko ekaina



Fdo.: Tomás Aranburu Calafel

Nekazaritzako Ingeniaritza
Teknikoan diplomatua



Fdo.: Leyre Arteaga Lucas

Ingurumen Zientzia Gradua



Fdo.: Alexandra Egunez Zalakain

Biologia Gradua
Biodibertsitate, funtzionamendu eta
Ekosistemen Kudeaketa Masterra

I. ERANSKINA: Planoak

Hasierako Dokumentu Estrategikoaren Planoak		
Zk.	Izenburua	Eskala
I.1	Kokapena	1:15.000
I.2	Maldak	1:10.000
I.3	Ahalmen agrologikoa	1:10.000
I.4	Hidrologia	1:10.000
I.5	Landaredia eta lurzoruen erabilerak	1:10.000
I.6	Interes bereziko landaredia	1:10.000
I.7	Intereseko fauna	1:10.000
I.8	Korridore ekologikoak	1:10.000
I.9	Azpiegitura berdea	1:10.000
I.10	Ingurumen Unitate Homogeneoak	1:10.000
O.1	1. Alternatiba	1:1.250
O.2	2. Alternatiba	1:1.250
O.3	3. Alternatiba	1:1.500
O.4	4. Alternatiba	1:1.500

II. ERANSKINA:

**Planen eta programen ebaluazio estrategikoa
egiteko prozedura arautzen duen
urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren
V. eranskina**

INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN ESKAERA

PLAN ETA PROGRAMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN
PROZEDURA ARAUTZEN DUEN URRIAREN 16KO 211/2012
DEKRETUAREN V. ERANSKINA

I. SARRERA ETA AURREKARIAK

I.1 AURREIKUSITAKO PLANAREN EDO PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Plan edo programaren titulua edo xedea

Izenburua

BALIARRAINGO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

Xedea

Baliarraingo udalerriko hirigintza-antolamenduak bete beharreko zehaztapenak finkatzea.

Indarrean dagoen esparru juridikoaren xedapenei jarraituz, dokumentu hau aipatutako plangintzaren atariko dokumentuetako bat da, zehazki aurrerapen-fasekoa, eta ezarri beharreko antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak aldez aurretik definitzea du helburu.

Tresna mota

Formulazioa

Tresna mota

HAPO < 7.000 biztanle

Antolamenduaren esparrua

☐ EAE

☐ Lurralde Historikoa

☐ Araba

☐ Bizkaia

☐ Gipuzkoa

☐ Eremu funtzionala (zehaztu): Haga clic o pulse aquí para escribir texto.

☒ Udalerria (zehaztu, hainbat udalaz gairikoa bada): Haga clic o pulse aquí para escribir texto.

☐ Beste batzuk (zehaztu): Haga clic o pulse aquí para escribir texto.

☐ Udalaz azpikoa (zehaztu):

Udalerria: Egin klik edo sakatu hemen testua idazteko.

Esparrua:

UTM koordenatuak (poligono sinplifikatu inguratzailerak):

Azalera:

Plangintzan sartutako gaiak:

☐ Nekazaritza

☐ Abeltzaintza

☐ Basogintza

☐ Akuikultura

☐ Arrantza

☐ Energia

☐ Meatzaritza

☐ Industria

☐ Garraioa

☐ Hondakinen kudeaketa

☐ Ur-baliabideen kudeaketa

☐ Jabari publiko hidraulikoa edo itsas-lehorrekoa okupatzea

☐ Telekomunikazioak

☐ Turismoa

☐ Lurraldearen antolamendua

☒ Hirigintza

☐ Beste batzuk:

- ☐ Biodibertsitatea
- ☐ Klima-aldaketa
- ☐ Informazioa eta parte-hartzea
- ☐ Beste batzuk (zehaztu): Haga clic o pulse aquí para escribir texto.

Planaren edo programaren beharra eta egokitasuna justifikatzea

Behin betiko dokumentua onartu zenetik 20 urte baino gehiago igaro dira eta gainera, dokumentuak berak Hirigintza Arau Orokorren 6. Artikuluan dokumentua berrikusteko aurreikusten dituen baldintza guztiak betetzen dira.

Plan edo programaren eskumenak legitimatzea

Udalari dagokio Hiriaren Antolamendurako Plan Orokorra egitea. HAPOa behin behineko onarpena Baliarraingo udalak emango dio eta behin betiko onartzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena da (Lurzoru eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, 90-91. artikulua).

Dekretu honen arabera ingurumen-ebaluazioa jasotzeko legezko kasua

II. eranskina.- Ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duten planak eta programak

Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie herri-administrazio batek onartu edo onartzen dituen plan eta programa hauei eta berrikuspenei, baldin eta plan eta programa horiek prestatzeko edo onartzeko legezko edo erregelamenduzko xedapen bat edo Gobernu Kontseiluaren erabakia behar bada.

- ☐ 1. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak
- ☐ 2. Lurralde Plan Partzialak.
- ☐ 3. Lurralde-plan sektorialak.
- ☒ 4. Hiri-antolamendurako plan orokorrak.
- ☐ 5. Sektorekatze-planak.
- ☐ 6. Beste plan eta programa batzuk, etorkizunean legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak baimentzeko esparrua direnean (...)
- ☐ 7. Beste plan eta programa batzuk, zuzenean edo zeharka, bakarrik edo beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera, eragin nabarmena izan dezaketenean natura-ondarea kontserbatzeko araudiaren arabera babestutako guneren batean edo babes-araubideren batean. (...)
- ☐ 8. II.B eranskinean jasotako beste plan eta programa batzuk, sustatzaileak eskatuta ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura bideratu ondoren ingurumen-organismoak hala erabakitzen duenean.
- ☐ 9. Edozein plan edo programaren berrikuspenak eta aldaketak, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua badira eta eranskin honetako 6. paragrafoan jasotako gairen bati buruzkoak badira, edo, eranskin honetako

7. paragrafoan jasotako guneren batean eragin nabarmena izan badezakete, paragrafo horretan zehaztutako baldintzetan.

Batera bildutako administrazio-eskumenak:

Organo sustatzailea:

BALIARRAINGO UDALA

Oinarritzko organoa edo behin betiko onartzeko arduraduna:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (GFA)

Ingurumen-organoa:

GFA-KO INGURUMEN ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

I.2. – Plan edo programaren aurrekariak

Tresna	Plan edo programaren behin betiko onartzeko data	Haren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azalpen laburra eta zehaztapen nagusiak (1.000 karaktere)
LAG	2019ko uztailaren 30	EAEko lurralde ereduaren ildo nagusiak, ongizaterako lurralde ekintzak ezartzen ditu eta baita hauek aplikatzeko erreferentziak ere, lurralde garapeneko arloetatik, aplikazio zuzeneko arauetaraino. Baliarrain Tolosaldeko Eremu Funtzionalean sartzen du.
Tolosako (Tolosaldea) Eremu Funtzionaleko LZP	2020 maiatzaren 19	LZP-k eremu funtzionalerako lurralde eredu bat proposatzen du. Hau garatzeko tresnen estrategiak eta programak eta Arloko Planak orientatzeko helburuarekin, eragiketa estrategikoak adierazten ditu.

I.3. – Aurreikusitako plan edo programaren izapideak.

Erreferentziako agiriaren eskaeraren aurretiko faseak azaltzea.

Administrazio-egintza	Data		Organo igorlea	Lotutako dokumentazioa (Arau-erref.)
	Hasiera	Amaiera		
Baliarraingo HAPO. Infomazio, analisi eta diagnostikoa	-	07/2024	Baliarraingo Udala	Ingurumen diagnostikoa

Erreferentziako agiria igorri osteko administrazio-egintzak, plan edo programaren izapideetan aurreikusita daudenak

Administrazio-egintza	Aurreikusitako data	Organo igorlea	Lotutako dokumentazioa (Arau-erref.)
Hasierako Onarpena		Baliarraingo Udala	Hasierako Onarpeneko Dokumentua + Ingurumen azterketa estategikoa (IAE)
Informazio publikoa		Baliarraingo Udala	Hasierako Onarpeneko Dokumentua.+ IAE
Alegazioak eta txostenak		Baliarraingo Udala	Hasierako Onarpeneko Dokumentua+ IAE
Ingurumen Inpaktuaren adierazpen eskaera		Baliarraingo Udala	Hasierako Onarpeneko Dokumentua eta IAE zuzenduak + alegazioak + txostenak + Ingurumen integratuaren laburpena
Ingurumen inpaktuaren adierazpena (IIA)		Gipuzkoako Foru Aldundia	Hasierako Onarpeneko Dokumentua eta IAE zuzenduak + alegazioak + txostenak + Ingurumen intergratuaren laburpena
Behin behineko onarpena		Baliarraingo Udala	Behin-behineko Onarpeneko Dokumentua + IIA-ren dokumentu integratua
EAELAB Txostenaren eskaera		Baliarraingo Udala	Behin-behineko Onarpeneko Dokumentua + IIA-ren dokumentu integratua
EAELAB Txostena		EAELAB (COTPV)	Behin-behineko Onarpeneko Dokumentua + IIA-ren dokumentu integratua
Behin betiko Onarpena		Gipuzkoako Foru Aldundia	HAPO espedientea

Plana edo programaren izapideetan zeharreko parte-hartze publikoaren azalpena

Esku hartzeko maila	Plan edo programaren izapideak egiteko fasea	Planaren edukia (Proposamen alternatiboak eta horien zabaltasuna)	Esku hartzeko epea
Kontsulta	Aurrerapena	Aurrerapen dokumentua + Hasierako dokumentua	Gutxienez 30 egun
Kontsulta	Hasierako onarpena	Hasierako onarpenerako dokumentua + Ingurumen azterketa estategikoa (IAE)	Gutxienez 45 egun

Esku hartzeko maila	Plan edo programaren izapideak egiteko fasea	Planaren edukia (Proposamen alternatiboak eta horien zabaltasuna)	Esku hartzeko epea
Informazioa	Behin betiko onarpena	Behin betiko onarpenerako dokumentua	Haga clic o pulse aquí para escribir texto.

I.4. – Plana edo programaren ondorengo garapen-tresnak

Tresna mota	Azalpen sintetikoa	Izapideen egoera	Ingurumen- ebaluaziopean jartzea (IEE edo IIE) (eginda edo aurreikusgarria)
Plan	Plan Partzialak oraindik definitu gabeko esparru hiritargarriaren antolaketa xehatua finkatzeko.	☒ Garapenik gabe (kasu orokorra) ☐ Aurrerapena ☐ Hasierako onespena, behin-behinekoa edo behin betikoa ☐ Beste batzuk (zehaztu)	Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa
Proiektuak	Urbanitzatzeko proiektuak definitu gabe oraindik.	☒ Garapenik gabe (kasu orokorra) ☐ Aurrerapena ☐ Hasierako onespena, behin-behinekoa edo behin betikoa ☐ Beste batzuk (zehaztu)	Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaketa egon daiteke

II. – Administrazio-esparrua. Erreferentziako ingurumen-helburuak eta -zehaztapenak identifikatzea

II.1. – Aplikatu beharreko lurralde- eta ingurumen-araudia.

Gaia	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak implementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Lurralde- eta hiri-antolamendua	4/1990 Legea	Lurralde antolamendua	LAG, LZP, LAP	EAE LAB-ren txostenak
Lurralde- eta hiri-antolamendua	2/2006 Legea Hirigintza eta lurzoruaren eta honen aldaketa 2/2014 Legea. 105/2008 Dekretua	Hirigintzaren antolamendua	Garapen jasangarria	GFaren onespena
Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea	9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa	Ingurumenaren babesa	Biodibertsitatea, jasangarritasuna.	Ingurumen txostena
Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea	21/2013 Legea	IEE prozedura	Garapen jasangarria	Ingurumen txostena
Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea	211/2012 Dekretua	IEE prozedura	Garapen jasangarria	Ingurumen txostena
Biodibertsitatea	1/2014 Legegintzako Dekretua	EAE-ko Naturaren kontserbazioa eta babesa	-Garapen jasangarria - Biodibertsitatea eta Naturaren babesa eta kontserbazioa	-Babestutako Natur gune izendatutako azalerak (Natura 2000 Sarean sartuta daudenak). -Mehatxatutako Espezieen Katalogoa. - Natura Baliabideak Antolatze Planak eta Erabilerak eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak.

Gaia	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak implementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Biodibertsitatea	42/2007	Biodibertsitatearen babesa	Blodibertsitatea, Eremu Natural Babestuak	Babestutako azalera
Bestelakoak	1/2016 Errege Dekretua	Plan Hidrologikoaren definizioa. ingurumen helburuak. Babestutako Zonen Erregistroa. Uholde arriskuaren aurrean kudeaketa plana.	Uraren Esparru Zuzentzailea y Uholdeen prebentziorako europako Direktiba.	URaren txostena
Bestelakoak	1/2006 Legea	Uraren jabari publikoaren babesa	Uren eta bere inguruaren babesa eta erabilera arautzen du	- Gune babestuen erregistroa - URaren txostena
Ondare historiko eta kulturala	7/1990 Legea	Euskal kultur ondarearen defentsa, babesa, zabaltzea, difusioa eta sustapena.	Ondarea integratzea	Ondarearen Katalogoa
Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea	213/2012 Dekretua	Zarataren aurkako babesa	Ebaluazio akustikoa	- Zarataren mapa estrategikoak - Inpaktu akustikoaren azterketa
Bestelakoak	903/2010 Errege Dekretua	Uholde arriskua dagoen eremuen kudeaketa	Prebentzio neurriak	URaren txostena
Biodibertsitatea	7/2006 Foru-araua	Gipuzkoako mendien hobekuntza eta kontserbazioa, bere aniztasuna eta ekoizpena bermatuz	Garapen jasangarria	
Biodibertsitatea	10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.	Ingurumenaren babesa	Ingurumen ebaluaketa	IEE prozedura

Gaia	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak implementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Bestelakoak	10/1998 Legea	Landa garapeneko jarduerak aurrera eramateko araudia, politikak eta tresnak ezartzea eta garapen hauek izan behar duten norabidea zehaztea.	Landa eremuaren eta euskal nekazaritzaren multifuntzionaltasuna eta jasangarritasuna bermatzea ekomonikoki, sozialki, kulturalki eta ingurumenari dagokionean.	Eragiten dien Administrazioei kontsultak: -Landaren eta Itsasertzaren Garapenako Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzan. -Landa garapena eta nekazaritzako Zuzendaritza Gipuzkoako Foru Aldundian.
Lurralde- eta hiri-antolamendua	7/2015 Errege Dekretu Legegilea	Hirigintza antolamendua. -Eraikuntza berria birgaitzearekin orekatzea, eraginkortasun energetikoa eraikitako parkean bultzatzea, eragozpenak ezabatzea eta sistema malgutzea.	EDL -ri lotutako eta erlazionatutako garapen irizpideak	Bere araudiaren aplikatzearen ondorioak
Lurralde- eta hiri-antolamendua	123/2012 Dekretua	Hirigintza antolamendua.	Hirigintzako Estandarrei buruzko irizpideak	-Eraikigarritasun min. eta max. -Partzelaren okupazio indizea. -Sistema orokorreko hornikuntza eta ekipamenduetara bideratutako lursailen erreserba estandarrak. - Babes publikoko erregimenen baten mende jarritako etxebizitzien kopurua eta estandarrak.

Gaia	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak implementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Klima-aldaketa eta energia- eraginkortasuna	2/2011 Legea	Hirigintza garapen jasangarritasun ekonomikoa	Garapen ekonomikoa, soziala eta ingurumena uztartzea.	Etxebizitza/eraikigarritasun berrien aurreikuspen indizea, existitzen diren ekipamendu eta hornikuntza lurrak kontuan izanik. -Populazioaren hazkuntzaren aurreikuspena eta honen eskaera uztartu. -Hiri eta eraikinen birgaitze operazioen proiektzioa. -Hiri-ingurunearen lurralde-hedapenaren kuantifikazioa. -HAPOen Bideragarritasun ekonomikoa.
Lurralde- eta hiri- antolamendua	8/2013 Legea	Eraikitako ondarearen eta hiri-ingurunearen birgaitzea, birsorkuntza eta berriztatzea. Jasangarritasuna	Jarduera ekonomikoa, ingurumen jasangarritasuna eta lurralde eredua eta eredu sozialaren kohesioa sustatzea.	Birgaitzea, birsorkuntza eta berriztatze operazioen proiektzioa. -Kaltetutako edo zailtasunak dituzten eremuen, edota birsorkuntza eta berriztatze prozesuak behar dituzten eremuen mapak.
Bestelakoak	1/2006 Foru Dekretu Araua	Errepideen erregulazioa	Errepideen eta bideen plangintza, finantzaketa, proiektu, eraikuntza, aldaketa, artapen, ustiaketa, erabilpen eta defentsarekin zerikusirik duen guztia eta haiek beren ingurunean ongi txertatzeari dagokiona.	GFaren onespina

Gaia	Araudia (Zerrenda)	Helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen-helburuen zerrenda)	Garapen-irizpideak (Helburuak implementatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburuen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)
Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea	4/2015 Legea	Lurzoruaren babesa, bere ezaugarri kimikoak alda ez daitezen gizakiaren eraginez	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan bete beharreko araudia	Kutsatutako lurzoruen eraldatuz hauen azalera murriztea.

II.2. – Plan edo programarekin zerikusia duten estrategiak eta planak, goragoko mailaren, antolatutako eremuaren edo planifikatutako gaiaren arabera, ingurumen-ebaluaziorako agiriak barne hartuta.

Tresnak (Zerrenda)	Egoera Administratiboa (Izapidetze- edo onarpen-egoera)	Zehaztapen nagusien eta haien ingurumen-ebaluazioen laburpena [[Hasierako agirian egindako analisiaren laburpena (500 karaktere/tresna)]]
EcoEuskadi 2020	Onartua 2011/07/05	9 helburu estrategiko zehazten ditu, hauen artean azpimarragarrienak: - Baliabide naturalak eta biodibertsitatea gordetzea lurraldearen eta azpiegitura, ekipamendu eta etxebizitzaren antolamendu errespetutsu eta orekatu baten bitartez. - Fosil jatorriko energiarenganako mendekotasuna gutxitzea eta aldaketa klimatikoaren eragina arintzea. - Mugikortasun integratuko eredu jasangarriagoa garatzea.
Ingurumenaren IV Esparru Programa 2020		Helburuak: Aire, ur eta lurzoru garbi eta osasuntsuak bermatzea, baliabide eta hondakinen kudeaketa arduratsua, natura eta biodibertsitatearen babesa, mugikortasun eta lurraldearen oreka, ingurumen aldagaia beste politika batzuetan sartzea, Klima aldaketaren eragina mugatzea. Erronka: Natura-biodibertsitatea, Energia-Klima aldaketa, osasuna-Ingurumena, Lurralde lehiakorra- baliabideen eraginkortasuna, Hezkuntza eta Gobernantza.
2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia	2015	Berotegi-efektuko gasen isurpena murriztea gutxienez %40 2030rako eta %80 2050rako, 2005eko datuekin alderatuta. 2050 energia berriztagarrien kontsumoa %40 izatea. Beste neurri batzuen artean, helburua lortzeko lurraldearen eta hirigintza plangintzan aldaketak proposatzen ditu, higikortasunaren behar gutxiagoko eredu eta emisio baxuak dituzten garraiobideetako eskaintza nahikoa ezarri.

Tresnak (Zerrenda)	Egoera Administratiboa (Izapidetze- edo onarpen-egoera)	Zehaztapen nagusien eta haien ingurumen-ebaluazioen laburpena [[Hasierako agirian egindako analisiaren laburpena (500 karaktere/tresna)]]
Ingurumen Esparru Programa	Onartua	EAEko III Ing. Esparru Programak (2011-2014) EcoEuskadi estrategiak identifikaturiko erronkak garatzen ditu eta 6 helburu estrategiko zehazten: 1) EAE-n berotegi efektuko gasen emisioak arintzea eta klima aldaketaren ondorioak murriztea; 2) Dibertsitate biologikoaren galera geraraztea; ekosistemak zaharberritzea eta lurzoruen artifizializazioa mugatzea; 3) Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea; 4) Inguru garbi eta osasungarria lortzea; ...
Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa	EAE 2007-2012	EAE-ko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren aurreproiektua.
Errepideen LAP	Behin-betiko onarpena 2020/05/19	EAEko Errepideen III. Plan Orokorra 2017-2028-ren helburuak lurralde mailakoak (eskualde batetik besterako irisgarritasuna hobetzea...), funtzionalak (errepide guztiek antzeko trazadura, sekzioa eta zola izatea; errepideen zerbitzu maila garraio eskariari egokitzea; bideetako segurtasuna hobetzea...) eta tresnen mailako helburuak (lurralde historikoek egin beharreko jarduketak koordinatu eta lehentasunak finkatzea...).
Biodibertsitate estrategia 2030 eta lehenengo ekintza plana 2020	2016	Helburuak: Ekosistemen babesa eta berriztapena, Natura 2000 Sarearen bultzada, Naturaren ezagutza eta kultura, lurraldearen eta naturaren kudeaketan eraginkortasuna.
KEMH Plan Hidrologikoa	35/2023 Errege Dekretua	Uraren Esparru Zuzentaraua aplikatzeko baliabidea da. Agiriak Estatuko Administrazio Orokorrek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez, alde batetik, eta EAEk Ur-Agentziaren bitartez, bestetik, idatzitako plan hidrologikoak batzen ditu.
Ibai eta Erreken LAP	Behin-betiko onarpena 2013/11/19	LAPk ur-ibilgu nagusiak ingurumen-, hirigintza- eta hidraulika-osaigaien arabera sailkatzen ditu eta tarte bakoitzeko hirigintza eta eraikuntza erretiroak ezartzen ditu. Urperagarritasun mailaren arabera lurzoruen erabilera irizpideak zehazten ditu.
Nekazaritza eta Basoen LAP	Behin-betiko onarpena 2014/09/16	Lurzoru hiritarrezinaren antolamendua, euskal landa-lurzoru funtzionantza baten bideragarritasuna bermatu eta eredu hau lurraldearen arloko erabakitze prozesuetara helarazteko bidea irekitzeko xedea duena.

Tresnak (Zerrenda)	Egoera Administratiboa (Izapidetze- edo onarpen-egoera)	Zehaztapen nagusien eta haien ingurumen-ebaluzioen laburpena [[Hasierako agirian egindako analisiaren laburpena (500 karaktere/tresna)]]
Jarduera Ekonomikoen Lurzoru Publikoa LAP	Behin-betiko onarpena 2004/12/21	Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatu eta adierazitako jarduketan kuantifikazioa eta bete- beharreko ezaugarriak zehazteko xedea du.

II.3. – Erreferentziako ingurumen-helburuak identifikatzea.

Tresnak (Zerrenda)	Identifikatutako ingurumen- helburuak (Ondoriozta daitezkeen ingurumen- helburuen zerrenda)	Haien aplikagarritasu naren justifikazioa [Testu sintetikoa (200 karaktere/helburu)]	Garapen- irizpideak (Helburu aplikagarri bakoitza garatzeko irizpideen zerrenda)	Adierazleak (Helburu aplikagarrien jarraipena egiteko adierazleen zerrenda)	Ezarritako edo proposatuta ko mugak [Helburu aplikagarriak bete direla jotzeko adierazleak hartu beharreko balioak (arrakasta- irizpidea)]
2030erako Euskadiko Ingurumen Esparru Programa (IEP): 2.HE	Biodibertsitatea	Dibertsitate biologikoaren galera geraraztea	Intereseke habitaten babesa	Azalera	Handitu
IEP: 2.HE	Biodibertsitatea	Ekosistemak zaharberritzea	Berreskurapena	Azalera	
IEP: 2.HE	Lurzorua	Artifizializazioa mugatzea	Dentsitatea	Azalera	Hautabideak balorazioa
IEP: 3.HE	Baliabideen erabilera	Erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea	Birgaikuntza	Azalera	
IEP: 4.HE	Inguru osasungarria	Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea	Berreskurapena	Azalera	Murritzitu

III. – Ebaluatu beharreko plan edo programaren laburpena

III.1. – Antolamenduaren lurralde-esparrua eta ezaugarri orokorrak

Azalpena

Baliarraingo udalerria Tolosaldeko eskualdean dago, Gipuzkoako lurralde historikoaren hego-ekialdean. Udalerriko mugaketari dagokionez, iparraldean Legorretarekin egiten du muga; Ekialdean, Orendain udalerriarekin; hegoaldean, Gaintza udalerriarekin; eta azkenik, mendebaldean, Altzagarekin.

Udalerria lur-eremu malkartsu batean aurkitzen da Aralarko mendiaren babesean. Iparraldean ere, Oria ibaiarekin topatzen da, eta azpiegitura aldetik elementu asko izan ez arren, nahiko esanguratsua den Ibiurreko urtegia aurkitzen da, 8hm3-ko edukiera duena.

Udalerraren egiturari dagokionez, herrigune txiki batek eta sakabanatutako baserriek osatzen dute. Herri gunea etxe eta eraikin multzo txikia da, herriko plaza eta parrokiaren inguruan. Horretaz gain, frontoia edo udaletxea bezalako udal-azpiegiturak aurkitzen dira.

III.2. – Plangintzarako proposatutako helburuen eta irizpide orokorren laburpena

Planaren funtsezko helburuak eta garapen-irizpideak

Helburua: Hirigintza iraunkorra

Garapen irizpideak: Ezaugarri nagusiak trinkotasuna, konplexutasuna, eraginkortasuna eta gizarte kohesioa izango dira.

Helburua: Baliarraingo hiri-eraldaketa

Garapen irizpideak: Udalerraren etorkizuneko antolamenduak trinkotasun- eta batasun-irizpide horrekin jarraitu beharko du, eta beharrezkoak diren eraikuntza-garapen berriak proposatuko ditu, lehendik daudenekiko jarraitutasunean eta hurbiltasunean.

Objetivos Ambientales del Plan y Criterios de desarrollo

Helburua: Lurralde egitura

Garapen irizpideak: Ibiurko urtegiari zerbitzua emango dioten obra osagarri eta konpentsatzaileak osorik gauzatzea.

Helburua: Lurralde egitura

Garapen irizpideak: Hirigintza-araudiak kontuan hartu beharko ditu nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabileren erabilera osagarriak garatzeko lehendik dauden eraikinei ematen zaizkien aukerak.

Helburua: Lurralde egitura

Garapen irizpideak: San Juan Iturriaren Parke/Enklabe Historikorako sarbidea egokitzea eta hobetzea planteatzen da, espazio publikoaren erabilera mugatu, handitu eta kontrolatzearekin batera

Helburua: Biztanleria eta etxebizitza

Garapen irizpideak: Etxebizitza-politika, funtsean, barne-eskaerari erantzutera bideratu beharko da (Baliarraingo egungo biztanleria), eta, neurri txikiagoan, udalerritik kanpoko biztanleak erakartzera. Nolanahi ere, bigarren bizilekuko edo erabilera turistikoko etxebizitzak sortzea saihestu beharko da.

Helburua: Errepide-sarea, irisgarritasuna

Garapen irizpideak: Foru Aldundiaren menpeko sare publikoan (GI-3851) eta udal-sarean dauden trazadurak handitzea eta hobetzea, batez ere herrigunetik San Juan parkera doan errepidean.

Helburua: Zerbitzu-sareak

Garapen irizpideak: Egin daitezkeen hirigintza-garapen berriek, jarduerari ekiteko behar dituzten azpiegitura guztiak jaso beharko dituzte, bai lehendik daudenak handitzeko, bai instalazio berriak jartzeko. Urbanizatzeko esku-hartze berriek horiek ezartzeko behar den lurzorua izango dute. Udalerriko saneamendu-sare orokorra amaitzea, Oria ibaiaren ibarreko hodi-biltzailearekin lotu arte.

Helburua: Espazio publikoak eta aisialdirako guneak

Garapen irizpideak: Populazioa handitzeko espazioen erabilgarritasuna bermatzea

III.3. – Kontuan hartutako plangintza-alternatiben deskribapena.

Alternatibak balidatzeko erabilitako irizpide teknikoak identifikatzea eta justifikatzea..

Irizpide teknikoak, justifikazioa

Hasiera fase honetako ingurumen azterketa, etxebizitza-garapenak proposatu diren kokalekuetan agertzen diren ingurumen baldintzatzaila nagusietan oinarritutako aurretiazko analisitzat hartu behar da.

Aurrerapen Dokumentuak jarduketa irizpide orokorrak baino ez dituenez adierazten, ingurumen balorazioa era orokorrean egin da, irizpide hauen koherentzia EAEko ingurumen ildo estrategikoekin bat datozela ziurtatuz.

Garapen proposamen ezberdinen baldintzatzailatzat hartu diren ingurumen-aldagaiak honako hauek dira: orografia, lurzoruen ahalmen agrologikoa, lurrazaleko ur-ibilguak, intereseko landaredia, mehatxatutako faunarentzat interesekoak diren eremuak, naturagune babestuak, paisaia, ondare kulturala, klima aldaketa, ingurumen arriskuak (akuiferoen urrakortasuna, urperagarritasuna, higadura arriskua, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, zarata).

Proposatutako alternatiba bideragarriak ingurumen aldetik karakterizatzea

Alternatibak, izena

0. Alternatiba. Indarrean dagoen araudia.

Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena

Alternatiba hau Arau Subsidiarioek ezarritako antolamendu orokorrari dagokio, Diputatuen Kontseiluak 2003ko uztailaren 22an behin betiko onartu zutena. Beraz ez dira hirigintza garapenerako eremu berriki aurreikusten jada AA.SS.-etan onartuetatik haratago.

Alternatibak, izena

1. Alternatiba

Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena

Muñoa eraikinaren mendebaldean kokatutako lursaila hiri-lurzoru gisa jasotzea proposatzen da, bizitegi-eraikin bat egiteko.

Alternatibak, izena

2. Alternatiba

Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena

Hiri lurzoruan herrigunerako ibilgailuen sarrera berrantolatze esku-hartze publiko bat proposatzen da. Gainera, hirigunearen ipar-mendebaldean, bizitegi garapen berria proposatzen da. Aldi berean, espazio libreen/ekipamenduen gunek bat sortzea ahalbidetzen da.

Alternatibak, izena

3. Alternatiba

Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena

Bizitegi-garapen berri bat jasotzen da lurzoru urbanizagarri gisa, hirigunearen ipar-mendebaldean, Mimendi baserriaren inguruan. Antolamendu xehatua Plan Partzialera igortzea proposatzen da, tipologia bifamiliarreko 8 etxebizitza berrien garapena antolatuz.

Bestalde, Lopetedi eraikinari gaur egun esleitutako bizitegi-erabilera mantendu eta barne-banaketa bidez etxebizitza kopurua handitzea edo hirugarren sektoreko erabileragatik ordezkatzeko aukera ematea proposatzen da.

Alternatibak, izena

4. Alternatiba

Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena

Gainontzeko garapenez gain, bizitegi-garapen berri bat jasotzen da lurzoru urbanizagarri gisa GI-3851 errepidearen ekialdean, hirigunearen sarreran. Antolamendu xehatua Plan Partzialera igortzea proposatzen da, 8 etxebizitza berrien garapena antolatuz, tipologia bifamiliarra edo adostutako izanik. Era berean, Malkor kalea udalerriaren erdigunerarekin komunikatuko duen ibilbide irisgarri bat proposatzen da. Biribilgune moduko gunek libre bat sortuko da eta autobus geltokia bertara eramango da.

III.4. – Plan edo programaren zehaztapen nagusiak

Izena	Deskribapen laburra
Lurzoruaren sailkapena	Udalerriaren lurren sailkapena: hiritar, hiritargarria eta hiritarrezina
Bizitegi-garapenak	4 garapen-alternatiba proposatzen dira, hirigunearen inguruan bizitegi sektore desberdinak aurreikusten dituztenak

Izena	Deskribapen laburra
Baldintzatzaile gainjarriak	Lurrazaleko uren babesa, korridore ekologikoak, higadura jasn dezaketen zonak, ikus-arroak balio paisajistiko oso altua.
Lurzoru hiritarrezinaren kategoriak	Kontserbatu behar diren baso eremuak, produkzioarako baso eremuak, nekazaritza / abeltzaintza eta landazabala trantsiziozko landa paisaia, ingurumen-hobekuntza ekosistemak hobetzeko eremuak (kokapen berezietako baso eremuak)

IV. – Potentzialki eragindako lurralde-esparruaren ingurumen-karakterizazioa.

IV.1. – Informazio-iturriak eta aurkitutako zailtasunak

Administrazio publikoek (tokian-tokikoa, foro aldundikoa, autonomikoa, estatu mailakoa) zein beste erakunde lotetsiek eskuragarri jarritako informazioa, testu eta kartografiakoa.

- Udaleko kide eta beste administrazio publikoetako teknikari eta adituak.
- Landa-lana
- Zientzia-argitalpenak

Ingurumen fisikoaren deskribapenean erabilitako iturri garrantzitsuenak: Geoeuskadi, Eusko Jurlaitzako datu espazialen tresna; URA, ur-Agentziaren datu espazialak; EAE-ko Paisaia berezi eta apartekoen katalogoa, aurreproiektua, Eusko Jurlaritzak; Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa (IHOBE).

IV.2. – Potentzialki eragindako lurralde-esparruaren ingurumen-deskribapena.

Analisiaren esparrua

Hiri Antolamneduko Plan Orokorren jarduera-eremua Baliarraingo udalerrri osoa da. Udalerrria Tolosaldeko eskualdean dago, Gipuzkoako lurralde historikoaren hego-ekialdean. Udalerrirko mugaketari dagokionez, iparraldean Legorretakin egiten du muga; Ekialdean, Orendain udalerrrikin; hegoaldean, Gaintza udalerriarekin; eta azkenik, mendebaldean Alzagarekin.

Udalerrria lur-eremu malkartsu batean aurkitzen da Aralarko mendiaren abesean. Iparraldean ere, Oria ibaiarekin topatzen da, eta azpiegitura adletik alamentu asko izan ez arren, nahiko esanguratsua den lbiurreko urtegia aurkitzen da.

Udalerrrien egiturari dagokionez, herrigune txiki batek eta sakabanatutako baserriek osatzen dute. Herri gunea etxe eta eraikin multzo txikia da, herriko plaza eta parrokiaren inguruan. Horretaz gain, frontoioaedo udaletxea bezalako udal-azpiegiturak aurkitzen dira.

Ingurune atmosferikoa. Airearen kalitatea eta zarata

Baliarraingo udalerrriak klima epel ozeanikoa du, orokorrean tenperatura leunekin, hezetasun erlatibo handia eta prezipitazio ugari, baita hilabete lehorrenetan ere. Baliarrainen bertan ez da inongo estazio meteorologikorik kokatzen, baina udalerritik kilometro gutxitara, Ordiziako udalerrrian zehazki, estazio meteorologiko bat aurki daiteke (C043). Euskalmetek argitaratutako 2023ko txosten meteorologikoan erregistratutako datuen arabera, urteko batz besteko tenperatura 14,2°C-koa izan da, eta guztira 996,9 l/m2 prezipitazio bildu dira urte osoan zehar.

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareari erreparatu, Baliarrain udalerrria “Goierri” eremuan (ES1606) kokatzen da; eremu honek 917,9 Km2-ko azalera hartzen du eta 140.000 biztanle inguru biltzen ditu. Ozonoaren berariazko zonifikazioaren kasua, udalerrria “Ibar-kantauriarrak” eremuan kokatzen da. Eremu honek 3.721 km2-ko azalera hartzen du eta 880.000 biztanle biltzen ditu. Udalerritik gertuen kokatzen den airearen kalitatea neurtzeko estazioa Beasainen kokatutakoa da. Estazio honen azken txosteneko (2023) datuen arabera, SO₂, NO₂, PM₁₀, PM_{2,5} eta CO kutsatzaileen datuek maila ona erakusten dute eta O₃ kutsatzailearentzako balioak ere bete dira.

Bestalde, Eustateko “EAEko eskualdearen airearen kalitate indizeak eta iraunkortasun adierazlea”-ren arabera, 2023an Goierri unitatean airearen kalitatea oso ona izan zen 183 egunez, ona 158 egunez,

hobegarria 15 egunez, txarra 8 egunez eta oso txarra egun bakarraz. Ondorioz, Goierriko unitateak 93,42-ko iraunkortasuna adierazten du.

Geologia, geomorfologia eta lurzorua

Euskadiko mapa geologikoaren arabera Baliarrain osoa goi kretazeoko materialen gainean kokatzen da. Mapa honen arabera aurki datekeen unitate litologia hurrengoa da: “22 – Marga grisak eskistotsuak, kararri hareatsu, margakararri eta kararrizko tarteka zenti-dezimetroekin”, pitzaduran ondoriozko iragazkortasun txikikoa hain zuzen ere. Hala ere, udalerriaren mugetatik kanpo alubioi deposituak aurki daitezke, Oria ibaiari dagozkionak. Geomorfologiaren ikuspegitik, “malda” sistemaren parte diren eremuak topatzeaz gain, Ibiurretik gertu sistema “alubiarreko” gunek aurki daitezke. Baliarraingo udalerrian ez da EAEko Geologia Interes Lekurik topatzen.

Gipuzkoako lurraldean eskala txikian egindako aurretiazko azterketa edafologikoen arabera¹, Baliarrainen agertzen den lurzoru mota bakarra lubisol ortikoa da.

Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen arabera, Baliarraingo udalerrian soilik hiru mota agrologiko bereizten dira. Udalerriko azalera osoaren %56a baso lanetarako baino erabil ezin daitezkeen lurrek osatzen dute. Gainontzeko eremua lantzeko zailak diren lurrek eta malda txikiko mendi-bizkarren mugan dauden eremuak osatzen dute.

- IV Malda txikiko mendi- bizkarretan eta %20<-ko malda duten mendi-hegaletan lantzeko lursailen mugan dauden lurrak

- VI Lantzeko zailak diren lurrak, iraunkortasunez larretarako edo egurretarako erabiltzen direnak soilik

- VII Baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurrak

Lurrazaleko eta lurpeko ingurune hidrologikoa

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera (2022-2027 zikloa, 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua) Baliarraingo udalerria Planaren aplikazio-eremuaren barruan sartzen da. Zehazki, Oriako Unitate Hidrologikoan. Oria UH-koa bi arroetan banatzen da Baliarraingo udalerrian: Oria ibaia V eta Ibiurko urtegitako drainatze eremua. Oria ibaia V arroa, udalerriaren ipar mendebaldean kokatuta dago, eta 82ha inguruko azalerarekin, udalerriko azalera osoaren %30a estaltzen du. Ibiurko drainatze eremua aldiz, udalerriaren ipar-, eki- eta hegoaldean kokatzen da. 177ha inguruko azalerarekin, udalerriaren eremu gehiena estaltzen du, zehazki %64a. Arro isurialde honek zuzenean Ibiurko urtegitan isurtzen ditu urak. Azken honek Baliarraingo azalera osoaren %6a hartzen du 17ha-rekin eta udalerri ekialdean kokatzen da. Udalerrian Okots, Txalika, Iturri motza eta Gaintzabaso errekek aurkitzen dira. 2022-2027 Plan Hidrologikoan egindako sare hidrografikoaren jarraipen eta egoera ebaluazioaren arabera, Ibiur urtegitako ur-masak egoera kimiko zein ekologiko ona du, beraz, egoera orokorra ona da.

Landaretza

EAEko Landaretza Serieen Mapak adierazten duenez (landaredi potentziala), eremu gehiena harizti azidofiloa eta harizti baso-atlantikoak hartuko luke. Pagadi azidifiloak aldiz mendebaldeko eremu txiki bat estali beharko luke, eta azkenik, ur-ibilguzer lotuta, haltzadi kantauriarra udalerriaren ekialdean egongo litzateke.

Hala ere, orain arte lurzoruan egindako erabilerak, garatzen den landaredia moldatu dute. Horrela, basoek gutxi gorabehera lurraldearen %60 okupatzen dute, eta hauetatik %38 dira naturalak (pagadiak, hariztiak,

¹ Gipuzkoako azterketa geomorfologiko eta edafologikoa. 1991. Gipuzkoako Foru Aldundia.

eta haltzadiak). Gainera, Baliarrainen Batasunaren intereseko habitat ezberdina identifikatzen dira, guztira udalerriaren %32a okupatuz.

Fauna

Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemak (SINE) Euskal Autonomia Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan aurkitzen diren fauna espeziek identifikatzen ditu Baliarraingo udalerrian. Besteak beste, aipatzekoak dira, harkaitzetara lotuta bizi diren hegazti harrapariak, basoetara lotutako kiroptero eta hegaztiak edota ibai ibilguetara lotutako fauna.

Garrantzi bereziko eremu naturalak

Udalerriak natura intereseko ezaugarri ugari bildu arren, Baliarrainen ez da inolako eremu natural babesturik aurkitzen. Hala ere, udalerriko mugetatik gertu, iparraldean, ES2120005 Oria Garaia KBE Kontserbazio Bereziko Eremua aurkitzen da.

Ingurune sozioekonomikoa

Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) informazioaren arabera, Baliarraingo udalerriak 274 ha-ko azalera du eta 2024an 159 biztanle zituen, hau da, 58,02 biztanle/Km²-ko dentsitatea.

Azken 10 urteetan % 20ko hazkunde eman da biztanlerian. Biztanleriaren % 8,80a 65 urtetik gorakoa da eta biztanleriaren % 8,80 atzerrian jaioakoa da.

Bestalde, udalerriko enplegu-tasa 2023 urtean % 72,6-koa da, orokorrean zerbitzu (% 56,10) eta industria (% 35,37) sektoreetan bilduta. Langabezi-tasa % 2,4-ekoa den bitartean.

IV.3. – Inplikaturako lurralde-eremuen ingurumen-balorazioa. Ingurumen-diagnostiko eta -unitate homogeneousak.

Ingurumen-karakterizazioa

Ez dago uholde arriskurik, udalerri osoak akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun oso baxua aurkeztzen du, RUSLE ereduak higadura maial baxuak adierazten ditu, ez dago kutsatutako lurzorurik.

Ingurumen-unitate homogeneousen definizioa eta balorazioa

Unitatea-zk: 1

Izena: Ibai eremua

Azalpena: Ibai-sistema, ibai eta errekekin lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko ezinbestekoak diren prozesu hidrogeomorfologiko guztiak hartzen ditu bere barnean. Gainera, haranetako paisaiaren elementu egituratzaile eta dibertsifikatzaile garrantzitsuak dira.

Balorazioa: Eremu honetan helburuak ibai ibilguen funtzio ekologikoak mantentzea eta sustatzea izango lirateke. Ondorioz, eremuaren antolaketa kontserbaziora eta ingurumen balioa hobetzera bideratu beharko litzateke.

Unitatea-zk: 2

Izena: Urtegia

Azalpena: Urtegi honek hornidurara bideratutako urak biltzen ditu.

Balorazioa: Eremu honetan helburua emari ekologikoa mantentzea izango da..

Unitatea-zk: 3

Izena: Kontserbaziorako basoa

Azalpena: Honako ezaugarri hauetakoren bat duten lursailak dira: - Baso autoktonoak: Pagadi azidofiloa, harizti azidofiloa, baso mistoa eta haltzadi eurosieriarra. - Aurreko baso horien ordezkapen-etapei dagozkien larre- eta zuhaixka-egiturak (txilardiak, otadi, sastrakadiak, etab.).

Balorazioa: Eremu honetan helburua basoa kontserbatzea izango litzateke, bertako zerbitzu ekosistemikoak mantendu daitezen eta biodibertsitatearen gordailu moduan..

Unitatea-zk: 4

Izena: Ustiapenerako basoa

Azalpena: Haga clic o pulse aquí para escribir texto. Baso-ustiapenerako lursailak dira, malda ertainak edo handiak dituzten mendi-mazeletan kokatuak. Bere erabilera lehengaia ekoizteko erabiltzen da, zurgintzarako eta paperaren industriadarako.

Balorazioa: Bere bokazioa produkzioa izango da, egurraren ustiapen jasangarria bultzatuz.

Unitatea-zk: 5

Izena: Nekazaritzako Balio Estrategiko Altuko lurrak

Azalpena: Unitate honetan Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak 'Balio Estrategiko Altua' kategorian identifikatutako lurrak barneratzen dira, abereentzako forrajea edo bestelako nekazal erabileretarako oso ezaugarri egokiak dituztenak.

Balorazioa: Hirigintza garapenerako egokiak izan daitezkeen lurrak batzen ditu, dituzten baldintza geoteknikoengatik. Hala ere, hauen babesa eta duten nekazaritzako erabilera mantentzea lehentasunezkoa kontsideratzen da.

Unitatea-zk: 6

Izena: Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala

Azalpena: Belardi eta larreetarako erabiltzen den azalera hartzen du, baita landa-inguruneari lotutako jarduerak hartzeko eremu mugakideak ere. Baserriak, baratzeak, frutondoak eta belardiak dira unitate honen ezaugarri nagusia, hau da, landazabaleko paisaia.

Balorazioa: Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko trantsizioko landa-paisaia kategoriaren definizioarekin bat dator. Horregatik, lurzoruaren gaitasun agrologikoa, abeltzaintza-jarduerak eta landa-ekosistema eta -isolamendu horien kontserbazioa bermatuko duten bestelako jarduera bateragarriak mantentzea da irizpidea..

Unitatea-zk: 7

Izena: Hiri lurzoruak edo eraldatuak

Azalpena: Hiriguneko hiri-garapenak, landa-guneak eta garraio-azpiegiturak okupatutako lursailei dagokie

Balorazioa: Orokorrean hiri garapenak jasotzeko ezaugarri egokiak ditu.

Plan edo programak Natura 2000 Sarean izan dezakeen eraginaren balorazio espezifiko

Baliarraingo udalerrria Natura 2000 Sareko eremuetatik eta babestutako natur-guneetatik kanpo gelditzen da. Hala ere, udalerriko mugetatik gertu, iparraldean, ES2120005 Oria Garaia KBE Kontserbazio Bereziko Eremua aurkitzen da.

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Proiektuak (Eusko Jaurlaritza, 2005) Baliarraingo udalerrian nukleo eremurik topatu ez arren, Ernio-Gatzume eta Aralar lotzen dituen korridore ekologiko garrantzitsua identifikatzen ditu. Horretaz gain, udalerrri osoa indargetze eremuaren barruan kokatzen da, hiri-eremua izan ezik.

Hori horrela, babestutako eremu horien konektibitatea mantentzeko helburuarekin, Baliarraingo udalerrria zeharkatzen duten korridoreak lurzoru urbanizaezineko kategorien baldintzatzaile gainjarri moduan jarriko dira.

Ildo horretan, nabarmendu behar da, Baliarraingo HAPO-ko aurrerapenak alternatiba desberdinetan jasotzen dituen hiri-garapenak, egungo hiri nukleoaren inguruan kokatzen direla eta ez diotela korridoreari eragiten.

Beraz, aurreko guztia kontuan izanik, esan daiteke Baliarraingo HAPOk ez duela eragin esanguratsurik izango Natura 2000 Sareko eremuetan, ezta bestelako natur-gune babestuetan ere.